



sabaiaren
aurka
borrokan

emakumeak
Harmailan



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

HAINBAT EGILE

sabaiaren aurka borrokan

Artikuluak



Harmaila

aldizkaria

AURKBIDEA

198 kilometroko “oparia”

Ainhoa Azurmendi– Psikologoa eta kirol aholkularia

Arritxu Iribar – Kirol kazetaria

“Kazetaritza duinik gabe, botereak nahi bezala kontrolatuko ditu herritarrak”

Bozieniko arraunkadak

“Euskal herritarra sentitzen naiz, eta frantziarra ere banaiz”

Etendako ibilbidea berreskuratzen

Kristalezko sabaiaren aurka borrokan

Katu zinemagilea

Lokatzetan

“Lehentasunen zerrendan, ikasketak lehenengo postuan daude”

Maika Brust

“Atletismoa ez dut inoiz bizitzeko modu bat bezala ulertu”

Maite Maiora Elizondo, Mendiko lasterkaria

Motorra ez dute itzali

Oinarriko lana, funtsezkoa denboran mantentzeko

198 kilometroko “oparia”

40 urte betetzeak berezia izan behar duenaren aitzakian, ohikoak izaten dira lagunarteko bazkariak, bidaiak eta erronkak. Pasa berri den udan Zergatik ez? taldeak eginikoa, ordea, betiko ospakizunetatik urrun dago: Orio-Bilbo-Orio zeharkaldia egin dute arraunean 32 emakumek. Desafioan parte hartu duten hiru emakumerekin bildu da ‘Harmaila’, itsasoan bizitakoa, esperientzia pertsonala eta arraunean ikasitakoa biltzeko asmoz.

“Ez diogu inori ezer frogatu nahi izan; geure buruari salbu”. Hala diote Ainhoa Pozok, Eider Osinaldek eta Sorkunde Lizasok erronkari buruz galdegindakoan. Bada, ia talde erdiak 40 urteko langa gainditua du, eta gehienek ez zuten ordu arte arraunik izan eskuetan. “Urteek aurrera egin ahala beste lehentasun batzuk dituzu: lana, umeak, familia, lagunak... Kirola pixka bat alboan uzten duzu. Kirolarekin harremana berreskuratzeko modu bat izan da zeharkaldia”, dio Pozok. Lotura berriz egitea, ordea, ez da nolanhiko lana izan.

198 kilometro egin dituzte, lau egunetan banatuta. Urtebete gogor entrenatzen egon ondoren, uztailaren 12an atera ziren Oriotik, urduri bezain gogotsu, eta hori gutxi ez balitz, eguraldia ez zuten lagun izan. “Goizean goiz atera ginen herritik, eta lehen geldialdia Bermeon egitea genuen pentsatuta. Euriagatik, ordea, Getarian geratu behar izan genuen”, dio Pozok atzera begiratuta. Ohiko denbora baino 45 minutu beranduago iritsi ziren San Antongo mendiaren babesera. Hasierako uneak “gogorak eta ziurgabetasun handikoak” izan zirela onartu du Lizasok, eta hilabeteetan egokitutako plangintza kolokan egon zela dio. “Itsasoak bere lekuan jarri gintuen; dena antolatu dezakezu, baina naturarekin ez dago jakiterik”.

Pozo bat dator Lizasorekin, eta tentsioa nabarmena izan zela dio, zalantza baitzen erronkak aurrera jarraituko zuen. “Batzuk Ondarroan geunden aldaketaren zain – hamahiru arraunlariko bi txandetan banatu dute trainerua–, baina egoera ikusita Getariara joan ginen. Entrenatzaileek zuten azken hitza, eta haientzat ere oso zaila zen; ez zuten guri ezer pasatzerik nahi. Azkenean, tripulazioa aldatu eta itsasora irten ginen berriro. Azkenean iritsi ginen Bermeora! Eguerdi aldera iritsi ordez, gauean. Baina bertan ginen!”.

B plan bat ere bazutela diote: uzaileko bigarren asteburuan egin ordez, zeharkaldia bertan behera utzi eta erronka beste egun batzuetan egitea. Erabaki hori, baina, ez zen axolagabekeria hartu beharrekoa: “Konpromiso asko hartu genituen, eta guk ez genuen nahi atzeratu. Ez da hain erraza gainera: jendeak familia dauka, umeak, lana... guztiok antolatzea ez da erraza izan. Jai hartu genuen askok erronka hori iteko”.

Itzulera “gozamen” hutsa

Behin Bizkaiko kostaldean zirela, ordu arte bizitako emozioak berehala azaleratu zirela gogoratu du Osinaldeak, eta lesioak direla medio, erronka utzi behar izan zuten lagunak portuan zain egotea unerik hunkigarriena izan zela dio. “Zoragarria izan zen: moila jendez gainezka, txaloak, oihuak... Emakumeen aldetik sentitu genuen konplizitatea izan zen ederra; militantzia puntua zuen”. “Indarberritzeko” balio izan ziren lehen geldialdiak, baita herri arteko “pikeak” albo batera uzteko ere: “Bermeon “Aupa Orio!” entzutean ohartzeko zara lehen mailako lehiakortasuna albo batera gera daitekeela halako ekimen batean”, azaldu du Lizasok. Osinaldek, ordea, “ahizpatasun zintzo” horretaz ohartarazi du: “Lehiarik ez

zegoelako animatu gaituzte. Gure buruarekin genuen erronka bat zelako". Biharamunean Bermeo utzi eta Bilborantz abiatu ziren. Han ere harrera beroa jaso zutela nabarmendu dute hiru arraunlariek, eta, besteak beste, Portugaleteko Bizkaia Zubiaren azpitik pasatzeko aukera izan zutela diote.

Behin joaneko bidea eginda, etxera itzultzea "beste patxada batez" hartu zutela dio Lizasok: "Bat-batean han zaude, itsasoaren erdian arraunean, zu eta beste hamabi lagun, Gaztelugatxeren aldamenetik igarotzen. Beste egoera batean egingo ez zenituzkeen gauzak dira". Bada, ordea, hiru arraunlari entzat bizipen ahaztezin bat: "Enrique patroiar aurpegia aldatu zitzaion Oriora sartzen hasi ginenean. Gu herriari bizkarra ematen gindoazen, baina berak dena ikusten zuen". Zeharkaldi osoa traineru batekin egin bazuten ere, azken txanpan bigarren ontzi bat itsasoratu zuten. Uztailaren 15ean herri osoa kalean zuten zain, txalo zaparrada eta animo oihuen artean: "Hamahiru emakume beharrean, 32 emakume sartu ginen Oriora arraunean. Erronkakoak Bilbotik irten zirenean, batzuk Oriora etorri ginen bigarren ontzia uretaratzera. Getarian elkartu ginen, eta guztiok azken kilometroak osatzea oso berezia izan zen". Eztanda moduko bat izan zela dio Lizasok, eta emozioz gainezka, herriaren babesa modu horretan sentitzea "ahaztezintzat" jotzen du.

Opari moduko bat

Baina nondik dator ia 200 kilometroko ibilbidea osatu behararen abiapuntua? Jakina da oriotarrek joera eta gertutasun berezia dutela arraun munduarekin, eta herriko eskoletan kolore horiari "Aupa Orio" esaten diotela. "Oriotarrak izateak eragingo zuen, dudarik gabe! Baina batez ere naturarekin eta kirolarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi genuen". Ez betiko bazkari bat, ezta hain modan dauden maratoi jendetsu horietan korrika egitea ere, arraun taldeko kide baten 40. urtebetetze ospakizunak "berezia" izan behar zuen, eta Oria ibaiaren magalean egonik, zer hoberik arraunean egitea baino.

Arraunei besterik gabe eragitea meritu gabeko erronka zela ohartarazi zien lehen unetik entrenatzaileak, eta lehen erronka izango zena proposatu zieten arraunlari berriei: 30 emakumeko taldea osatzea eta Bilborainoko ibilbidea egiteko desafioa onartzea. WhatsApp bidez iritsi zitzairen gonbidapena Lizasori eta Osinalderi, eta "askorik pentsatu gabe" baiezkoa esan dutela diote: "Nik jada 58 urte ditut, eta aukera hau opari bat izan da niretzat", dio Sorkunde Lizasok, "amets bat bete duela" esanez.

Arrauna lanari nahiz familiari egokitu beharra ere "ez dela erraza" izan dio Osinaldek: "Askotan lanera joan aurretik entrenatzen nintzen, eta bestetan ondoren; ni bezalaxe ibili dira taldeko beste hainbat". Baina harro daude lortutakoaz, eta kendu baino traineruak "gehiago eman" diela nabarmendu dute. Ahalduntzeko eta hausnartzeko garaia ere izan da erronkak iraun duen urtebetea. Hala dio Lizasok: "Funtsean, zeure buruarekin egoteko aukera paregabea da: zu, itsasoa eta isiltasuna. Jendeak diru asko izan dezake, auto garestiak, eta luxuzko etxeak. Ni, ordea, aberatsa sentitzen naiz Zergatik ez? ekimeneko parte izan naizelako, eta sentsazio hau paregabea da". Bat dator Pozo Lizasorekin. Horrez gain, talde izaeraren garrantzia azpimarratu du: "Futbola ere taldeko kirola da, baina nahikoa da jokalaria batek gola sartzea partida irabazteko. Arraunean irabazteko guztion ahalegina beharrezkoa da; zuk ez baduzu egiten ondokoak bikoitza egin beharko du eta alderantziz. Hori ere ikasi dugu".

Ainhoa Azurmendi– Psikologoa eta kirol aholkularia

Iñaki Berastegi

“Euskal Herrian ulerkorragoak izaten ari gara, onarpen maila handiagoa dugu”

Euskal Herriko kirol erakundeetako goi karguetara geroz eta emakume gehiago iristen ari dira azken urteotan, eta aldaketa hori ez da “kasualitatez” eman Azurmendirentzat: “Azpimarratu eta goraipatu beharreko zerbait da”. Hala ere, Azurmendik uste du emakume bat goi kargu batean egoteak ez duela zertan adierazten klub edo erakunde horretan berdintasunaren alde lan egiten denik edo emakumeen eskubideak errespetatzen direnik.

Amaia Gorostiza Eibarren, Livia Lopez Araskin edo Nekane Arzallus Gipuzkoa Basketen. Argi dago geroz eta emakume gehiago ikusten ditugula Euskal Herriko kirol erakunde edo klubetako kargu gorenetan.

- Azpimarratu eta goraipatu beharreko zerbait da. Oso garrantzitsua iruditzen zait emakumeak erabakiak hartzen ikustea tradizioz gizonezkoena izan den arlo bateko goi karguetan. Bi aspektu azpimarratu nahiko nituzke: batetik, emakumeek berritasun sentsazioa ematen dutela, erakunde bat irekiagoa dela erakusten baitute, eta, bestetik, nabarmendu nahiko nuke erakunde bateko goi karguetan emakume bat egoteak ez duela zertan adierazi nahi klub, talde edo erakunde horretan berdintasuna bermatuta dagoenik, edo emakumeen eskubideak aintzat hartzen direnik.

Korrante berriren bat datorrela adierazi nahi du emakume gehiago klubetako goi karguetara iristek, edo Euskal Herriko hiru klub garrantzitsu hauetan presidenteak emakumezkoak izatea kasualitate hutsa iruditzen zaizu?

- Ezin da zerbait puntuala izan. Testuingurua oso garrantzitsua da, eta azterketa bat modu zabalagoan egin behar da. Esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoan, aspalditik daude berdintasun politikak, eta 2005ean berdintasun legea onartu zenetik aurrerapauso handiak eman dira, eta horrek oihartzuna izan du kirolean. Berdintasun plan hori lortzeko asko itxaron behar izan dugu, baina hori dela eta, ezin dugu esan aurrez aipatutako fenomeno hori kasualitatez gertatu denik. Kuantitatiboki azterketa egiten badugu, egia da Euskal Autonomia Erkidegoa Espainia baino gorago egon dela emakumeen presentziari dagokionez, kirol munduan eta bertatik kanpo.

Kasu zehatzetara etorrira, Emakumezkoen Saskibaloia ligako bi presidente eta bi entrenatzaile emakumezko bakarrak euskaldunak dira: Livia Lopez eta Madalen Urieta Araskin, eta Carmen Muguruza eta Azu Muguruza IDK Gipuzkoan.

-Nabarmenezkoa da aipatu dituzun bi entrenatzaile euskaldun horiek saskibaloiarekin urte askotan oso konprometituak egon diren emakumeak direla, emakumeen saskibaloian, zehazki. Biek argi eta garbi nabarmendu dute zenbaterainoko garrantzia duen emakumezkoak egotea emakumezkoen kirolean, eta beti aldarrikatu dute emakumeen eskubidea eta kalitatea kirola egiterakoan. Oztopoak oztopo, eta erresistentziak dauden arren, oso adibide esanguratsuak dira.

Dena den, enpresaren munduan eta zer esanik ez kirolean, gizonak agintzen jarraitzen dute, eta matxistak dira.

- Kontuan hartu behar da gizartea matxista dela. Hori aldatzea oso zaila da, oso errotuta dagoelako baloreetan. Batzuetan begi bistakoa da, baina beste batzuetan, oso modu burutsuan azaleratzen da. Kirol arloan elementu garrantzitsua da estatus soziala, eta gizonak presentzia gehien izan duten, gizonen estereotipoak azpimarratu, goraiatu edo azaldu dituzten kirol horietan, estatu sozial edo botere handiagoa dago. Eta kirol horietan emakumeak sartzeko erresistentziak egon dira. Luzaroan pentsatu izan da emakumeek ez zeuzkatela gaitasunak zuzentzeko, eta hori enpresan ere gertatzen da. Kirol arloan hori oso argi ikusten da entrenatzaile, presidente edo epaileetan.

Hortaz, presidentea emakumea izateak erakutsi dezake kluba ezberdina dela?

Iragazkortasun eta dibertsitate irudia ematen dute, eta hori ezinbestekoa iruditzen zait. Batzuetan izan daiteke ongi pentsatuta hartutako erabakia, ezagutzen baitut gure inguruan, hainbat federazio edo klubek nahita egin dutela apustu estrategiko hori, erakundeari beste itxura bat emateko, eta aldi berean emakumeek postu horietarako balio dutelako. Guztiz kontrakoa kasuak ere egon daitezke, gerta liteke irudia aldatzea baina funtzionatzeko modua betikoa izatea, edo betiko moduak errepikatzea emakume bat presidente izanda. Hazkuntza potentzial izugarria dago emakumeen partaidetza sustatzen bada, baina baita ere behar moralala eta etikoa ere bada apustu hori egitea. Inoiz ez dut ulertuko horren alde ez egitea.

Berdintasunaren alorrean, kirolen artean ba al dago ezberdintasunik? Eta taldekako kirol eta bakarkako artean?

-Irakurketa sozial eta ekonomikoa egiten badugu, taldekako kirolak gehiago nabarmentzen dira. Kirol batetik bestera baino, aldaketa gehiago ikusten dut taldekako kirol eta banakako kirolen artean. Ikerketek adierazten dute erresistentzia antzekoak daudela kirol gehienetan. Arraun mundua ez da tradizionalki taldekako kirol bat bezala hartzen, eta arrauna tradizionalki oso maskulinoa da. Erresistentzia dagoen arren, emakumeak sartzen ari dira. Dena den, paper batzuk eta estereotipo batzuk puskatzen ari dira. Euskal Herrian irekiagoak edo ulerkorragoak izaten ari gara, onarpen mailan handiagoa dugu.

Emakumeek kirol-arloan entrenatzaile eta epaile izateko aurkitzen dituzten oztopo psikosozialak izeneko zure tesian bi hitz gako aipatzen zenituen: demostratzea eta berrestea.

- Nire tesiaren ondorio argi bat zen emakumeen erabakiak gehiago kuestionatzen zirela. Eta ondoren, zerbait demostratu ostean, esandakoari eustea ere beharrezkoa zela. Bibiana Steinhaus aipatuta, oso garrantzitsua da Alemaniako lehenengo mailako futbol ligan emakumezko bat epaile lanetan aritzea. Bada, txalotzekoa iruditzen zait gizonetzkoen aldetik, adibidez, Iker Casillasen jarrera, Steinhausi etorkizunerako zorterik onena adierazi zionean. Emakumeek badakite horri aurre egin behar diotela, eta badakite batzuetan hainbat jarrera hartzea beharrezkoa dela; inposatzen jakin behar dute, jarrera serio bat hartu behar dute batzuetan, kolkora igoko zaizkielako bestela.

Bestalde, presidente emakumearen figura normalizatzeko prozesuan, oso garrantzitsua da nabarmentzea, klub horiek emakume batekin gorengo karguan oso emaitza onak lortu dituztela.

-Bai, noski. Gauzak gaizki doazenean ekartzen ditugu gogora batzuetan horrelakoak. Orain dela urte batzuk egin genuen ikerketa zuzendaritza postuetan zeuden emakumeekin, eta ondoriotako bat zen emakumeak goi karguetara iristen zirela enpresa edo erakundea oso egoera larrian zegoenean. Gauzak ongi egiten direnean kontaktu egin behar dira. Egun batean normaltasunez hitz egingo dugu horretaz, baina seguru nago askok pentsatzen dutela demostratu badu aukerak berdinak izan behar direla emakume zein gizonentzat. Hori postura post-matxista da, ez gaude berdintasun egoera batean. Hortaz, ondo egiten diren gauzak goraiatu eta erakutsi behar dira. Ereduak oinarritzkoak dira, gizarteari erakustea normaltasunez gertatzen ari dena.

Deigarria da, ia gizonetzkoetan bezain zaila dela emakumezkoen gorengo mailan presidente emakumeak ikustea.

-Benetan logikoena litzateke emakumezkoak egotea emakumezkoen klubetan, eta gizonak gizonekin aritzea, eta gero emakumeak eta gizonak nahastea berdintasun egoera batean. Emakumeak gizonetzkoen kiroletara iristen dira, baina lehenago beste hainbat taldetan lanean aritzen dira. Gure sozializazioak karga kultural handia dauka sexuaren arabera. Hori guztia mugitzen ari da. Futbol munduan oso emakume gutxi egon dira, tradizioz erresistentzia handiena izan duen kirola baita.

Zure tesian oztopo motak aipatzen zenituen: soziokulturalak, aukera faltak eta norberarenak.

-Guk ere barneratzen ditugu oztopo horiek batzuetan. Zuzendaritza postuetan aritzen ziren emakumeekin egindako ikerketan agerian geratu zen emakumeek ezin zutela bilera bat arratsaldeko zazpitan egin umeak zaindu behar zituztelako. Datuek zer esaten dute? Oraindik gizonak eta emakumeek ez dutela berdin lan egiten etxean, nahiz eta hori aldatzen ari den. Guri etengabe kapazak ez garela esaten digute, eta ideia hori buruan sartzen zaigu batzuetan. Gainera, nire tesietako ondorio bat zen, gizonak emakumeek baino formazio gutxiagorekin postu baterako gai ikusten zutela euren burua, eta emakumeei gehiago kostatzen zitzaiela.

Livia Lopez Araskiko presidentek zioen detaile txikiak aldatzea ere beharrezkoa dela, araudietatik maskulino generikoa ezabatzea, adibidez.

-Gauza asko dira. Guk arazo estruktural bat dugu gizarte honetan. Ezin da partxe bat jarri eta kitto. Gure irudikapen mentala ere aldatu behar dugu. Txiki-txikitatik umeek ikusten badituzte emakume sendagileak, autobus gidariak edo zuzendaritza postu garrantzitsuetan estereotipoak apurtu egiten dira, eta figura erreferente horiek normalizatzen joango dira. Hori kirolean gertatzen da, eta irudiarekin batera hizkuntza ere batera joan behar da. Azkenean iruditzen zait maskulino generikoa sartu diguten kristoren gola dela. Hizkuntza garrantzitsua da, zaindu behar dugu eta maskulino generikoa erabilita, ez dugu hori sentitzen. Askok maskulinoan hitz egiten dute, beraiengatik, baina hori kontzientzia falta baino ez da.

Arritxu Iribar – Kirol kazetaria

“Ez naiz baztertua sentitu kirol kazetaritzan emakume izateagatik”

Aurrenetako emakumea euskarazko kirol kazetaritzan. Irratiko ahots ezaguna. Erreferentzia txirrindularitzan, batez ere. Kirol zalea, zaletasun horren kontalari 31 urtez dagoeneko. Kirolarien laguna ere bai. Eta hori guztia, naturaltasun osoz egiten du Arritxu Iribar zumaiarrak.

Kazetari ala esatari zara?

Esatari, baina esatari izateko kazetari lana egin behar da. Ezin da esatari izan kazetari izan gabe. Kazetaritzaren oinarritzako printzipioen gainean, betiere.

Lanean ikasten baita ofizioa, ezta?

Hori da. Albistearen bi aldeak kontrastatu ahalik eta finen, eta azken batean, objektibotasuna helburu beti. Horren gainean aritzen naiz lanean.

Eginez ikasi behar izan baituzu ofizioa, euskal filologoa zarelako ikasketaz.

Bai. Zalantza handiak izan nituen kazetaritza edo euskal filologia egin, eta azkeneko hau aukeratu nuen. Karrera bukatzen ari ginenean, jendea eskatu zuten irrati eta telebista publikotik, hizkuntza aldetik bultzada eman nahi ziotelako hedabideari. Edonork egingo lukeena egin nuen: erakargarri egiten zitzaidan kazetaritza, eta izena eman nuen; bost lagunek uste dut egin genuela proba, eta hiru hartu gintuzten. Gero, zorte ona izan nuen, urtebetera oposaketak deitu zituztelako. Joan nintzen batere itxaropenik gabe, ezer prestatu gabe, eta plaza atera nuen.

Ezer ikasi gabe?

Kazetariak ziren ia denak, eta zer pentsatuko nuen bada nik plaza atera nezakeela... Hasiara zen hedabide publikoarena, eta 300dik gora lagun aurkeztu ginen. Etxean estu hartzen ninduten ea nora nindoan ezer ikasi gabe, eta nik esaten nien ikustera nindoala oposaketak nolakoak ziren eta hurrengokoak prestatuko nituela behar bezala. Baina, plaza atera nuen, eta ordutik gaur arte, irratian nabil.

Kazetaria zara bokazioz?

Agian bai. Zalantzak izan nituen garaian zein ikasketa egin, ordurako banebilen esatari lanak egiten herriko ekimen eta ekitaldi batzuetan. Eta euskararen inguruko kezka umetatik izan nuen, gero klaseak ere eman nituen. Euskarak lekua izan behar bazuen ekitaldiren batean, deitu egiten zidaten, txirrindularitzan eta arraunean, batez ere.

Egin du euri pixka bat zure hasiera hartatik...

Plaza orain dela 30 urte atera nuen, eta 31 daramatzat irratian.

Aurrenetako emakumea izango zinen Euskal Herrian kirol kazetaritzan lanean, ezta?

Bazen beste bat, Miren Gaska, Ser irrati katean. Gogoan dut garai hartan emakumezkoek ezin zutela lasterketa autoetan jarraitu, eta Txomin Perurenak behin, Gaska bere autoan eraman zuen mekanikoz mozorrotuta. Niri ez zitzaidan debeku garai hori tokatu. Elena Azpeitia nirekin batera sartu zen EITBn, eta bera ere euskal filologoa, eta aurrenetakoak izango ginen, bai.

Baina ez omen zinen kiroletan lanean hasi irratian.

Goizetako saio batean hasi nintzen, Joxerra Gartziaren programan. Konturatu ziren irratikoak askotan heltzen niela kiroletako gaiei, eta nola bazekiten erreferentziak eta harremanak nituela kirol munduan, handik gutxira eskaini zidaten zerbait egiteko kirol sailean, eta aurreneko lana izan nuen txirringularitzako kronikak egitea.

Nahigabe eman zizuten lan hori ala nahita, zu hain txirringularitza zalea izanik?

[Barrezka] Horrela hasi nintzen, eta bi urteren buruan, kiroletako lantaldera pasa ninduten. Hasieran, futbola ere egiten nuen, partidak kontatu. Real eta Athletic egiten nituen, batez ere Real. Txuri-urdinekin tokatu zitzaidan UEFA Kopako partidaren bat egitea Atotxa zaharrear, Stuttgarten aurka. Gaur egun, telebistak daude kazetarien gainean, baina orduan... Jokalari batzuk ezagutzen ere lanak!

Bai al zen orduan kazetarietzako gunerik?

Atotxan bazen bai. Uralitazko teilatua zeukaten, eta harmailaren gainean zeuden. Eskilara batzuetatik igo behar izaten zen. Beroa egiten zuenean, ez zen giro izaten teilatu haien azpian. Badut bitxikeria bat: Josean Alkorta zenak, Alemaniako kazetari baten deia jaso zuen Herri Irratian, galdetuz ea nolako eguraldia egiten zuen hemen. Etorri zen gizona neguko erropekin, eta justu egun hartan sekulako beroa egin. Nahiko barre egin genuen horren kontura.

Emakumezko kirol kazetaria erabat gizonezkoena zen munduan. Nola bizi izan zenuen hori guztia?

Naturaltasun osoz bizi izan dut beti, eta ez naiz inoiz sentitu baztertua. Baina joaten nintzenean zenbait jende elkarrizketatzera kirol jakin batzuetan, futbola, pilota eta arrauna adibidez, harritu egiten ziren esanez nik ere banekiela kirolaz. Ez dut izenik esango, batzuk bizi-bizirik daudelako, eta oso ezagunak dira. Betidanik ezagutu izan nauten lekuetan, txirringularitzan eta, bidea errazagoa egin zitzaidan, beste modu bateko harremana nuelako.

Halakoak entzundakoan, eragingo zitzaizun barren-barrenean halako amorrazio modukoa, ezta?

Bai. Emakumezko kirolariak albiste izateko zerbait irabazi behar izan du, bestela azaldu ere ez delako egiten inon. Eta kirolezko emakumezko kazetariok ere erakutsi egin behar izan dugu jarraitu egiten dugula kirol mundua, ulertzen dugula guk ere kontu hauetaz. Motibatu egiten nintzen halakoak entzundakoan, eta erakustera joan gai nintzela eta ondo prestatzen nintzela, besteak baino hobea izan nintekeela.

Kirolarien artean ere denak gizonetzkoak izango ziren orduan.

Ez zegoen emakumezko kirolean, salbuespen gutxi batzuk izan ezik. Atletismoa Maria Luisa Irizar zebilen, txirrindularitzan ni hasi eta gutxira azaldu ziren Orbea taldean Dina Bilbao zena, Josune Gorostidi, Amaia Elozegi eta hauek denak. Mendi eskian Isabel Dumal ere bazebilen. Joane Somarribaren garaia ere osoa bizi izan nuen. Beste kirol batzuetan, pentsa non zeuden emakumezkoak; adibidez, arraunean.

Emakume kirolariak azaltzen joatea zer izan zen zuretzat?

Hori ere naturaltasunez hartu nuen. Emakumezkoen ere gauzak natural hartzeko eskatu izan diet beti, eta ez egiteko alderaketak gizonzkoen munduarekin. Kirolariak ondo egin behar du kirola, ondo prestatu, eta emakumezkoak ere horixe bera egin behar du, natural hasi lanean beheko mailetan, eta pixkanaka gora egin lanari esker.

Asko egin da denbora gutxian?

Bai, baina asko dago egiteko oraindik ere. Emakumeek diskurtsoa aldatu behar dute, eta ezin da esan emakumezkoen kirolaren alde ari garela; ez, esan behar da kirolaren alde ari garela, generoaren bereizketa kenduz. Gazte guztiek egin behar diute kirola, eta aurrera doazen heinean, eska ditzatela gauzak, tokatzen zaizkie eta. Batzuetan ematen du ez dela ezer egin, eta gaur egun, edozein neska du aukera edozein herritan kirola egiteko. Era berean, ematen du emakume kirolaria izateagatik dena libre daukagula, eta ez luke horrela izan behar; zaindu eta prestatu egin beharko genuke behar den bezala, entrenatu egin behar da gogor. Ez zait gustatzen emakume izateagatik bakarrik gauzak irabaztea. Azkenean, emakume talde batek itxura edo irudi txarra ematen badu, emakumeon kalterako da. Erakutsi behar dugu gaitasuna dugula, eta gai garela oso urrutira heltzeko lana ondo eginez gero.

Kirol kazetaritzan ere ohiko bihurtu da emakumezkoak ikustea.

Gizartean gertatzen ari denaren beste adibide bat baino ez da gurea orain. Normaltasunez hartu behar da. Baina ez du esan nahi dena eginda daukagunik, ez gure lanbidean ez eta kirol jardunean ere.

Adibidez?

Neurrien gaia da. Kirol askotan, gizonezkoen neurriekin lehiatzen dira emakumezkoak. Hor daude arrauneko eta futboleko kasuak, adibidez. Moldatu egin beharko lirateke neurriak material kontuan. Helduko dira aldaketak, eta iraultza eragingo dute emakumezkoen kirolean. Ezin da txapelketa bat antolatu, eta gizonezkoek dutena eskatzea. Alderaketak kalte egiten digu. Aldiz, behe-behetik lan ona egin den kasuetan emaitzak azaldu egin dira. Nork esango zuen emakumeek futbolean orain bezain ondo jokatuko zutenik hasierako garai haiek ikusita? Hor lan handia dago, eta hori da bidea.

Euskarazko kazetariak egotea kirol munduan zuen hasierako urte haietan erabateko berrikuntza izan zen. Iraultza moduko bat izan zen zuentzat eta kirolarientzat?

Lortzen genuen beste modu bateko harremana euskarazko kirolariek. Asteaz bizpahiru aldiz joaten baginen talde baten berri ematera entrenamenduetara, beti jokalaria berdinekin hitz egiten genuen, taldeko hiruzpalau bakarrik zirelako euskal hiztunak. Azkenean, taldeetako berriemaile beraiek bihurtzen ziren [barrezka]. Konplizitatea sortzen zen kirolari horien eta gure artean, eta ni emakumea izanda, uste dut errazago izan dugula informazioa lortzea. Jakin egin behar da zer kontatu eta zer gorde, eta horri esker, harreman horiei eutsi diet, bereiziz Arritxu kazetaria eta Arritxu laguna, erraza ez den arren batzuetan. Harreman on horrek jantzi egiten du gure lanaren emaitza, nik uste.

Baina harreman on horiek ez dira oztopo izaten kirolari jakin baten inguruan kritika txarra egin behar izaten denean?

Tokatu izan zait norbaiti egurra ematea, eta kosta egiten zaidala onartzen dut, baina egin egin behar da, eta hori ere naturaltasunez egiten saiatzen naiz. Denborak senda ditzake balizko zauriak kazetaria eta kirolarien artean, hitz eginez elkarrekin. Gero, ikusten duenean ondo egindakoan laudorioak botatzen dizkiozula, konturatzen da kirolaria gardena zarela kazetari bezala. Eta hala behar du izan kazetariak, entzuleei zor gatzaielako, egia kontatuz.

Gabriel Garcia Marquez: "Lanbide onena kazetaritza da". Ados?

Aberatsa da lanbidea. Ez nuke aldatuko oraintxe bertan. Txirrindulari batek 150 kilometroko lasterketa batean hasi eta buka zer egiten duen jakitea erraza da gaur egun, baliabideak ditugulako horretarako. Baina lehen, lasterketa ikusi ere ez genuen egiten batzuetan, eta hurrengo egunean, egunkariren batean, agian, egundoko egurra jasotzen zuen txirrindulari batek. Baina bazitekeen horrek aurreneko 100 kilometroetan egundoko lana egin izana, eta horregatik geratzea atzean azkeneko zatian. Edo lasterketa egin du gau txarra pasata edota etxean arazo bat izanda. Pertsona horren atzean zer zegoen ezin izaten genuen jakin orduan, eta alde horretatik, gaur egun lana hobeto eta zehatzago egiteko aukera ematen digute baliabide berriek. Kirolariek beraiek zabaltzen dituzte albisteak eta mezuak gaur egun, eta gainera, zuzena ez den zerbait esaten badugu, segituan kontrolatzen eta zuzentzen gaituzte, dena leku guztietara azkar batean heltzen delako. Lehen zeharo ezberdina zen. Adibidez, Everestara norbait igotzen bazen, handik hamabost egunera jasotzen genuen informazioa, mendia jaitsi eta gero.

Gaur egungo kazetariak ez dugu ospe onik. Zein da zure iritzia?

Denetarik dago. Hainbeste informazio egonda, zure gustukoa ez dena onartzea zaila da. Ez baduzu benetan kontaktzen ikusten dena, eta ez da zaila, normala da jendea haserretzea, gaur egun dena jakitearen eraginez erraza delako jakitea nor ari den gezurretan.

Onartzen al dugu kazetariok gure lana gauzak kontaktzea dela funtsean?

Ematen du ezetz, iritzi pertsonalak askotan eman nahi izaten direlako. Oso mundu lehiakorra da kazetariena, eta iritzia eman behararen eman beharraz, oreka galdua gabiltzala uste dut.

Euskarazko hedabideen artean badago lehiakortasun hori?

Ezberdina da. Gehiago gaude elkarri laguntzeko. Ona litzateke lehia egotea, esan nahiko lukeelako hedabide gehiago leudekeela, eta euskararen presentzia handiagoa litzatekeela. Bada lehia bat, publiko eta ez publiko diren hedabideen artean, eta ematen du gurea egurtzea errazagoa dela, publikoa delako, eta ez zait bidezkoa iruditzen.

Zein albiste kontatzeak hunkitu zaitu gehien?

Txarrerako, mendiko istripuak kontaktzea oso gogorra egin zait. Felix Iñurrategiren heriotza lagun baten heriotza izan zen. Gailurrean zela hitz egin genuen, eta esan zidan ordu jakin baterako behean izango zela, eta orduan hitz egingo genuela zuzenean. Denbora aurrera, eta niri burutik pasa ere ez zitzaidan egin istripuaren arriskua. Jakin nuenean, oso gogorra egin zitzaidan. Norbera egoera txar batean egonda albisteak ematea ere ez da samurra. Lehengusu bat hil zitzaidan parapentean, eta handik hogei minutura zuzenean aritu beharra izan nuen.

Onerako hunkitu nautenak izan dira Zumaiako arraunaren arrakasten kontakizunak. Gizonezkoen urrezko aroa ez nuen bertatik bertara bizi izan kazetari bezala, baina emakumezkoena bai, eta ederra izan zen. Miguel Indurainen Tourreko garaipenak ere ez dauzkat ahazteko. Laguna nuen aspalditik, eta Tourreko irabazleak idoloak ziren niretzat; bada, lagun batek lasterketa hori irabazi zuela kontaktzea handia izan zen.

Elkarrizketatzeko kirolari bat?

Aldatu egiten dira urteekin kirolariak: hasieran, oso fresko azaltzen dira, eta denborarekin uzkuritu. Gogoan dut zeinen atsegina zen Andoni Imaz, Realean hasi zenean. Gozamina zen. Nik galdetu ea penaltia izan zen jokaldi bat, eta berak erantzun nik esan beharko nuela, nire lekutik berak baino hobeto ikusi nuelako. Alberto Martin eskubaloi jokalariekin jardutea ere ederra zen. Askok daude. Nola utzi aipatu gabe Marino Lejarreta eta Abraham Olano.

Kazetari bat gustukoa?

Askok miresten dut, eta lankidea dut: Joxe Mari Apaolaza. Hizkuntzarekiko duen errespetua, lanak prestatzeko arreta erabatekoa... Profesional petoa, eredia.

Gustuko ez duzun kazetari bat?

Sermoilariak, egia osoaren eta jakinduria guztiaren jabe balira bezala aritzen diren horiek.

Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Ilusio handia egingo lidake Euskadi-Murias Euskal Herriko Itzulian ari dela kontatzea, eta nola ez, Tourrean parte hartzen ari dela zabaltzea. Taldeko txirrindulari ia denak umeak zirenetik ezagutzen ditut, eta jarraitu egin dut beraien ibilbide osoa. Bestela, Zumaiak beste Kontxako Bandera bat irabazi duela kontatzea ere ederra litzateke niretzat. Izugarria litzateke Euskal Herria Olinpiar Jokoetan ikustea eta kontatzea, eta ziur nago lortuko dugula. Euskal talde batek futboleko liga irabaztea, European gailentzea...

Kazetari jardunaz aparte, herrigintzako hainbat arlotan ere bazabiltza.

Ez dut ikasi ezezkoa esaten erakusten duen ikastaroa [barrezka]. Pertsona guztiok konpromezua hartu beharko genuke gizarteko edozein esparrutan, horrenbeste zor diogulako gizarteari berari. Dena kritikatzeko erraza da, baina egitea zailagoa. Guk ez dugu denean asmatuko, eta etorri laguntzera. Borondatez egiten den guztia ona da, laguntzeko izaten delako. Herriari, hizkuntzari... badago zeri lagundu. Muturreko asko hartzen ditugu, baina busti egin behar da. Badu bere ordaina ere: etxean denbora gutxiago egoten zarelako, eta kalean, etiketa jartzen dizutelako segituan. Azkeneko udal hauteskundeetan EH Bilduko zerrendan joan nintzen, eta zinegotzi naiz Zumaiako Udalean, eta zenbait jendek bizkarra eman dit horregatik; ez dut ulertzen hori inola ere, burutik pasa ere ez zitzaidalako egiten horretarako jendea egon zitekeenik ere.

“Kazetaritza duinik gabe, botereak nahi bezala kontrolatuko ditu herritarrak”

Kazetaria eta korrikalaria, eta bi jardun horien bitartez, hainbat elkartasun proiektu sustatzen ditu. Irratiaz maitemindu zen txikitán Begoña Beristain (Bilbo, 1967), eta irratia du ofizio eta bokazio duela 30 urtetik. Bilboko Onda Vascan dabil aspaldian, korrika egiteari buruzko bloga ere badauka, eta baita liburu bat ere, korrikalari izatearen inguruan.

Zer izan zen kazetaritza ikastera erakarri zintuena?

Beti nahi izan nuen kazetari izan, gauzak kontatzea betidanik gustatu izan zaidalako. Gainera, irratia bidez nahi nuen kontatu. Haurra nintzenetik dator hau dena. Gure aitak irratian egiten zuen lan, kazetaria zen hura ere, eta haren bila joaten nitzen lanera, estudioan sartu eta argi gorria piztuta ikustea asko gustatzen zitzaidalako. “Kontatzen ari diren hau milaka etxetan ari dira entzuten, eta magikoa da”, esaten nion neure buruari, eta nahi nuen nik ere magia hori egin. Erabaki behar izan nuen zer ikasi, garbi neukan gauzak kontatu nahi nituela, beharrezkoa ikusten dudalako ahalik eta informazio gehiena helaraztea herritarrei, eta Kazetaritza aukeratu nuen. Besterik ez nuen buruan.

Zuen aita pozik izango zen aukera horrekin.

Hori da. Hark egiten zuenak segida izango zuela ikusi zuen.

Etxe bat, irratia bat. Baita oraindik ere.

Bai. Etxeetan irratia izaten zen piztuta, eta gure etxean beti dago bat piztuta. Denbora ere irratia bidez zaintzen dut, baita oporretan ere: orduroko albistegiak entzuten ditut edonon nagoela ere. Irratiko albistegietara lotuta bizi naiz.

Aurrerapen teknologikoen aro honetan ere, irratia hor jarraitzen du 'bizirik'. Zer du irratia?

Gertutasuna dauka. Ikerketa bat egin dute jakiteko euskal herritarrei zein komunikazio bide gustatzen zaigun gehien, eta irratia da. Konpainia ematen du, eta informazioa momentuan bertan ematen dizu. Irratia sinesgarritasuna dauka, bai baitakizu nor ari zaizun informazioa ematen. Sare sozialetan, kasu batzuetan, ez dakizu nor ari zaizun. Azkenean, jendea ohitu egiten da gu entzuten, eta entzulearen familiako kide bihurtzen gara. Pentsa, gauza pertsonalak ere kontatzen ditugu eta! Ordu asko dira egunero hizketan, eta etxeetan sartzen gara. Jendeak gertu eduki nahi du norbait, etxekoez aparte, eta irratia ematen die aukera hori. Bakarrik bizi direnei konpainia handia egiten diegu, adibidez. Kanean ezagutu izan nau jendeak: “Zu zara Begoña, Onda Vascakoa. Ez dakizu ondo nolako lagunartea ematen didazun”. Familia horietako kide naiz, familiakoa ez naizen arren. Irratia piztea, dila mugitzea... ariketa nostalgikoa da ia-ia. Duela gutxi joan nintzen erostera transistorea, eta pentsatu nuen ez dituztela salduko. Bada ez, dendakoak esan zidan oraindik ere ondo saltzen direla. Poza eman zidan. Ohera irratiarekin joatea ere ohitura da oraindik.

Nolako saioak egin dituzu irratian?

Albistegiak, programak... Erosten programetan ibiltzen naiz, jendearekin lasai hitz egiteko aukera ematen duten horietan. Elkarrizketa luzexkak gustatzen zaizkit, gonbidatua lasai egotea hemen. Sekulako ez ditut elkarrizketako galderak idazten. Nahiago dut entzunez sortzea galderak, unean bertan. Ez badakizu entzuten ezin duzu irratian lanik egin. Barruan eraman behar da entzutearena. Urte asko daramat irratian, 30 bat urte, eta etxea bezala da niretzat. Hainbeste gonbidatu pasa da hemendik...

Komunikazioaren mundua ez al doa azkarregi gaur egun, zuk hainbeste maite duzun lasaitasuna ia galdurik?

Zenbat jendek irakurtzen du egunkaria osorik? Gauzak labur irakurtzeko joera dago orain, izenburua albiste batena, twitterreko karaktere kopuru mugatua eta abar. Irratia, aldiz, hor dago, piztuta etxean, itzali gabe, eta ez bazaizu interesatzen entzuten ari zarena, ez diozu kasorik egiten; baina interesatzen bazaizu, arreta jartzen duzu. Bakarrik gara komunikazio ereduetan gai garenak hartzailea une luze batez guri entzuten edukitzeko.

Irauten jarraituko du irratia?

Baiezkoan nago. Irratiak osasun ona dauka, eta ez zaio gertatuko prentsari gertatzen ari zaiona. Zenbat arazo dituzten egunkariek eta aldizkariak irauteko, formula berriak aurkitzeko. Jendeak Interneten nahi du irakurri, baina ez du ordaindu nahi. Ezin da, baina. Interneten irakurtzeagatik ez badute ordaintzen, nola biziko gara informazio hori ematen diegunak? Kontzientziazio lan handia dago. Gure lana da azkenean, eta lana zenbat eta baldintza hobekoetan egin, orduan eta handiagoa izango da kalitatea, emango dugun informazioa, eta hau hobea den neurrian, hartzailea ere libreagoa izango da, gauza gehiago jakingo dituelako. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta hobeto egingo duzu borroka nahi duzun horren alde. Kazetaritza duinik gabe, herritarrek nahi bezala kontrolatuko ditu botereak, eta informazioak askatasuna ematen digu ez gaitzaten kontrolatu eta erabili. Jarraitu egingo dugu irratian, eta prentsak ere segi egin behar du, baina hedabide handiek apustu indartsua egin behar dute kalitatearen alde. Horixe bakarrik geratzen zaigu jendeari emateko, kalitatea.

Azkarregi galtzen ez ote den ari kalitatea...

Hala da, bai. Gauzak oso merke egin nahi dituzte komunikazio enpresetan, eta dakiten kazetariak, urteak daramatzatenak lanean, bidali egiten dituzte, eskulan merkeagoa izateko haien orde. Zenbat kazetari daude 50 urtetik gorakoak erredakzioetan? Hauek ez badaude, nork erakutsi behar die kazetari gazteei? Gutxi gorabeherako lanak ez du balio, antzeman egiten delako ona ez dela. Kalitateari eusten dionak iraungo du, baina gero eta eduki txarragoak ematen ari gara. Interneten lan egiteko eskaintza asko lotsagarriak dira, eta batzuetan kazetariak berak ordaindu behar, gainera, lan egiteko. Nahi dute gutxi irabazteagatik lan asko egitea. Erraz ari gatzazkie lanak jartzen agintea dutenei, herritarrekin nahi dutena egin dezaten. Begira zenbat bider zabaltzen diren twitterren 'fake news' edo gezurrak diren albisteak, eta zein gutxi benetakoak. Informazioa egiaztatu gabe zabaltzen dira gauzak, eta egiaztatu egin behar dira, iturrietara joan, hedabideetan irakurri, eta ez edozein lekutan.

Boterearen sistema ez al dago jarduera hauen atzean?

Jakina baietz. Hauek nahi dute jendeak jakin dezala beraiei komeni zaiena, botereari ondoen datorkiona. Non dago informazio ona aukeratzeko askatasuna? Nik nahi dudana da kalitatezko informazioa eta fidagarria jasotzea. Izen ona eduki behar du kazetariak. Herrialde totalitarioetan erabat kontrolpean ditu botereak hedabideak, eta horrekin ez dut esan hemen ere hala ez denik. Jendeak ez badu jakiten benetan zer ari den gertatzen...

Nola lortzen du izen ona kazetariak?

Lan ona eginda. Elkarrizketatuak zabalduko du azkar gustura egon dela kazetariarekin, ondo landutako elkarrizketa egin diolako, adibidez. Erreportaje batean, berriz, iritzi guztiei lekua egiten dien kazetaria ona izango da.

Beti geratuko da, hortaz, kazetari onen bat hor zehar, hedabide enpresen jarrera desegokien parez pare?

Bai, beti. Kazetari duinen bat beti egongo da, erromantiko bat, sinesgarritasuna izan nahi duena. Nahiko nuke nigatik hori esatea entzuleek, horrela oroitzea.

Zer gustatuko litzaizuke kontatzea?

Hainbeste gauza kontatu ditut... Elkarrizketaren bat norbaiti? Ez daukat inor buruan. Gogoia dudanean norbait elkarrizketatzeko, saiatu egiten naiz beti. Gero, lortu edo ez lortu, beste kontu bat izaten da.

Ez zizkizuten ezezko asko emango zuri.

Ez. Ezagutzen naute, eta badakite nolako elkarrizketak egiten ditudan. Irabazi egiten da hori, eta aurretik asko ereinda. Ikusten ez den lana da hori, jendearen atzetik nola ibiltzen garen, gaurko zena biharko atzeratu beharra eta abar.

“Korrika gozatu egiten dut, eta gainera, beharra duenari lagundu”

Zergatik egiten dizkizute elkarrizketa gehiago, kazetari ezaguna izateagatik ala korrikalari ona zarelako?

Denagatik. Gauza asko egin ditut kazetari bezala, eta asko gustatzen zait lanbide honetaz hitz egitea. Uste dut nabarmendu egin behar dela gure lana. Sari batzuk ere eman dizkirate, eta sarien bueltan elkarrizketa dezente eman izan ditut. Askok gustatzen zait kazetariarekin egon eta lanbidez hitz egitea. Korrikalari bezala ere eman ditut elkarrizketa batzuk.

Esaten duzu pentsatu ere ez zenuela egiten korrika egingo zenuenik.

Saskibaloian asko jokatu nuen, igeri ere dezente egin izan dut, eta egun batean, bururatu zitzaidan probatu behar nuela korrika egitea. Gustatu, eta berriz joan nintzen beste egun batean. Horrela gaur arte. Jendea ezagutzen hasi nintzen, irratiko saioan tartea ematen hasi nintzen, eta batere uste gabe, erronkak jartzen hasi nintzen. Irratiko saioan pentsatu genuen hau egitea: inoiz korrika egin gabea zen

batek sei hilabeteen prestakuntza egitea maratoi erdi bat egiteko. Norbaiten bila hasi behar genuela eta, neuk esan nuen irratian nik egingo nuela, saiatu egingo nintzela. Horrela egin nuen lehen maratoi erdia, eta gero, idazten ere hasi nintzen korrika egitearen inguruan blogean (<http://begoberistain.com/>), niretzat zer den eta abar. Eskaintzak jasotzen hasi nintzen honetaz eta hartaz idazteko, eta azkenean, liburua ere idatzi dut (Tú también puedes ser runner. La experiencia vital de una corredora + allá de los 40). Irratiko saioa ere egiten hasi ginen (MendiRun), eta gozatu egiten dut saioa egiten. Zenbat korrikalari ez ote dira azaldu saioan... Zuk menderatzen duzun gai baten inguruan saio bat egitea ederra da, bizi egiten duzulako.

Emakumeen artean korrika egiteko zaletasuna sustatu zalea zara.

Bai. Gustatzen zait erronkak jartzea, eta horietan emakumeek ere parte hartzea. Aurtengo Behobia-Donostia beste hamar emakumerekin egingo dut. Behobian emakume eta gizonezkoen arteko parekidetasuna lortzea nahi dut, erdiak eta erdiak izatea 2050rako, eta sare sozialetan egin genuen deialdia. 500 emakumek eman zuten izena, baina hamarrentzat bakarrik daukagu aukera. Nik esan diet azkenarekin egingo dudala lasterketa, ez naizela joango erlojuari begira nire marka hobetzera. Ikusi dut korrika egitearen bidez lan handia egin daitekeela genero berdintasunaren gaian. Gauzak sortzen joan dira, eta korrika egitea nire bizitzan oso garrantzitsua bilakatu da.

Nola dago berdintasunaren gaia korrika probetan?

Begira, berezia izango naiz agian, baina lasterketetako araudi guztiak irakurtzen ditut, eta eskerrak, aldatu beharreko gauza batzuen berri izan dudalako. Adibidez, behin, lasterketa bateko mailetan, emakumeen adin muga 50 urtekoa zen, eta gizonena 55ekoa. Esan nien antolatzaileei jartzeko emakumeena gizonen pare. "Inor ez da etortzen, baina", erantzun zidaten. Baina handik astebetera deitu eta aldatu zutela esan zidaten. Lasterketera joan eta 55 urteko bi emakume ikusi nituen korrika, eta podiumera igo ziren, haien mailako saria jasotzera. Poztu egiten naute horrelakoek. Sarietan ere bada zer aldatu, gizonezkoenak handiagoak direlako dirutan. Ez al dugu emakumezkoek ahalegin bera egiten? Lortu izan dut sari batzuk berdintzea ere, eta ni pozik.

Kirola tresna baliagarria da berdintasunaren bideak pausoak emateko?

Bai. Emakume asko batu dira kirolera beste emakume batzuk ikusi gaituztelako kirola egiten. Liburuko argazkian korrika azaltzen naiz, baina argitaletzekoek esan zidaten zergatik ez genuen jartzen beste argazki bat, propio ateratakoa libururako. Esan nien ez nuela nahi nire argazki on bat, korrika ateratzea nahi nuela, beste emakumeek ere ikus dezaten zeinen ongi eta pozik ibiltzen naizen korrika. Emakume askok deitu izan didate korrika hasi direla eta berdina zaiela itxurarena. Badira hainbat emakume lotsatzen direnak galtza estuekin korrika egiten, eta horregatik ez dira joaten. Eta ez da hori. Bakoitza den bezalakoa da, eta lotsarik gabe egin behar dugu, eta gero, saria izaten du korrika ibiltzeak, emaitzak izan edo bestelakoak izan. Indartu egiten du beste gauza batzuk egin ahal izateko, eta berdindu egiten gaitu korrikalari guztiak: denok gara berdinak.

Zuk esandakoa da hau: "Korrika egiteak neure buruari aurre egiteko balio dit".

Gauza handia da hori, eta korrika egiteak ematen dit. Gustatzen zait lasterketetan aurkariei begiratzea, beteranoen mailan zein dabilen eta zein ez, baina ez da lehiakorra naizelako. Gustatzen zait ondo ibiltzea, baina batez ere neure buruaren aurrean jartzeko balio dit, azkenean nik neuretzat dudana tarte bakarra delako korrika egiteko hartzen dudana. Nire oinetakoak eta nire kilometroak, eta burua lanean: "Gai izango naiz gaur pixka bat gehiago egiteko?". Nire buruaren aurrean jartzen nau, eta bizitzako beste hainbat egoerari aurre egiteko tresnak ematen dizkit korrika aritzeak. Irratiko saioa egiteko ere lagungarria zait, argitu egiten nau. Energia ematen dit. Goizean goiz egiten dut korrika, eta egun osorako energia ematen dit. Irratiko lankideek esaten didate nola edukitzen dudana hainbeste energia korrika egin eta gero. Erantzuten diet ez banu korrika egingo ez nuela energiarik edukiko.

Goizean goiz joaten omen zara korrika egitera.

Bai. 06:00ak aldera ateratzen naiz egunero, Getxon eta inguruetan, han bizi naizelako. Sekulako kilometro pila egin daitezke.

Saharako basamortuan ere nahi beste aukera dago, ezta?

Bai. Bitan egin dut Saharako Maratoia. Iaz aurreneko aldiz joan, eta hirugarren egin nuen. Asko gustatzen zait lasterketa hori, gogorra izan arren, askatasun handia ematen duelako erlojuari begiratu gabe korrika egiteko. Gero, elkartasun alderdia ere badu, 42 urtez basamortuan daudelako sahararrak. Aurten berriz joan naiz, baina hiru aste lehenago pneumonia harrapatu eta porru eginda utzi ninduen. Osatu nintzen, baina medikuak esan zidan maratoia egiteko ez nengoela. Hamar kilometrokoa egin nuen.

Zer lasterketa ari zara prestatzen orain?

Behobia-Donostiaz aparte, Berlingo maratoia ari naiz prestatzen. Orain da, irailaren 16an, eta gogorra ari zait egiten. Oporretan egon naiz, bero handia egiten duen leku batean, eta 05.30erako ateratzen nintzen entrenatzera, pare bat ordu geroago sekulako beroa egiten duelako. Sakrifizio handia da, eta pentsatzen dut hain goiz ibili beharrik saria ekarriko didala, eta ez naiz ari emaitzekin loturiko sariaz. Gernika-Bilbo lasterketa bultzatzen ere banabil, eta lortzen dugun Bizkaiko Behobia-Donostia izatea, asko eskatzea izan badaiteke ere.

Zer elkartasun proiektutan zabilta orain?

WOP Fundazioarekin nabil, egitasmo batean, eta irailean egingo dugu Bilboko Gran Vian. 400 metrotik 400 metrora txandaka korrika eginez, maratoiko marka egin nahi dugu. Biltzen den dirua buruko gaitz degeneratiboen ikerketarako izango da, eta dena antolatzea lan handia da. Behar ditugu 400 metroak 70 segundoan egiten dituzten gizonezkoak, eta emakumezkoak 77 segundoan egiten dituztenak. Errekorra egin nahi dugu. reto@wopmail.org. 106 mutil eta 106 neska behar ditugu. Beste egitasmoren bat ere badut esku artean, baina oraindik ezin dut esan non egingo dugun korrika. Baina errefuxiatuei laguntzeko bilduko dugu dirua.

Zergatik aritzen zara elkartasun proiektuetan?

Poza ematen didalako. Lan handia da, dirua eskatzen ibili behar dudalako egunero, baina lortzean, diru hori ematea behar duenari oso pozgarria da. Lortzen badugu bi laguni ikerketa bat egiteko aukera ordaintzea, ikerketetako dirua eskasian den garaiotan, pentsa zer den hori. Korrika egiten dut, gozatu, eta gainera, jendeari laguntzen diot. Korrika egitearen jendearen beharrei laguntzea, jendearen borrokak babestea, gaixo dauden horiekin horiekin denekin bat egitea gauza handia da. Aurreneko aldiz Behobia-Donostia egin nuenean, eskatu zidaten 2.000 euro biltzeko gaixotasun berezi bat duten gaixoei laguntzeko, eta lortu genituen. Irratian aritzeak ere laguntzen dit horretan.

Bozieniko arraunkadak

Cristina Tacu arraunlaria Hondarribiako traineruan dabil, iaz Hibaikarekin lan egin ostean. Hamabi urte igaro dira Moldaviatik joan zenetik, eta azken lau urteetan ez da bueltatu jaio zen lurraldera. Arrauna kasualitatez ezagutu zuen eskolako kultura astean parte hartu zuenean. Ergometroaren makina gustatu, eta jada hamar urte baino gehiago daramatza tosta artean. Moldaviara itzuli eta amonari azaltzen dionean zer egiten duen, amonak ez dio tutik ere ulertzen. Amari ere antzera gertatu zitzaion alaba uretara traineruan sartu zen lehendabiziko aldietan, baina urteen poderioz, eta alabaren gogoak ikusita, gustu onez onartzen du orain.

Hondarribitik Bozienira (Moldavia), kotxez, 34 ordu baino gehiago daude. Egun eta ia erdi gidatu beharko litzateke ia gelditu gabe, baina bidaia bi edo hiru egun luzatzen da, beharrezkoak diren geldialdiak eginez. Euskal Herritik abiatu ostean, Frantzia, Italia, Eslovenia, Hungaria eta Errumania zeharkatu behar dira, Moldaviara iristeko. Europaren zati handi bat bisitatzeko aukera emango luke bidaia horrek. Konparaziora, 2018ko Frantziako Tourrean, denera, 3.329 kilometro egingo dituzte txirrundulariek 21 etapan banatuta, eta Hondarribitik Bozienira ia beste horrenbeste dago; 3.205 kilometro, zehatz esanda. Bilbotik edo Miarrizetik Moldaviako hiriburura, Chisinaura, hegazkin bat hartzeko aukera ere badago, Europako beste aireportu batzuetan eskala bat edo bi egitea axola ez bazaizu.

Bidaia oso luzea bada ere, Cristina Tacuren aitak azken 11 urteak daramatza abuztuan bidaia hori egiten. Lantegian ematen dizkioten hilabeteko oporrak baliatzen ditu emaztearekin Moldaviara bueltatu eta familia bisitatzeko. Gainera, familia Astilleron (Kantabria, Espainia) bizi dela kontuan hartuta, beste 210 kilometro edo 2 ordu eta erdiko bidaia zatia gehitu behar diogu Europan zehar egiten den zeharkaldira. Aspaldi ez da Moldaviara bueltatzen Cristina Tacu, Hondarribiko arraunlaria. Denbora gehiago darama jaioterritik kanpo bertan baino. “Gurasoak kotxez joaten dira haraino, baina niri bidaia oso luzea egiten zait. Lau urte daramatzat bueltatu gabe”. Hamaika urterekin hegazkin bat hartu eta agur esan zion Moldaviari, eta orain 23 urte dauzka. Bizitzaren erdia eman du leku batean, eta bestea handik kanpo. “Aitari eta amari esaten diet hegazkina hartu dezatela Moldaviara bueltatzeko”. Baina aitaren erantzuna beti berdina izaten omen da: “Erotuta zaude? Hegazkinez joan eta gero zer egingo dut nik han hilabete oso bat kotxerik gabe. Ez ez, nahiago dut gidatu eta gero kotxean nahi dudanerako han izan”.

Hasieran, baina, hegazkinez bueltatzen zen Tacuren aita sorterrira. Moldavian bizi zenean, Europa osoan ardoa saltzen zuen upategi batentzat lan egiten zuen. Pixkanaka, enpresako emaitzak okerragoak izaten hasi ziren, lan gutxiago zegoen, eta lana uztea erabaki zuen. Egoera horri konponbidea emateko asmoz, atzerrian lana bilatzen hasi zen, eta Astilleroko lantegi batean aukera eman zioten. Emaztea, Cristina eta Alexandru seme alabak han utzi behar izan zituen. “Oso ongi bizi ginen Moldavian. Aitak lana utzi zuen, ez zuen lana galdu”.

Bi urte banatuta eman zituen familiak. “Telefono bidez komunikatzen ginen, astean behin edo birritan hitz egiten genuen aitarekin, asko jota. Orain errazagoa izango litzateke teknologiei esker, Skype bidez ikusi ere egingo ginatke, baina garai hartan horrelakorik ez zegoen”. Hamaika hilabetez telefonoz harremana mantendu ostean, abuztuan, hilabete osoa izaten zuten elkarrekin egoteko, aita etxera oporretan bueltatzen zenean.

Egoera harekin amak bukatu zuela gogoratu du Tacuk: “Amak esan zuen ezin genuela bananduta jarraitu. Denok batera, han edo hemen. Bera ere lanean zebilen, baina ezin genuen horrela jarraitu. Eta denok batera egoteko joan ginen Astillerora”. 2007ko otsailaren 20an iritsi zen Tacu familiaren bigarren zatia Madrilera: “Ez zait ahaztuko, nire urtebetetzea baino bi egun lehenago iritsi ginen”. Negua izaki, hotz handia espero zuten, baina ez zen hala izan: “Moldavian hotz handia egiten du neguan, eta elurteak ere izaten ditugu. Gu negurako arropa potoloekin etorri ginen, eta Madrilen sekulako beroa pasatu genuen [barrezka]”.

Egokitzeko, denbora behar

Ez ziren errazak izan lehendabiziko egun eta hilabeteak sorterrira utzi zuten ama eta bi gazteentzat. Kultura ezberdina, komunikatzeko zailtasunak, eta ingurua ezagutzea oztopo izan ziren hasiera haietan. “Astillero txikia zen arren, beldurra ematen zigun kalera ateratzeko. Galduko ginela uste genuen anaiak eta biok. Orain, hori gogoratzen dugunean, barrezka hasten gara”.

Bere bizileku berrira iritsi ostean, aste batzuk behar izan zituzten eskolan hasteko. Luze egiten zitzaizkien egunak Alexandru eta Cristina Tacu anai-arrebei, etxean sartuta, inor ezagutu gabe, eta telebistako hizkuntza ulertu gabe: “Aitak, batzuetan, erosketak egitera bidaltzen gintuen”.

“Egia esan, aldaketa gogorra izan zen. Familia, lagunak, bizi on bat atzean utzi eta zerotik hastea inoiz ez da erraza”, esan du Tacuk memoria egin ostean. Martxoan hasi ziren eskolan, eta lehendabiziko egunak ere ez ziren errazak izan: “Gaztelaniaz gutxi ulertzen nuen, eta nire gelako atzeritar bakarra nintzen. Ongi tratatzen ninduten klasekideek, baina komunikatzea zaila zen. Nire anaiarentzat errazagoa izan zen; bere klasean mutil errusiar bat zegoen, eta guk errusiera menperatzen dugunez, harekin, behintzat, hitz egiten zuen”.

Lehendabiziko hilabeteak gainditu ostean, berehala hartu zion bizitza berriari erritmoa Tacu familiak. Amak ere lana aurkitu zuen jatetxe bateko sukaldean garbiketa lanak egiten, eta Alexandru eta Cristina pixkanaka gaztelera ikasten hasi ziren: “Eskolako zuzendariordeari eskertu behar diot. Eskolaz kanpoko hizkuntza klaseak ematez gain, klasean ere nik parte hartzea nahi zuen. Uda ostean, ikasturtea irailean hasi genuenean, gauzak erabat bestelakoak izan ziren”.

Bizitza berri bat

Hein batean bada ere, arraunari ere eskertu behar dio integrazio hori. Jende askorekin harreman berria sortzeko aukera eman zion. Kultur aste hartan ergometroarekin maitemindu ostean, eskolako arduradunak esan zion ea zergatik entrenamenduetara ez zen joaten. Eta Cristina animatu egin zen. Moldavian ez zuen kirolik egiten. Bi urte zaharragoa den anaiak judoa egiten zuen sorterrian, eta Astilleron ere hasi zen judoarekin. Baina arrebak bezalaxe, arraunean bukatu zuen.

Astilleron urte mordoa eman ostean, 2013an Santoñan ibili zen, eta hurrengo urtean, Meiran. 2015ean Astillerora bueltatu ostean, Hibaikarekin sinatu zuen 2017an, eta aurten Hondarribiarekin Euskotren ligan lehiatzen dabil. “Hasieran eromena izan zen. Euskaraz aritzen ziren arraunlariak, eta nik ez nuen deus ulertzen [barrezka]. Kontuz, kontuz, esaten zidaten eta nik ez nekien zer egin edo zer esaten zidaten. Orain, grazia egiten dit egoera hark. Pixkanaka ulertzen hasi nintzen, eta taldekideen laguntzari

esker berehala egokitu nintzen. Astillero eta Hondarribia artean nago, eta Camargoko neska eta mutiko gazteak ere entrenatzen ditut”.

Pozik dago Hondarribiko tosta artean Bozieniko arraunlaria, baina kilometro asko egiten ditu gidatzen. Oraindik ez, 23 urte baino ez dituelako, baina aurrerago, horrek sortzen duen nekeak eragina izan dezake ibilbidean pauso bat eman edo ez ematerako orduan. “Alde horretatik, uda da zatirik gogorrena. Denboraldian bete-betea sartuta gaudenean, askotan etorri behar da entrenatu edo lehiatzera. Neguan gutxiago etortzen naiz, nire kabuz asko entrenatzen dut, baina saiatzen naiz ahal dudan guztietan traineruan ibiltzen. Lanarekin ere uztartu behar dut, eta ez da erraza”.

Astillero harrobian hasi zenean, arraunean aritzen ziren atzerritarrak ez ziren asko beheko mailetan: “Hala ere, ez zen oso arraroa moldaviar bat arraunean aritzea. Goiko mailetan, TKE ligan eta abar, bazeuden errumaniarrak edo beste jatorri batzuetako arraunlariak. Jendeari ez zitzaion arrotza egiten ni han ikustea. Pixkanaka nire zaletasuna handitzen joan zen, nire gorputzari gehiago eskatu diot urteak aurrera joan ahala, eta oraindik bidea daukat egiteko”.

Moldaviara bueltatu izan denean bertako familiari, eta batik bat, amonari azaldu izan dio zer den arrauna: “Amonari argazkiak erakutsi eta zer egiten nuen azaldu nion, eta berak esan zidan oso polita zela. Baina benetan ez du ulertzen zer den, zer dagoen kirol horren atzean. Han ez dago antzekorik”.

Gurasoek, ordea, gehiago ulertzen dute goi mailan ari diren Alexandru eta Cristinak, arraunean ari direnetik, egiten duten esfortzua. “Amak hasieran esaten zigun denbora gehiago pasatzen genuela arraun eskolan etxean baino”. Negu latzean amak arraunari buruz esandakoak areagotu egiten zirela, eta direla, dio Tacuk: “Batzuetan eskatzen dit arrauna uzteko. Beste batzuetan galdetzen dit: “Zergatik gustatzen zaizu? Gorputza txiki-txiki egiten ari zara, Cristina”. Baina Cristinak ez dio amari jaramonik egiten. Kazkabarra edo eguraldi txarra egiten duen entrenamendu egunetan ere larritu egiten da ama: “Urera sartu zarete gaur? Erotuta zaudete”. Ohitzen ikasi du, azkenean.

Moldavian dira orain Tacuren gurasoak. Aita omen da familiako lau kideen artean sorterrria gehien faltan botatzen duena: “Noizbait galdetzen diot ea Moldaviari bizitzera bueltatu nahi duen, eta berak baietz erantzuten dit. Zaharragoa denean bizitzera bueltatuko dela dio, baina nik esaten diot ez dezala bere burua engainatu. Hori erantzuten didanean esaten diot ni hemen geratuko naizela, eta ea urtean hilabete batez ni ikustearekin nahikoa izango zuen[barrezka]. Anaiari ere batzuetan sartzen zaio aitaren antzeko sentimendu hori”.

Bizitza berri bat du Tacuk, eta ez du aldatu nahi. Hala ere, ez du bere iragana ahazten: “Galdetzen didatenean harro esaten dut moldaviarra naizela. Txistek ere egiten ditut nire bizitzarekin. Etorkina naizela esaten diet nire lagunei”. Gurasoak kotxean bueltatzen diren bitartean berak ez dauka Moldaviara itzultzeko asmorik. Hegazkinez, agian bai. Arraunean, agian, animatuko zatekeen. Kontatzeko bidaia izango zen. Apaizac obeto itsas espedizio mitikoan Jon Maia bertsolariak egin bezala, arraunean aritu eta kronista lanak egingo zituen pertsona bilatzea da gakoa.

“Euskal herritarra sentitzen naiz, eta frantziarra ere banaiz”

Iñaki Berastegi

Hemezortzi urterekin jaioterria utzi eta Angelura (Lapurdi) joan zen bakarrik bizitzera Pauline Ado (Hendaia, 1991), surf profesionalaren munduan erabat murgiltzeko asmoz. Tokyo 2020ko Olinpiar Jokoak buruan dituela, World Sur Leaguera, Surf profesionaleko maila gorenera, itzultzea da bere helburu nagusia: “Momentuz, garrantzitsuagoa da Munduko txapeliduna izatea Olinpiar Jokoetan urrea irabaztea baino. Hala ere, bi urte barru agian nire erantzuna aldatuko dut”. Denboraldiaren bigarren zatian sartuta, oraindik QS ligako puntu asko falta zaizkio Adori, baina itxaropentsu dago Mexikon eta Hego Afrikan egingo diren txapelketen prestaketan buru belarri jarrita dagoenean.

Nolakoa da zure bizitza hemen, Angelun, surflari profesional bezala?

Surfa egin eta entrenatu, entrenatu eta surfa egin [barrezka]. Hemen bizitzea maite dut, gozatu egiten dut hemengo bizimoduarekin. Mutil lagunarekin bizi naiz. Surfean aritzeko hondartza bikaina daukat, mendiak ere gertu ditugu, eta familia ere hortxe bertan daukat. Ez da hiri handi bat, baina behar ditudan gauza guztiak aurkitu ditzaket, eta horrek eguneroko errutina maitatzera narama. Bizitzeko leku lasaia da.

Hendaian jaio zinen, eta Angelura etorri zinen bizitzera, bakarrik, 18 urte zenituenean. Aldaketa hura zaila izan zen zuretzat? Eraginik izan zuen hasi berri zenuen ibilbide profesionalean?

Aldaketa bat izan zen, baina benetan egin nahi nuen zerbait zen. Betidanik oso independentea izan naiz, eta nire bizitza propioa eraikitzen hasteko gogoia nuen, gauzak nire kabuz egiteko, eta pertsona heldu bat bezala bizitzeko. Dena den, Hendaia oso gertu dago eta familia oraindik ere han daukat. Aldaketa hark ez zuen inolako eraginik izan nire ibilbidean.

Zortzi urterekin hasi zinen surfa egiten, eta surflari asko bezala, oso gazte zinela jada, txapelketa garrantzitsuak lehiatzen ari zinen.

Txikia nintzenean kirol guztiak gustatzen zitzaizkidan: futboleak aritu nintzen, tenisean eta esku pilotan ere jolasten nuen eskolan. Uretan ere aritzen nintzen bodyboard-arekin, baina oraindik ez nuen surfa probatu. Uda batean, nire lagun asko surfean hasi ziren, eta gurasoek baiezkua eman ondoren, ni ere animatu nintzen. Urtebete geroago, surf eskolako irakasleak aholkatu zidan txapelketetan lehiatzen hastea, baina niri hasieran ez zitzaidan asko gustatzen lehiaketa. Gainera, denbora mugatu bat duzu olatu onak harrapatzeko, eta ni baldintza horrekin deseroso nongoen. Oso gogorra zen niretzat, eta gainera emaitzak ere ez ziren onak, baina parte hartzen jarraitu nuen.

Parte hartzen jarraitu ondoren, emaitza hobek iritsi ziren, eta lehiatzea gustatzen hasi zitzaizun?

Hobetzen joan nintzen, eta urtebete geroago, hamar urterekin, lehiaketa txiki bat baina niretzako izugarria zena irabazi nuen. Ezin nuen sinetsi. Urte hartan, Ripcurl marka nirekin harremanetan jarri zen, nire babesle izan nahi zuelako, eta surfean aritzeko materiala ematen zidan. Beste garaipen batzuk

ere lortu nituen, eta babeslea lortu izanak motibazio handia eman zidan. Lehendabiziko garaipen hura eta Ripcurl-ek nire atea jotzea erabakigarria izan zen. Angelun, Hossegor-en, Zarautzen eta hemendik gertu izaten nituen lehendabiziko lehiaketak. Nire gurasoek ez zekiten ezer surfari buruz, baina beti nirekin etortzen ziren. Ez zidaten bultzatzen surfean gehiago saiatzera, agian kontrako eragina izan zezakeelakoan. Nire lekua ematen zidaten, eta hankak lurrean edukiarazten zizkidaten.

Zaila izan zen hamar urterekin lortzen hasi zinen arrakasta hura kudeatzen jakitea?

Ez, egia esan. Dena oso motel garatzen hasi zen, pixkanaka-pixkanaka pausoak eman nituen. Garai haietan ongi pasatu nahi nuen soilik, baina nire gurasoen laguntza oso garrantzitsua izan zen. Egiten nuen guztian nire onena emateko aholkatzen zidaten, baina umila izaten jarraituz. Nire onena ematen saiatzen nintzen, egiten nuen guztian onena izan nahi nuen, baina harrokeriarik gabe. Hori lortzeko nire gurasoen aholkuak izan nituen.

Hobetzen hasi zinenean, maila altuagoko lehiaketetan parte hartzen hasi zinen, eta urrutiago bidaiatu behar zenuen. Eskolarekin uztartzeko lanak izango zenituen, ezta?

Hamahiru urterekin asko bidaiatzen hasi nintzen. Batetik, lehiaketetan parte hartzeko, eta, bestetik, Ripcurl-ek nik munduko surflari onenetatik ikastea nahi zuelako; Australia, Hawaii eta beste hainbat herrialdetan izan nintzen. Eskola egun askotara huts egin nuen, baina nire gurasoekin akordio batera iritsi nintzen: nahi nuen guztia bidaiatzen utziko zidaten, bueltatzen nintzenean eskolan gauzak ongi joatearen trukean. Bidaiatzea eta surfean aritzea nire helburu nagusia zenez, aukera hura ez galtzeko, saiatu egin nintzen eskolako lana ongi egiten.

Lehendabiziko txapelketa hura eta Ripcurl markaren babesa erabakigarria izan ziren arren, 2004an lortu zenuen Europako Junior txapelketa ere mugarrria izan zen.

Noski, baina baita ere urte hartan lehendabiziko aldiz Frantziako junior selekzioko deialdian sartzea, Munduko junior txapelketa lehiatzeko. Tahitira joan ginen, eta munduko junior onenak han zeuden: australiarrak, hawaiarrak, brasildarrak... Hamazazpi edo hemezortzi urte zituzten, eta nik hamahiru urte nituen. Hala ere, nire barrurako prentsatzan nuen: urte batzuen buruan ni hemen egon naiteke, eta hauen mailan aritu naiteke. Urte hartan benetan sentitu nuen bidea egin nezakeela surfean, ona izan nintekeela. Nire gurasoak ere jabetu ziren, baina oraindik surfetik bizi ziren oso emakume gutxi zeuden Frantzian, eta ez genekien benetan aukerarik bazegoen horretatik bizitzeko etorkizunean. Junior mailan ongi egiten banuen QS zirkuituan aritzeko aukera izango nuela pentsatzen nuen. Pentsatzen nuen guztia bete zenez, 18 urterekin, surfetik osotasunean bizitzea oso erabaki erraza izan zen.

Tahitin buruan zenuena Australian lortu zenuen, bost urte geroago, 2009an. Australiarra ez den lehendabiziko Munduko Junior txapelketa izan zinen, Sydneyen. Bethany Hamiltoni irabazi zenion finala, eta beti esan izan duzu munduan gehien eragiten dizun pertsona Hamilton bera izan dela.

Bethanyk ezker besoa galdu zuen hamahiru urterekin, marrazo batek eraso egin zionean. Hasteko, surfean bikain aritzen da. Berarekin bidaia bat egiteko aukera izan nuen, oso gertutik ezagutu nuen, eta harritzen zaitu bere izateko moduak. Bizitza normal bat darama, bere kabuz egiten du dena, eta ez du

biktimaren papera hartzen, inoiz. Oso indartsua da arlo guztietan. Asko inspiratzen nau, baina jende askorengan eragiten du hori. Garaipen hura handia izan zen niretzat.

Eta hurrengo pausua QS zirkuituan hastea izan zen.

Juniorra nintzenean aukera izan nuen QSkon lehiaketa batzuetan parte hartzeko. Baina zirkuituan hasieratik aritu nintzen lehendabiziko urtea espero nuena baino gogorragoa izan zen. Gauzak ondo egin nahi nituen, eta ahalegin horretan, presio gehiegi sartu nion nire buruari. Gauzak ondo egiteko eta lehendabiziko emaitza onak lortzeko, denbora dezente behar izan nuen. Juniorra nintzenean jendeak ez zuen espero ni iritsi naizen lekura iristea, eta horri buelta emateko motibazio handia neukan. Oker zeudela erakutsi nahi nien, eta hortik dator nire buruari presio gehiegi sartzeko arrazoi nagusia.

Aitortu duzun presio horrekin posible da uretan sartzen zarenean lehiaketaz eta egiten ari zaren saioaz gozatzea?

Txapelketetan beti daude presioa sumatzen duzun uneak. Presio apur bat sentitzea ez da txarra, zailtasunei aurre egitera bultzatzen zaitu. Presioa nabaritzen baduzu, eta hala ere surfean ondo aritu eta txapelketa irabazten baduzu, garaipenak zapora gozoagoa uzten dizu. Noski gozatzen dela uretan nahiz eta presioa sufritu, momentu ezberdinak dira, eta guztiak gustatzen zaizkigu.

QS zirkuituko lehendabiziko hura, azkenean, zein aho zaporearekin amaitu zenuen?

Denboraldiko lehendabiziko zatian emaitza txarrak lortu nituen, eta etsita sentitzen nintzen. Gogor entrenatzen nuen arren, emaitzak ez ziren iristen. Momentu batean 'klik' bat izan nuen buruan, gauzak lasaiago hartzen hasi nintzen eta lehendabiziko emaitzak iritsi ziren. Egia esan, ez nuen errutina asko aldatu, baina denboraldiaren bigarren zatian hobeto aritu nintzen. Surfa egiteko nire moduan zentratu nintzen, nola hobetu, zer gehiago egin nezakeen ikusi, puntuetan eta kanporaketekin itsutu beharrean.

Urte eta erdi QSn aritu ostean, WSL-era, surf profesionaleko gorengo mailara iritsi zinen, 2011n. Lau urtez jarraian munduko onenen artean izan zinen, 2015ean maila galdu zenuen arte.

World Surf Leaguen aritu nintzen azken urtean lehiaketa eta bidaia asko egin nituen, eta ez nuen jada gozatzen egiten ari nintzenarekin. Denboraldiaren erdian konturatu nintzen motibazio eta gogo asko galdu nituela, eta nire buruari galdetu nion ea benetan hau egiten jarraitu nahi nuen. Maila galdu ostean, aste batzuk surfik egin gabe egon nintzen, atsedena hartuz, eta zer egin nahi nuen pentsatzeko denbora hartu nuen. Jabetu nintzen nik daramadan bizimodua opari bat dela, eta egiten nuena beste begi batzuetatik begiratu behar nuela aurrerantzean. Eta horrela motibazioa berreskuratu nuen.

Aldaketa horretan, erabakigarria izan zen entrenatzaile batekin eta 'coach' batekin lanean hastea?

Konturatu nintzen nire inguruan laguntza ematen zidaten jende gutxi neukala. Nire lagunak eta familiaren babesa neukan, nola ez, baina horrekin ez zen nahikoa. Ez nuen entrenatzaile bat, nire kabuz aritzen nintzen. Jabetu nintzen hori behar nuela, eta Stephanie Sagaspe coach-arekin ere lanean hasi nintzen. Ariketa mentalak egiten nituen Stephanirekin, zer nahi nuen, gauzak nola egin nahi nituen, eta meditatzen ere hasi nintzen. Oso garrantzitsua izan zen niretzat.

Eta badirudi lan horrek bere fruituak eman zituela, 2017an berriz ere gorengo mailara iristea lortu zenuelako.

Urtero gogorragoa da WSL ligara igo eta bertan aritzea, European maila ere gora doa, eta niretzat garaipen handi bat izan zen berriz ere gorengo mailara igotzea. Oso zentratuta nengoen WSL ligara igotzearekin, beste gauzarik ez nuen buruan; apur bat obsesionatuta ere banengoela aitortzen dut. WSL-ra igotzeko energia asko gastatu nuen, eta 2017 denboraldiko lehenengo zatian nabaritu nuen egindako esfortzua. Ez dakit zergatik, baina bigarren zatiak beti hobeto egiten ditut [barrezka]. QSra jaitsi nintzen berriz ere, gogorra izan zen, baina ez 2014an adina. Beste era batera ikusi nuen jaitsiera hura. "Jaitsi egin naiz, eta hobetzen jarraitu behar dut", pentsatu nuen. Hobeto inguratu nago orain, eta nire mutil laguna ere beti laguntzeko prest dut. Ez da surflari profesionala, baina surfean aritzen da, niretzat onena nahi du, eta aholku onak ematen dizkit.

Gainontzeko surflariekin duzun harremana, orokorrean, nolakoa da?

Harremana oso ona da, baina gero uretan gaudenean ez du inork hitz egiten, ez pentsa [barrezka]. Kanpoan denbora asko pasatzen dugu, entrenatu, bidaiatu ere batera egiten dugu askotan. Horrek harremanak estutzen ditu.

Entrenamenduetaz ari zarela, jendeak surfean pentsatzen duenean askotan uda etorri ohi zaio burura, baina neguan lan gogorra egiten duzue.

Bai, egia da jendeak surfa udarekin lotzen duela, erabat ados [barrezka]. Tortura bat da neguan lan egitea. Uraren tenperatura hamabi gradutik behera doanean, botak, traje bereziak edo txapelak janzen ditugu, eta hala ere ezpainak-eta moreak dituala ateratzen naiz uretatik. Oso hotza egoten da ura. Ez da urteko garairik onena ez. Neguan ordubete edo ordu eta erdi entrenatzen dut, eta udan bi orduko bi saio egin ohi ditut egunero. Neguan egunero uretan behin sartzen naiz, eta udan normalean goizean eta arratsaldean. Horri gimnasioko orduak gehitu behar zaizkio, eta beste hainbat kirol ere egiten ditut prestaketaren barruan.

Prestaketaren beste alderdi bat: elikadura eta ohitura osasungarriak. Oso zorrotza omen zara alderdi horretan, eta horrekin zerikusia duen babesle bat ere baduzu.

Ezinbestekoa da nire gorputza ongi zaintzea, bestela gero asko nabaritzen dudalako entrenamenduetan eta lehiaketetan. Zaintzen ez banaiz, ezin dut nire maila onena eman. Txikitatik onena izan nahi nuen egiten nuen gauza guztietan, eta onena izaten laguntzen zidaten alor guztiak kontrolatzen saiatzen nintzen. Yoga eta meditazioa ere niretzat prestaketako parte garrantzitsu bat dira. Bereziki, jaten dudana asko zaintzen dut. Osasuntsua ez den janaria jaten badut, bi edo hiru egunetan gaizki sentitzen naiz.

Surflari profesional baten bizitzak olatu asko ditu, baina baita ere bidaiak luzeak eta hegazkinean egindako ehunka ordu. Hainbeste urte profesionaletan aritu ondoren, bidaiatzea gustatzen zaizu ala hasi zinenean baino gogorragoa egiten zaizu?

Bidaiatze asko gustatzen zait, baina gorroto ditut hegazkinak eta aireportuak [barrezka]. Asko nekatzen zara bidaietan. Etxean egotea gustuko dut. Asko bidaiatzen dudanean pentsatzen dut zer gustura egongo nintzatekeen etxean, baina etxean egonaldi luzeak egiten ditudanean bidaiatzeko irrikan egoten naiz. Puntu asko ematen dituzten lehiaketetan aritzeko bidaiatu egin behar da, baina Europako zirkuitua irabaztea ere buruan daukat. Nire helburu nagusia WSLra bueltatzea da, baina Europako txapeliduna izateak ere ilusioa egiten dit. Eta horrez gain, Tokyo 2020 ere buruan daukat, lehenengo aldiz surfa olinpiar kirola izango delako.

Zer behar duzu Tokyo 2020rako sailkatzeko?

Bi modu daude: WSL-ko rankingean postu on batean egonda, edo ISA Nazioarteko Surf Asoziazioako lehiaketetan emaitza onak lortuta. Ez dakit zer espero dezakegun horrelako lehiaketa batetik, baina nik uste dut momentuz garrantzitsuagoa dela munduko txapeliduna izatea Tokyo 2020n urrea lortzea baino. Olinpiar Jokoak lau urtez behin dira, eta munduko txapelketa urtero da, eta urte guztian zehar egindako lana kontuan hartzen da, jarraitutasuna, egunero olatu onak hartzea. Olinpiar Jokoetan, berriz, momentu zehatz batean ondo egotea da garrantzitsua. Erantzun hau orain ematen dizut, baina agian bi urte barru aldatu egingo dut.

Surflarien ibilbide profesionala ez da luzea, eta zuk aitortu duzu jada hasi zarela apur bat pentsatzen erretretan, zeharka bada ere.

Noizbait pentsatu izan dut, bai. Tokyo 2020k perspektiba apur bat ematen dit. 2020an 29 urte izango ditut, eta orduan erabakiko dut. Argi daukadana da, era batera edo bestera, surf munduko belaunaldi berriekin lan egin nahi dudala behin zirkuitu profesionala utzitakoan. Egun, erretiroa hartuko banu, surfarekin lotuta dagoen zerbaitetan lan egingo dudala argi dut, baina aukerak momentu egokian hartzen ez badituzu, batzuetan ihes egiten dute. Erretiroa hartzen dudanean auskalo zertan hasiko naizen, baina garrantzitsua uzteko momentua ondo aukeratzea da. Erretiroa hartzerako orduan bi faktore egon daitezke: motibazioa galtzea edo maila ez ematea. Momentuz, ez dut ez bata ez bestea nabaritzen.

Ibilbide arrakastatsua daramazu surfean, baina genero berdintasunaren alde egin zenuen bideo batek ere sekulako arrakasta lortu zuen.

Ez nuen espero, egia esan. Surfaren munduan, berdintasunaren alde borroka gehien egiten duenetako bat naizela uste dut. Ez dut nahi jendeak pentsatzea bikini modelo bat naizela soilik. Ematen du emakume kirolariak onak izan behar dugula, ondo hitz egin, politak izan behar garela eta argazkietan ondo atera behar dugula. Ez dut uste babesleek negatiboki eragiten dutenik, euren bikiniak saldu behar dituzte, eta horretarako surflarien argazkiak behar dituzte, logikoa den moduan. Arazoa da jendeak argazki horiek nola ulertzen dituen, eta sare sozialek ere kulparen zati bat dutela uste dut. Surflari emakume gehienok lan egiten dugu berdintasunaren alde, nahiz eta badauden gutxi batzuk beste bide batetik doazenak. Emakume atletikoak eta politak izan gaitzke aldi berean, surflari onak izan gaitzke, eta argazki onak ateratzen badizkigute ez dago arazorik. Sektore edo multzo batek duen pentsamendua da arazoa, ez da geurea, eta hori sare sozialetan asko ikusten da.

Zeharka aipatu ditugu babesleak, baina ez gara surflari baten arlo ekonomikoa aztertzen hasi. Nolakoa da zure bizitza alderdi horretan?

Surflariok normalean bi diru iturri izaten ditugu: txapelketetan banatzen diren sariak, eta babesleak ematen diguna, erregularragoa dena. Gorengo mailetan lehitzeko, QSn edo WSL-en, atzetik babesle edo marka handiak izatea behar beharrezkoa da. Bidaiak, hotelak eta beste gastu asko ditugu zirkuituan aritzen garenok, eta babesleek dirua jartzen ez badute ezinezkoa da, norberak ordaintzen dituelako gastu horiek guztiak. Babesle dezente ditut, eta oso pozik nago ditudan babesleekin. Babesleak lortzeko lan egiten duen pertsona bat baldin badut ere, noizbehinka nik ere nire kabuz lan hori egiten dut. Zatiarik gogorrena hori izan daiteke, surflari ona izatea eta gero, gainera, negozioetan ere aritu behar izatea [barrezka]. Marketinak nola funtzionatzen duen ikasten hasi naiz.

Frantziako selekzioarekin aritu zara, baina euskalduna ere bazara.

Euskaldun askori galdetzen badiozu euskal herritarra edo espainola den, bata edo bestea erantzungo dizute. Niri galdetzen badidazu, euskal herritarra sentitzen naiz, eta frantziarra ere banaiz. Euskal Herria ez den beste leku batean ez nintzateke biziko.

Denboraldiaren erdian gaudela, lana asko gelditzen zaizu oraindik egiteko, eta puntu asko behar dituzu berriro ere WSL-ra igotzeko.

Urte hasiera ez da oso ona izan. Martinikan eta Zarautzen ondo aritu naiz, baina Australian egin nituen bi lehiaketekin ez nago konforme. Hurrengo hilabeteetan lehiaketa garrantzitsuak ditut Mexikon eta Hego Afrikan. WSLra igotzeko, garaipen handi bat eta bi erdi mailakoetan ondo aritzea behar dut, edo bi txapelketa handitan oso ondo aritzea, 6.000 eta 3.000 puntuko lehiaketetan maila ona eman behar dut. Oso polita izan zen Zarautz bigarrenkoz irabaztea, baina puntu aldetik, irabazita ere ez dira asko.

Etendako ibilbidea berreskuratzen

Gizonezkoen lau eta erdiko txapelketaren garai berean jokatu da lau eta erdiko Emakumeen Master Cup-a. 2017ko martxoan antolatutako binakako txapelketaren arrakastari jarraiki, bi kategoriatan banatuta lehiatu dira 68 emakume “kaiolan”. Lehendabiziko helburua, egutegia osatu eta egonkortzea da, egitasmoa ez dadin bi txapelketaren ostean eten, emakumeek pilotan jokatzen jarrai dezaten.

“Ezin dugu esan oraintxe hasi garenik emakumeak pilotan jokatzen. Lehen ere ibiltzen ginen, baina ez zen ikusten”. Eneritz Arrieta (Azkoitia, Gipuzkoa, 1986) pilotariaren hitzak dira. Emakume Master Cup-aren baitan antolatutako bi txapelketetan parte hartu du gipuzkoarrak, binakakoan eta lau eta erdikoan, eta jada hurrengo txapelketa noiz antolatuko den zain dago. “Urtarrilean badirudi berriz ere binakako txapelketa antolatuko dela. Horri begira entrenatzen jarri beharko dugu, eta ea bi txapelketen artean zerbait gehiago antola litekeen”. Hala erabakita, gizonezkoen lau eta erdikoarekin batera antolatu dute txapelketa; azaroaren 19an jokatu zen Bilboko Bizkaia pilotalekuan gizonezkoen lau eta erdiko txapelketa, eta abenduaren 6an jokatuko dira andrazkoen bi kategorietako finalak, Sopolako pilotalekuan.

Arrakastatsua izan zen Emakume Master Cup-eko esku huskako binakako txapelketa. Izan ere, 40 bikotek izena eman zuten, 80 pilotari, federatuak eta federatu gabeak. Hori horrela, bi mailatan banatu zen txapelketa: Elite Maila edo maila nagusia, eta Lehenengo Maila. Lau eta erdiko txapelketarako formatu berbera mantendu du antolakuntzak. Pilotariak maila batean edo bestean sartzeko, batetik martxoan jokatutako binakako txapelketa hartu dute erreferentzia gisa, eta bestetik, pilotari berrien jarraipen moduko bat egin dute.

Bi txapelketa hauek antolatu ostean, haria ez moztea da gakoa. Hau da, beste txapelketa gehiago egutegian sartzea, eta dauden biak, gutxienez, egonkortu eta ziurtatzea. Leire Etxanizek (Etxebarri, Bizkaia, 1990) ere antolatutako bi txapelketetan parte hartu du: “Urtarrilean beste txapelketa bat antolatzen bada, aurrera jarraitzeko balioko digu. Txapelketa gehiago ez badira antolatzen, lortutako asko galdu egingo da azkenean”. Pilota federazioei ere deia luzatu die Arrietak: “Gipuzkoa mailan, federazioak ez du ezer antolatzen. Bizkaian, adibidez, badakit zerbait antolatu ohi dutela. Urtean txapelketa batekin soilik ez genuen ezer egiten. Bigarrena, lau eta erdiko, ere antolatu dute. Ea bide honi jarraitzen diogun, eta federazioak ere zerbaitetara animatzen diren”. Iker Amarika Emakumeen Master Cup-eko antolatzaitako batek baieztatu digu Etxanizek eta Arrietak aurreratutakoa: “Baieztatu dezakegu binakako txapelketa jokatuko dela. Gainera, nazioarteko parte hartzea izango dugu, eta finala frontoi berezi batean jokatuko da”.

Binakakoa jokatuko dela baieztatuta, Amarikek aurreratu du ez dutela buruz burukoa antolatzeko asmorik, momentuz: “Lau eta erdiko txapelketa ongi antolatzea nahiago dugu, eta gero gerokoak”. Oso gazte zela hasi zen pilotan Arrieta, eta 15 urterekin utzi egin behar izan zuen ezin zuelako aurrera egin. Bi txapelketa hauei esker, gaztetan pilota utzi zuten hainbat emakume pilotan berriro jokatzea animatu direla nabarmendu du: “Azpeitiko festetan partida bat antolatu genuen. Horren ostean, Emakume Master Cup-eko binakako txapelketa antolatu zuten, eta 15 urte pilota ukitu gabe pasa ostean, txapelketa batean parte hartzea erabaki genuen taldetxo batek. Orain, 8-10 emakume aritzen gara entrenatzen”. Etxaniz, berriz, 12 urterekin hasi zen pilotan, eta futboleko zazpi urtez aritu ostean, baloia palarengatik aldatzea erabaki zuen: “Txapelketa honi esker esku huskako modalitatea

berreskuratu dut. Pilotan hasi nintzenean, neska bakarra nintzen. Palako modalitatean, ordea, gauzak ezberdinak dira. Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan emakume dezente aritzen dira”.

Gentzane Aldai (Orozko, Bizkaia, 1994) zortzi urterekin hasi zen pilotan. Bere herrian pilotan aritzen zen taldeko emakume bakarra zen. Hiru urte egon zen federatuta, baina 11 urte zituela pilota utzi eta futboleant hastea erabaki zuen. Jada nabaritzen hasi zen mutilek jokatzeko indar gehiago zutela, eta emakumeekin jokatzeko aukerarik ez zegoen: “Larrabetzun lanean hasi nintzenean, Jone Goiri eta bere neska pilotariak ezagutu nituen. Kontatu zidaten Emakumeen Lau eta Erdiko Txapelketa antolatzen ari zirela, eta parte hartzea erabaki nuen. Binakako txapelketaren berririk ez nuen izan”. Pilota aukera faltagatik utzi zuen, eta berreskuratzeko aukera izan duenean, ez zuen zalantzarik izan Aldaik: “Frontoian hazi eta bizi izan naiz. Orain, pilotaren txispa hori piztu zait berriro. Datorren urteko binakako txapelketarako jada bikotea daukat”.

Aloña Mendi taldeko pilota sailean hasi zen 2017ko urrian Mireia Mugartza (Oñati, Gipuzkoa 1990). Binakako zein lau eta Erdiko Txapelketa parte hartu du, eta txikitan izan ez zuen aukera orain iritsi zaio: “Betidanik aritu izan naiz pilotan. Aita pilotan aritzen zen, eta ordu asko egiten nituen berarekin Oñatiko auzo bateko pilotalekuan. Sekula ez nuen aukerarik izan klub edo talde batean sartzeko”. Oñatiko jaietan antolatzen den pilota txapelketa bateko bigarren aldirian neska kopuru “polit” batek izena eman ostean, Aloña Mendiko pilota sailean sartzeko aukera eskaini zieten dio Mugartzak.

Binakako txapelketara bueltatuta, izena emateko zalantzak izan zituela gogoratzen du Etxanizek: “Alde batetik, pentsatzen nuen aukera ona zela berriro ere esku huska aritzeko. Baina, sakonki aztertuta, hainbeste urte pasatu nituen modalitatean aritu gabe, eta eskuak ere bigunduta neuzkan. Iker Amaria antolatzaileretako batek bultzatu ninduen izena ematera, eskupilotara bueltatzera. Eta, azkenean, txapelketa atera naiz binakakoan, eta lau eta Erdiko finala ere jokatu dut. Gustura nago hartutako erabakiarekin”.

Lehenengo txapelketa hartan emandako mailarekin ez dago pozik Arrieta: “Ez genuen maila ona erakutsi, baina esperientzia polita izan zen. Jendearentzat ere gustagarria izan zen, horrelako zerbait antolatzeko garaia bazela aipatzen zidaten. Bai, lehenago egin beharreko zerbait zen, niri eta beste askori trenak ia ihes egin zigun”.

Arrakastari dagokionez, lau eta Erdiko txapelketa binakakoaren antzekoa izan dela dio Arrietak: “Jendeak erantzuten du, batzuetan ez nahiko genukeen adina, baina pixkanaka egin behar dugu bidea. Jende dezente zegoen Berrizko finalurrekoetan; normalean ez da hainbeste jende hurbiltzen. Nik uste dut jendea ohitzen ari dela pixkanaka emakumezkoen pilota ikustera. Dena den, garaia ere bada”. Etxanizek gogoan du, txapelketa antolatu zutenean, beldur zela ez zekielako txapelketa antolatzeko nahikoa emakume emango zuten izena: “Ikusi genuen emakume asko apuntatu zirela, eta txapelketa honek balio izan digu baita ere lagunak egiteko, eta jolasten jarraitzeko motibazioa lortzeko. Lau eta Erdikoa atera zenean ere beldurra sumatu zen, bakarka jokatu behar delako, baina nik uste apustu egokia dela. Lau eta Erdikoan izena eman duten pilotari berriek binakako txapelketa jokatzeko maila dute, eta izena emango dutela uste dut”.

Binaka aritzetik, bakarka eta lau eta erdiko distantzian jokatzeko aukera ematean, pilotari batzuek atzera egin izana onartu du Amarikak: “Bakarren batek ezetz esan zuen. Beldurra ematen die batzuei oraindik bakarka jokatzek, baina pixkanaka animatuko direla uste dut”. Dena den, binakakoan parte hartu zuten 20 pilotari berri aritu dira lau eta erdiko txapelketan.

Momentuz, bi txapelketa soilik ditu egutegiak. Binakakoa martxoan hasi zen, eta urrian ekin zitzaion Lau eta erdikoari. “Asko pozten naiz orain arte ez zegoelako ezer, baina egia esan, behin hasita, gehiago nahi dugu; oso motzak egiten zaizkit txapelketak. Esaterako, lau eta erdikoan, bigarren egunean kanpoan geratu nintzen, lau partida bakarrik jokatu ostean”, azaldu du Mugartzak. Hala ere, lehenengo txapelketa hari esker, udan jaialdi dezente izan dituztela nabarmendu du Arrietak: “Aurten harrিতuta geratu gara herri askotatik deitu digutelako erakustaldi moduan partidak antolatzeke. Ez gara geldirik egon. Egia esan, ez genuen espero eskaera hori egongo zenik, edo jendeak horrela erantzungo zuenik”. Txapelketen artean, palako modalitatean aritzen da Etxaniz: “Asteburutan beti daukat partidaren bat, eta aste barruan eskupilotan entrenatzen dut. Dena den, aurtengo udan esku huskako jaialdi askotan aritu naiz”.

ETB1ek zuzenean eskaini zituen finalaurrekoak, eta finalean ere halaxe egingo dute. Antolatzaileen lanaren fruituak direla dio Etxanizek: “Antolatzaileei esker lortu da hori. Hedabideetan agertzen jarraitu behar dugu. Horrela aurrera egiten jarraituko dugu”. Aldai iritzi berekoa da: “Merituak egiten ari gara prentsa idatzian, irradian edo telebistan agertzeko. Txapelketek arrakasta izan dute, eta iruditzen zait jendea frontoira gerturatzen ari dela”. Emakumezkoen pilotaren arrakasta aipatzerako orduan, beste gako bat eman du Mugartzak: “Antolatzaileak lan ona egiten ari dira. Gainera, herri desberdinetara joaten gara partidak jokatzera, eta horrela geroz eta jende gehiagorengana iristen ari gara”.

Egutegia egonkortu eta ziurtatzeaz gain, Aldaik uste du emakumeentzat aukera gehiago falta direla: “Nire bikoteak eta biok Orozkoko pilota taldean hasi nahi genuen esku huska entrenatzen. Baina, talde guztiak itxita zeuden. Aukera gehiago, emakumeei entrenamendu gehiago eskaintzea falta da”.

Gizonezkoen pilotaren itzala ere ez da nolana hikoia Euskal Herrian. “Arlo ekonomikoan alde handia dago mutilekin. Azkenean, emakumeak gustatzen zaigulako gabiltza bereziki kirolean, baina sariak beti gustura hartzen dira”, esan du Etxanizek. Konparaketa egiterakoan, pilotalekuetako harmailei ere erreparatu nahi izan die Aldaik: “Begiratu nola zegoen gizonezkoen lau eta erdiko finalean Bizkaia frontoia, eta gero begiratu gu aritzen garenean nola egoten diren; 100 pertsona hurbiltzen badira pozik gaude. Dena den, lehen harmailetan ia ez zegoen emakumerik, eta orain badirudi hori pixkanaka aldatzen ari dela”. Jokoa ere ezberdina dela dio Etxanizek: “Gizonak airez gehiago sartzen dira, eta gu botez aritzen gara gehiago, baina pixkanaka gerturatzen gabiltza”.

Eta hein batean, erabiltzen den materialagatik gertatzen da hori. “Material aldetik alde ere handia da, baina ni konforme nago daukagunarekin. Pilotak motelagoak eta goxoagoak dira, eta batzuetan hauekin ere mintzen ditut eskuak. Hortaz, ez ditut pilota gogorragoak nahi”, azaldu du Arrietak.

Jokoa eta materiala alde batera utzita, emakumeen pilotari bultzada ematea da garrantzitsuena. Neska gazteek pilotan jarraitzea inolako oztoporik gabe, haria ez moztea. Aukera faltengatik ibilbide bat ez etetea, eta nahi eta ahal dutenek, bigarren aukera bat izatea.

Kristalezko sabaiaren aurka borrokan

Lehen lerroan dauden klub euskaldunetako hiruk dute emakume bat presidente karguan; Delteco Gipuzkoa Basketek eta Araski Lacturalek saskibaloian eta SD Eibarrek futboleant. Beherago ere aurki ditzakegu emakumeak presidente karguan, kirol ezberdinetan, baina beti nahi baino gutxiago. Orekatik urrun, pausu asko daude oraindik emateko.

“Klub barruan zeudenentzat ez zen arraroa izan emakume bat presidente izatera iristea. Denek esaten zidaten aproposa nintzela posturako, eta animoak eman zizkidaten aurrera jarraitzeko. Barrukoentzat ez, baina kanpoko batzuentzat arraroa izan zela uste dut”. Nekane Arzallus Delteco Gipuzkoa Basketeko presidentearen hausnarketa da, Illunbeko zezen plazan taldea egiten ari den entrenamendua bertatik bertara jarraitzen ari dela. “Gogoratzen dut behin pertsona batek galdetu zidala ea zer egiten zuen emakume batek gizonetzko klub bateko presidentetzan. Eta nik erantzun: “Zergatik ez?”.

Abokatua bada ere, eraikuntzaren munduan aritzen den enpresa bateko jabea da anaiarekin batera. Kirolean jarduteko aukera eman ziotenean ez zuen bi aldiz pentsatu: “Niri ilusio handia egiten zidan klub profesional batek nola funtzionatzen duen ulertzeak, eta kirola asko maite dut, gainera. Hiru segundotan erantzun nuen. Egia da presidente izatera iritsi nintzenean galdera asko egiten zizkidatela emakume presidente figuraren inguruan. Ez nuen ulertzen zergatik ematen zitzaizkion horrenbesteko buelta gai horri, aurretik lan gogorra nuela kontuan hartuta”.

Hamar urte bete dira aurten Arzallus kontseilari bezala Gipuzkoa Basketentzat lanean hasi zenetik, eta bere hirugarren denboraldia da honakoa presidente karguan; GBCren laugarren presidentea da, eta lehenengo emakumezkoa. Alvaro Bilbaok arrazoi pertsonalengatik kargua utzi zuenean iritsi zen presidentetzara Arzallus, aurreko hiru urteak presidenteorde bezala aritu ostean: “Miguel Santosek hautagaitza bat aurkeztu nahi zuen 2005eko Realeko hauteskundeetarako, eta bere hautagaitzan aritzea eskaini zidan. Proposamena onartu nuen, baina Fuentesek irabazi zituen hauteskundeak. Bi urte beranduago, Gipuzkoa Basket Kirol Sozietate Anonimo bihurtu zenean, kontseilari bezala sartzeko deitu zidan”.

Elkarrizketa hau egin baino egun bat lehenago Eibarko Delteco enpresarekin urte baterako hitzarmenaren berri eman zuten Illunben bertan, eta lortutako akordioarekin pozik dago Arzallus. Pozik enpresaren alorrean, baina penatuta kirol arloan, Baskonia eta Bilbao Basketen aurkako bi derbiak azken txanpan galdu dituztelako. Hala ere, talde ona osatu dutela uste du Arzallusek. Jokalari presidentea emakumezkoa dela jakitean arraroa egin ote zaien galdetuta argi erantzuten du Arzallusek: “Ez, ez dut hori inoiz sumatu. Beti eduki dut jokalaria guztien errespetua. Egunero denak agurtzera hurbiltzen dira, haiekin hitz egiten dut, eta ez dut bestelakoa den jarrerarik ikusi”. Presidente gertukoa da Arzallus, eta jokalariekin ondo moldatzen da. “Dena den, ez naiz asko sartzen aldageletara”, gaineratu du barrezka.

Arzallus baino urtebete lehenago, 2014-2015 denboraldian, iritsi zen Maria Eugenia Etxebarria SD Amorebieta futbol taldeko presidente izatera: “Aurreko zuzendaritzak uztea erabaki zuen, eta haiekin hitz egin ostean hautagaitza aurkeztea erabaki genuen. Ez zen beste hautagaitzarik aurkeztu, eta horrela iritsi nintzen presidente izatera”. Klubeko bazkide zen orduan Etxebarria, baina hasiera batean, pausu bat gehiago ematea ez zeukan buruan. “Egia esan ez zegoen nire asmoetan Amorebietako

presidente izatea. Baina, beste zuzendaritzak proiektu bezala aurkeztu zidanean animatu egin nintzen". Amorebietako lehenengo emakumezko presidentea da Etxebarria: "Jendeak ez zion emakume izateari zuena baino garrantzia gehiago eman, momentuaren izaera anekdotikoa baino. Hasiera-hasietatik oso ondo barneratu zen, eta arlo horretan ez dut inongo esperientzia txarrik izan. Paternalismorik ere ez dut sumatu, eta hori nik erradar berezi bat daukadala horrelako gauzez jabetzeko".

Livia Lopez, berriz, Araskik izan duen presidente bakarra da. Araba taldean hasi zen saskibaloian jokatzen, eta 1999an, taldeak kudeatzeko moduagatik desadostasunak zirela eta, saskibaloia utzi eta taldekide guztiak areto futboleant aritu ziren urtebetez. Hala, 2001ean, saskibaloiari berriz heltzea erabaki zuten, eta Abaroa taldea sortu zuten eurentzat: "Gauzak gure erara egin nahi genituen. Jokatzear gain, kluba zuzentzeaz arduratzen ginen, lanak banatuta; azpiegituren alokairua, federazioarekin harremana, arropa, eta beste hainbat gauza". Alta, soilik legalki bazen ere, Angel Estevez, taldeko entrenatzailea izendatu zuten presidente: "Kirol arloan asko eman zigun pertsona zen Angel. Denak batzen gintuen pertsona zen, eta aitortza moduan jarri genuen presidente karguan. Dena den, bera ez zen kudeaketaz arduratzen, jokalarien esku zegoen ardura hori".

Abaroa atzean utzi, eta EHUK zuen taldearekin akordioa egin ostean, Araski elkarteak sortu zuten; 2010-2011 eta 2011-2012 denboraldietan bi klubak mantendu ziren, batzea behin betikoa izan aurretik. Elkarteko presidente bezala hasi zen Lopez, eta klubaren presidente izatera pasatu zen gero. Ordurako, hamar urte zeramatzan Lopezek talde baten kudeaketan, eta nekea handia zela gogoratzen du: "Zure bizitza hipotekatu behar duzu. Pentsatu dut behin baino gehiagotan zergatik sartu izan naizen horrelako lanetan. Azkenean, lanarekin gauzak lortzen direla pentsatzen dut, eta are gehiago emakumezkoen kirolean. Inoiz ez dela egongo Gasteizen emakumezkoen kirola gorengo mailan? Zergatik ez? Erronka bat zen, eta erakutsi dugu posible dela".

Bere buruari meriturik kendu nahi ez dion arren, Lopezek nabarmendu du Araski ez dela bakarrik bere lanarekin aurrera ateratzen: "Taldea baten proiektua da. Nik ez dut dena egiten, ordezkari nagusiaren papera hartzen dut, bai. Proiektuaren zati garrantzitsu bat naiz, bana gauza asko taldeko beste batzuek egiten dituzte. Batzuetan esan didate ze ongi fitxatu dudan, eta nik argi erantzun diet nik ez dudala fitxatu, taldeak egin duela. Ni ez naiz Florentino Perez edo Josean Kerejeta".

Endesa ligan aritzen da Gipuzkoa Basket, Dia ligan Araski eta futboleko Bigarren B mailako D multzoan Amorebieta. Endesa ligan, emakumezko presidente bakarra da Arzallus, Etxebarria Bigarren B mailako D multzoan bezalaxe. Futboleko lehen mailan, berriz, bi emakumezko daude: Amaia Gorostiza Eibarren eta Victoria Pavon Leganesen. Emakumezkoen saskibaloia gorenaren kasua, Dia ligarena, berezia da: presidente emakumeak dituzten bi taldeak euskaldunak dira, Livia Lopezen Araskin, eta Carmen Muguruza IDK Gipuzkoan. Eta hain justu, bi talde horiek dira soilik entrenatzaile postuan emakume bat dutenak: Madalen Urieta eta Azu Muguruza, hurrenez hurren.

"Nik beti esan dut Araskik hiru hanka dituela: erreferentzia izatea, harrobia lantzea, eta emakume kirolariek sufritzen duten eskubideen bortxaketa salatu eta konpontzen saiatzea", hala definitzen ditu Lopezek Araskiren oinarriak.

Horrenbestez, gizonen lehiaketetan oso emakume gutxi daude entrenatzaile, epaile eta presidente postuetan, baina gauza berbera gertatzen da emakumezkoen lehiaketetan. "Boterea gizonetakoena

delako gertatzen da hori. Kristalezko sabaia apurtzea da emakumeen borroka nagusia. Gizonek euren karguetan ordezkatzeko gizonak proposatzen dituzte. Tristeia da XXI. mendean horrelako gauzengatik borrokatzea”.

“Ezin dugu esan gauzak asko aldatu direnik arlo horretan. Oraindik ez dago normalizatuta emakume presidentearen figura. Pentsa, oraindik eskutitzak iristen zaizkit presidentea gizonetzkoa balitz bezala, Federazioak bidalitakoak...”, esan du Lopezek. Etxebarria ere iritzi berekoa da, eta kasualitatea iruditzen zaio aldi berean emakume pare bat goi karguetara iritsi izana kirolean: “Egoera aldatzen ari bada, oso gutxi aldatzen ari dela esango nuke. Anekdotikoa iruditzen zait emakume pare bat aldi berean presidente izatera iritsi izana. Ez da buelta ematen ari zaion tendentzia bat”.

Euskal Herrian, onarpen handiagoa

Egoera hori, pixka bat bada ere, bereziki Euskal Herrian aldatzen ari dela uste dute hiru presidentek. “Beste leku batzuetan baino gehiago nabaritu da Euskal Herrian. Kirolean ez ezik, enpresaren munduan ere Euskal Herrian onarpen maila altuagoa da, Espainiarekin alderatuta. Gauzak aldatzen ari dira, eta iritsi da momentu bat non emakumeei ez dien beldurrik ematen postu batzuetara iristeak”, azaldu du Arzallusek. Etxeberriak, ordea, ez du hausnarketa hori osotasunean berea egiten: “Erantzukizun horretako kargu batera emakume bat iristen denean azkar normalizatzen da Euskal Herrian. Hemen, gauza horiek onartzeko jarrera dugu. Baina, horrek ez du esan nahi egoera aldatzen ari denik, edo nik ez dut hala ikusten behintzat”.

Bi hausnarketa horien artean kokatzen da Lopezena, berdintasunaren alorrean Euskal Herria aitzindari izan dela argudiatuta: “Ez dizkiogu gure buruari loreak bota behar, baina Euskal Herria beti izan da aitzindari berdintasunaren alorrean. Baserrietatik hasita, emakumea beti izan da etxean agindu duena, eta horrek bere eragina du gizartean. Gauzak aldatu dira, baina ez gaitezen erotu, ez dira aldatu nahi edo beharko genukeen erritmoan.”.

Emakume presidentearen figura normalizatzeari arita, ezinbestekoa da kalitatezko erreferenteak sortzea. Hots, kirolean zein enpresaren munduan, goi karguetara iristen diren emakumeek arrakasta izatea. Alde horretatik, lehen lerroan dauden Eibar eta Araskiren kasuak nabarmendu behar dira, Gipuzkoa Basket ahaztu gabe. Araskik 2015-2016. denboraldian emakumezkoen saskibaloia liga gorenera igotzea lortu zuen, eta ia, Europako txapelketak jokatzeko sailkatu zen, parte hartzeari uko egin bazion ere. Eibarri dagokionez, denboraldi hasiera gogorra izaten ari bada ere, ezin daiteke inolaz ere gutxietsi lehenengo mailara igo zenetik lortutako kirol arrakasta, ezta klub bezala eman dituen aurrerapausoak. Gipuzkoa Basketen kasua ere azpimarratzekoa da, bigarren mailara jaitsi ostean, berriro ere ACBra igotzea lortu baitute gipuzkoarrek. Denboraldi hasiera ona egiten ari dira gainera, eta badirudi arlo ekonomikoan ere egonkortzeko pausuak ematen ari direla.

Eta arrakasta hori presidente postuan emakume bat dutela lortu dute; jakina, ez beraiek bakarrik hor daudelako, baina beraiek klubaren buru direla. “Noski onak direla arrakasta kasu horiek. Baina, benetan ona da, goi karguetan dauden pertsonen bere lana ongi egitea. Ez da sexu kontua. Ulertu behar dena da ongi dagoen lan bat edozeinek egin dezakeela, gizona edo emakumea izan”. Gipuzkoa Basketentzat lanean aritu den denboraren laburpena egiten hasten denean, 2005eko pasarte bat etorri zaio burura Arzallusi: “Santosen deia jaso nuenean klubean lanean hasteko, berak esan zidan ez zuela emakume

florerorik nahi. Nik erantzun nion ni ez nintzela emakume florero bat, eta GBCn sartzen banintzen lan egiteko zela. Gai ikusten nintzen, presidente izateko aukera izan nuenean ere ezin nuen pauso bat atzera eman. Ez dakit beste batzuentzat erreferente izango naizen, baina lana ongi egiten saiatzen naiz behintzat”.

Erakustea, ezinbestekoa

Horrekin, tamalez, ez da aski. Goi karguetan dauden emakumeek gizonen baino gehiago demostratu edo erakutsi behar dute, eta euren ideiak nahi baino gehiagotan berretsi behar dituzte kontuan hartu daitezkeen. Arlo horretan, oso argi hitz egin du Etxebarriak: “Momentu bat iritsi da, dudan adinarekin, aspertuta eta nekatuta nagoela etengabe demostratu behar izateaz. Emakumeek profesionalki aurrera egin nahi dute, eta ez dute etengabe burugogor batzuekin borrokan egon nahi”. Etxebarriarekin bat egiten du Arzallusek: “Kirol munduari oraindik falta zaio sinestea emakumeak gai garena presidente, entrenatzaile edo epaile izateko, gizonen lehiaketa edo emakumezkoena izan. Dena den, gehiago demostratu behar izate ori, hein batean, emakumeok buruan sartuta dugun zerbait ere badela iruditzen zait”.

Demostratzea eta esandakoa berrestea, hitz gako horiek aipatzen direnean, Araskiren kasua ezberdina dela gogoratu behar da, gehienbat emakumeek osatutako kluba delako. Hala ere, beste erakunde batzuekin izandako harremanetan nabaritu du Lopezek bi hitz gako horiek esan nahi dutena: “Emakumezkoen saskibaloiko taldeak biltzen garenean, bi presidente egoten gara gizonen mordo batean artean. Hor egoteko jarrera berezi bat behar da, gogorak diren gauzak entzun behar dira, eta ulertzen dut emakume batzuek hor egon nahi ez izatea. Batzuetan sentitzen duzu zure ahotsak ez duela gizonenak bezainbesteko pisua. Zure lekua egiteko gehiago lan egin behar duzu, burua atera”.

Kasu konkretuak gogora ekarrita, Arzallusek buruan du Gipuzkoa Basketeko presidente bezala jardun zuen lehenengo partida, Kanariar Uharteetan: “Palkoetan gertatzen dena batzuetan oso kuriozoso da. Kanariarren aurkako partidaren bertako diputazioko presidentea jarri zidaten alboan, eta hitz egiten egon ginen lehenengo zatian. Atsedendian, barkamen eske etorri zitzaidan, ez zuelako uste Gipuzkoa Basketeko presidentea emakumea zenik”. Kasu zehatz bat baino gehiago, behin baino gehiagotan errepikatu zen istorio bat gogoratu nahi izan du Lopezek: “Presidente izan arren, askotan eseri izan naiz aulkian Madalen eta talde teknikoari laguntzeko. Ez dakizu zenbat aldiz joan diren epaileak gure bigarren entrenatzaileari eskua ematera entrenatzaile nagusia bera zela pentsatuta. Lehenengo mailan jada ez da gertatzen”

Pauso asko eman behar dira oraindik. Detaile txikietatik hasita proposatzen du Lopezek: “Gauza txikietan sinestea nahiago dut aldaketa handiak azkenean ez direlako ematen. Betetzen ez diren lege asko daude. Saskibaloiko araudi batzuetan soilik maskulino generikoa erabiltzen da; ikusezina sentitzen zara. Horrez gain, txapelketetan gizonen emakumeek baino ordutegi hobekak dituzte. Zergatik? Gauza horiek aldatzen hasi behar dugu... Araskin hala sentitzen dugu, ez da azaleko zerbait, itxurazkoa dena, hori baino gehiago da. Ahotsa dugun leku guztietan lan hori egin nahi dugu”.

Etxebarriak, berriz, borroka berdinean jarraitzea ezinezkoa dela uste du: “Legeek beti laguntzen dute, baina oso atzeratuta goaz alor horretan. Orain, pentsamendu matxista dutenen barne borroka behar dugu. Egun ikusten dugu pertsona asko daudela berdintasunaren alde. Guk borrokatzen jarraitu

dezakegu baina pentsamendu matxistak dituzten horiek aldatzen ez diren bitartean...". Gizonen papera ere garrantzitsua dela nabarmendu du Arzallusek: "Gizonek ere aurrerapausoak eman behar dituzte emakumeak hor egoteko. Askok kostatzen da, baina asko laguntzen ari dira batzuk hainbat alorretan".

Emakume bat gizonezko talde baten entrenatzaile izatea da momentuotan Arzallusentzat apurto daitekeen hesirik handiena: "Ematen du emakumeak ezin garela presidente edo entrenatzaile izan. Uste dut oraindik urruti samar gaudela hori ikustetik. Hala ere, nik askotan pentsatzen dut zergatik ezin daitekeen Azu Muguruza GBCko entrenatzailea izan. Gai dela erakutsi du IDK Gipuzkoan, eta arrakasta handia izango zuela pentsatzen dut. Alabaina, bere taldean lan oso ona egiten ari da, eta uste dut urte asko egongo dela bere klubean".

Erreferenteen beharra

Bulegoetatik kirol arlora etorrira, kirolean hasten ari diren neskek emakumezko erreferenteak izatea ere ezinbestekoa da. "Niretzat erreferente bat lortu dezakezun zerbait da. Hortaz, gizonezkoen erreferentea baliagarria den arren, are garrantzitsuagoa da emakume kirolariak erreferentzia izatea neskek. Arrate Agirre edo Laura Pardo adibidez, gure nesken eskola berdinetara joan direlako, ikasketak dituztelako, bere lana dutelako eta, aldi berean, lehenengo mailan jokatzen dutelako. Neska batek bere logelari Adam Hangaren posterra izan eta horren alboan Margaret Rountreeren argazkia sinatuta izateak pentsatzen duguna baino barrera gehiago apurtzen ditu", aipatu du Lopezek.

Erreferente bat bilatzen hasita, Eli Pinedo datorkio burura Arzallusi: "Elik uste dut oso ibilbide ona egin duela, eta oraindik, gainera, asko mugitzen da, eta horrek ere laguntzen du erreferente bilakatu dadin neskentzat".

Hedabideen papera ere ezin da ahaztu. Izan ere, gauzak pixkanaka aldatzen ari direla dirudien arren, emakumeen kirolei oraindik ere oso presentzia txikia ematen zaie euskarri ezberdinetako hedabideetan. "Nik hedabide batean lan egiten dut, eta uste dut aprobetxatzen ari ez den benetako aukera bat dagoela emakumeen kirola sustatzeko. Jendeak produktu hori eskatu dezan lehenago eskaini egin behar zaio, egunero hedabideetan agertuko bagina lortuko genuke jendeak produktu hori eskatzea. Gure proiektuarekin erakutsi behar dugu jendeari emakumezkoen kirola interesatzen zaiola", argudiatu du Lopezek. Era berean, Arzallusek "ezinbestekotzat" jo du hedabideen papera emakumeen kirola sustatzeko: "Hedabideetan azaltzen ez bada askotan ez da ikusten zer egiten den, jendeak ez daki ezta zer liga dauden. Batzuetan emakume batzuei galdetzen diet, eta ezin dizkidate emakume kirolari edo emakumeen talde bakar baten izena aipatu. Horregatik, eskertzen dira mota honetako erreportajeak sortzea".

Katu zinemagilea

Kirolarekin harreman estua du Iratxe Fresneda ikerlari eta zinemagileak (Arrigorriaga, Bizkaia, 1973). Haurtzaroarekin lotzen du futbolarekiko zaletasuna, auzoko larreetan eta ikastolako patioan neska-mutilak elkarrekin eta nahasian aritzen zireneko ume denborak. Bere bizitzan protagonista izan diren beste bi kirolekin ere ikasi du lezioren bat edo beste: eskubaloiko atezain moduan aritzean ikasi zuen segundo bakarrean zirt edo zart egitearen garrantziaz, eta kontrara, eskaladak eta mendiak, ikusmira eta patxada ekarri diote ordainetan.

“Eider Rodriguez egungo euskal idazle onenetarikoa da, onena ez esatearren”. Idazle errenterriarraren ‘Katu jendea’ ipuin bildumaren beste narrazio bateko protagonista bailitzan, katu zinemagiletzat definitzen du bere burua Iratxe Fresnedak jarraian. Zergatiaz galdetuta, argi azaldu du: “Bakardadea gustuko dut. Asko gustatzen zait bakarrik filmatzea. Filmatzen dudanean, ikusezina izatea bilatzen dut, jendeak bere bizitzarekin aurrera darraien bitartean. Behaketan aritzen naiz: pertsonak, paisaiak, koloreak... Batzuetan bigarren kamara batekin joaten naiz, Saioa Etxebarria kidearekin, baina halakoetan ez da arazorik egoten, azken finean bera ere katu zinemagilea da, eta elkar ulertzen dugu. Berak bere bidea egiten du, eta nik nirea. Soinu teknikaria gurekin datorrenean ere, antzera. Beste katu bat”.

Irudien eta soinuen eskizari, bilaketan dabilen katu zinemagilea. Bi aldagai horien inguruan lotu gatzazkio elkarrizketa osoan zehar: “Irudiekin lan egiten dut beste ezerekin ginetik. Irudiak ditut buruan, kamera hartu baino lehen ere. Irudien gainean pentsatzen dut, forma ematen diet: ikuspegia, planoak, iraupena, soinua... Oso formalista naiz zentzu horretan, edukia eta forma modu egokian uztartzeari garrantzi handia ematen diot. Autore zineman sinesten dut”.

Kirolarekin duen loturaz galdetuta, irudi bat eta soinu bat, nola ez, dakartza akordura: txirula bat, Athleticen ereserkia, eta Zaratamoko (Bizkaia) ikastolako patio zuri gorritz jantzia.

Neska-mutilak futbolearen gabarraren gainean

“Lanbarketako auzoan bizi ginen, eta bertako larreetan aritzen ginen futbolearen. Ez bakarrik futbolearen, noski, baina bai nagusiki. Orduan ohikoa izaten zen neskak eta mutilak nahasian aritzea. Zaratamoko eskolan ere gauza bera gertatzen zen. Ederra zen elkarrekin aritzea, bereizketarik gabe”. 80. hamarkadan ume edo nerabe izandakoek egun pentsa ezina litekeena bizi izan zuten Euskal Herrian: euskal bi talderen liga txapelketak. 80-81 eta 81-82 denboraldietan Realak irabazitakoen ondoren, Athleticen bi Liga txapelketak eta Kopa bat heldu ziren. “Futbolaz harago joan ziren garaipenak izan ziren. Herriak bere egin zituen garaipen haiek, baita futbola gustuko ez zuten askok ere. Gizarte moduan behar genuela esango nuke, garaiko gatazka politiko eta sozial guztien artean kohesio elementu bat izan zen futbola. Gu orduan ez ginen jabetzen, noski, baina bai nabaritzen genuen jendearen artean poz berezi bat kalean, herrian, eta baita eskolan ere, noski”. Poz berezi hori definitzerakoan, argi dauka: “Athleticen ereserkia bozgorailuetatik jartzen zuten eskolako patioan etengabe. Ume asko zuri gorritz jantzita joaten ginen klasera, Athleticetako jokalariek aukeratzen genituen gure partidetarako... Athleticetik zaletasuna zainetatik sartu ziguten [barre egiten du]”. Hala ere, zaletasuna baino, kultura hitza darabil gehienetan: “Kirol zaletasuna baino, zerbait kulturala zen. Jokalari haiek, talde hark, herri moduan izan nahi genituen balio batzuk irudikatzen zituzten, edo hala uste nahi izan genuen. Ispilatzea izan zen ala ez, batek daki, baina sinetsi egin genuen, guretzat eredu ziren”.

“Bitxia da buruak nola egiten duen lan” jarraitu du hizketan: “ Abesti pila bat ikasi genituen txirulaz Enriqueta musika irakaslearekin, eta gogoratzen dudana bakarria Athleticen ereserkia da”. Hatzamarrak mugitzen ditu, txirula eskuen artean balu bezala, abestia ahopekatzen duen bitartean.

Futbolarekiko pasioa mantentzen duen galdetuta, zalantza egin du: “ Nerabegarora heldutakoan, futbolaz urruntzen joan nintzen. Beste kirol batzuek hartu zuten bere lekua. Futbolaren inguruan sortu den giroa ez dut batera gustuko. Kirola bera bai, partidu handiren bat dagoenean ikusten dut, Munduko Txapelketakoa edo Txapeldunen Ligakoa, adibidez. Egia da Athleticek emakumezkoen taldea atera zuenean asko poztu nintzela, nahiz eta amorrua ematen didan, adibidez, profesionalak ez izatea. Futbolak mugitzen duen diruarekin!”.

Azken gogoeta honen haritik tiraka, futbolak kirol zein negozio moduan egin beharreko bidez gogoeta egin du Iratxe Fresnedak. EHUko irakasle moduan Ikasketa Feministak eta Generokoak unibertsitate-masterreko irakaslea ere bada. Bi ideia nagusi azpimarratzen ditu: alde batetik futbolak negozio moduan duen kutsu kapitalista nabarmena, eta horrek kirolarengan eta kirolak islatu behar lituzkeen balioen inguruan duen eragina, eta bestetik kirolaren beraren antolatzeke era, gizon eta emakumeen arteko bereizketan oinarritzen dena.

Zergatik ez elkarrekin?

“Futbolak negozio moduan duen izaera kapitalistaz asko hausnartu bada ere, ezer gutxi hitz egiten da txikitatik neska eta mutilen artean egiten den bereizketaz”. Egoera “surrealistatzat” definitu du: “Nori bururatuko litzaioke arrazaren araberrako bereizketa egitea? Eromena da, apartheid moduko bat. Adibide praktikoa bat jarriko dut: nik eskalada egin dut. Garai batean niretzat kirol garrantzitsua izan zen, eta egunero entrenatzen nuen. Mutilekin aritzen nintzen. Ez ziren ni baino hobek. Egoeraren arabera, nik haien laguntza behar izaten nuen, eta beste askotan haiek nire beharra.”. Ez du uste batzuen eta besteen artean dauden ezberdintasun fisiologikoak argudio moduan erabili daitezkeenik egungo egoera zurrizke:

“Ez da ekintza sinboliko soila mutilek eta neskek elkarrekin jokatzeko. Zuk beste lagun batzuekin helburu antzeko bat daukazunean, lagun horiekin elkarbizitzen ikasten duzu. Azken finean, balore kontua da. Elkarren artean ulertzen, desberdintasunak onartzen... Egun dagoen banaketa egitean ez ote garen hori guztia lantzeko aukera galtzen ari”.

Kirola-gizona binomio zahar, zaharkitu eta matxista irauli behar diren garrantziaz ere jardun du: “Zerbait gaizki egiten ari gara. Ohitura kontua ere bada, orain artean gizezkoen kirolari eman izan zaio garrantzia, eta gizentasun eredu batekin lotu izan dira kirol gehienak, futbola bereziki. Eredu zaharkitu eta lidergo eredu zaharkituak astindu behar dira”.

Ereduez galdetuta, bi aipatzen ditu: bat zeharo ezaguna, mitotzat definitu daitekeena, eta bestea aitzindaria.

Jose Angel Iribar eta Miriam Garcia Pascual

Athleticeko atezain mitikoaren kasuan 'eratorrita' datorkion miresha da, nolabait esatearren. Jokalari moduan ezagutu ez bazuen ere, etxean behin eta berriz bere izena eta balentriak entzutearen poderioz, barneratu zuen futbolaz harago zihoala goitik behera beltzez janzten zen 'makal' haren sona eta itzala: "Iribarrek balio jakin batzuk transmititzen ditu, kirolaz harago doazenak; Sentiberatasuna, gizarte arazoekiko kezka, gertutasuna... Oso pertsona maitatua da. Oso interesgarria iruditzen zait bere adibidea eta ekarpena futbol zelaietatik kanpo ere".

2015ean, Miriam Pascualen heriotzaren mende laurdena bete zen. Eskalatzailer nafarraren biografia sobera interesgarria, eta hein handi batean, sobera ezezaguna ere bada: 1986an Pantonesen Espainiako eskalada txapelketa irabazi ondoren Nose, Capitan Salathe, La Viseraren Directa bidea, Fireko Mediterraneo bidea, Eclipse Lunar eta beste hainbat gailur garai eskalatu zituen. Bide berriak urratu zituen ondoren etorri zirentzat.

Meru Peak-en, India aldeko Himalaian, desagertu zen, artean 26 urte zituela. Dario Rodriguez Desnivel argitaletxeko buruak hau dio Pascualen 'Bájame una estrella' liburuz, bere argitaletxeak argiratu zuen lehena ere badena: "Mendiaren kulturatik eta sustatzen dituen balioetatik urrun dagoen edonori gomendatuko geniokeen liburua da". Ameriketara 7 hilabetez egindako bidai bati lotutako bizipenak, marrazkiak eta poesiak jasotzen ditu bertan, eguneroko baten formatuan. 2006. urtean Ruben Epeldek euskaratu zuen 'Eman izar bat' titulupean.

Bere garaian biziki hunkitu zuen liburua izan zela du gogoan Iratxe Fresnedak: "Garai hartan oso sartuta geunden mendiaren eta eskaladaren munduan, eta liburu hura agerkunde antzeko bat izan zen. Mendian bizi genituen esperientzia askotaz hitz egiten zuen: askatasunaz, naturarekiko harremanaz, bilatutako bakardadeaz... Hain gazte hil izanak ere ematen zion halako aura berezi bat, rock izarrekin-eta ahaidetzen zuena".

Aitzindaria izan zen Miriam Pascual tafallarra alpinismoan. Aitzindaria, nafarra, eta emakumea. Ideiak lotze hutsagatik, beste nafar, emakume eta aitzindari batengana egin du salto: Mirentxu Loyarte. Eta hori da bere 'Irrintziaren oihartzunak' pelikula dokumentalaren abiapuntua: ¿Nor da Mirentxu Loyarte?

Merezitako aitortza

Renoko unibertsitatean Euskadiko filmategiak zituen artxibategietan izan zuen Loyarteren lanaren berri Iratxe Fresnedak lehendabiziko aldiz: "Aurkikuntza izan zen, egia esan. Harrigarria egin zitzaidan halako zuzendari baten lana ia ezkutuan egotea". Hasiera batean ezin izan zion arreta handirik eskaini, "beste ikerketa lan batean murgilduta nabilelako, eta esperoan utzi nuen", baina bere katu senak esaten zion hor bazegoela kontatzea merezi zuen istorio bat. Hilabete batzuk geroago, Lars Von Trier-i buruzko tesia buka-tzen ari zela, Euskadiko filmategiko zuzendariak euskal emakume zinemagileei buruzko ikerketa bat hastea eskatu zion, eta horrek lozorroan utzitako lanari berrekiteko aukera ahalbidetu zion. "Bere lana berriro ikusi nuenean, oso esperimental eta ausarta iruditu zitzaidan".

Mirentxu Loyarteren lanak hasiera-hasieratik harrapatu bazuen ere, ez zitzaion erraza suertatu zinemagile nafarrek jotzea. "Lortu nuen datu baliagarri bakarra telefono zenbaki finko bat izan zen". Deika hasi zen, esperantza gutxiarekin. Halako batean, baina, hariaren beste aldetik erantzuna jaso zuen.

“Poz izugarria hartu nuen berarekin hitz egitea lortu nuenean, mamu bati ahotsa jartzea izan zen, nolabait esatearren”.

Hasiera batean, euren harremana telefonora mugatu zuen. “Ez zuen kamera aurreran agertu nahi. Pozez eta zirarraz jaso zuen nire ikerketaren berri, noski, baina ez zen fio. Ulergarria ere bada. Zimegile moduan bigarren planoan, itzalean egotea gustuko duzu, eta ez fokupean”.

Azkenean, hitzak irudi bilakatzeko prozesua berez heldu zen. Azken finean, bi sortzaileak hizkuntza berean mintzo dira, eta zinemagintza zein zinemagilearen lana ulertu eta bizitzeko ikuspegi antzekoak dituzte. “Bion arteko lotura artistikoa erabatekoa izan zen” aitortu du Fresnedak.

Dokumentalari bidea ematen dion galderari berriro erreparatuz gero, zalantza gutxi uzten ditu Fresnedaren gogoetak: “Mirentxu Loyarte aitzindaria izan zen, eta ez lehen emakume zinemagile euskalduna izan zelako soilik. Bere bi lanek, Irrintzi laburmetraiak (1978), eta Ikuska dokumentalak (1981), zinema esperimental eta politikoa maisuki lantzen dute”. Espainiako Zinemagintza Zuzendaritzak kalitatearen sari berezi eman zion 1979an ‘Irrintzi’-ri, “egun pentsaezina litzatekeena”, gehitu du Fresnedak. Zergatia? “Lanaren abiapuntua politikoa da hasi eta buka, Euskal Herriak orduan jasaten zuen errepresio giroa salatzen du dantza eta egunerakotasunari loturiko irudiak uztartuz, Luis Iturriren testu bat oinarri hartuta. Begira La Pelota Vasca-rekin zer gertatu zen, eta Irrintzi baino askoz naif-agoa zen”. Karramarroen pare ez ote gabiltzan, atzeraka eta atzeraka.

Zuzendari moduan ibilbide laburra izan zuen Loyartek. Ondoren etorri zen isiltasunak ez du zergati bat eta bakarra. “Testuinguru politiko eta sozialak ez zion batere lagundu. Emakumea, konprometitua eta askea. Askok ez zioten hori barkatu”. Zinemaren munduarekin harremana mantendu duen arren, ez da berriro kameraren atzean jarri. “Bitxia da, baina Madrilen ez da orain arte ‘Irrintziaren oihartzuna’ ikusgai egon. Oro har, oso harrera ona izan du filmak. Suitza, Alemania, Brasil, Frantzia... Espainian ere bere ibilbidea izan du, baina Madrilen ez... Eta egia esan, ez dut uste kasualitatea denik. Alde batetik, euskarazko lana da, azpitoluak dituen arren, eta bestetik, badago Loyarteren lanek duten kutsu politiko nabarmena. Horrek, hainbat girotan, halako erretizentzi bat eragiten du “. Zaharrak berri, tamalez.

Filmak izan duen ibilbide oparoaren errebasoa egiterako orduan, une bakar bat aukeratzekotan duda egiten du katu zinemagileak: “Agian Donostiako zinemaldian aurkeztu genuen unea. Nire lehen filma zen, eta Zinemaldian izango zuen harrerak gerora izan behar zuen ibilbidea markatuko zuen. Bertan oso kritika txarrak jasoz gero, akabo. Hori zen gure ustea. Kontrakoa gertatu zen. ‘Dirigido’ aldizkari espezializatuan, kasurako, Zinemaldiko film hautatuen artean sartu zuten. Laguntza izugarria izan zen”. Bigarren lan batean dabil murgilduta orain Fresneda, “dokumental itxurako road-movie-a, Euskal Herrian hasi eta Eskandinavian bukatzen dena”. ‘Irrintziaren oihartzunak’ izan duen arrakastak ez du bigarren lan hau baldintzatzen: “Badago erantzukizun puntu bat, baina egia esan ez dut horretan pentsatzen. Egunerokotasunari lotzen natzaio, eta momentuan momentukoa bizi dut. Etorri behar dena ikusteke dago”.

Ez du kezkarako motibo handirik, noski. Azken finean, katua da. Katu zinemagilea.

Lokatzetan

Oihana Azkorbebeitia eta Barbara Pla. Kirolari eta ama. Euskal herritarra eta kataluniarra. Mendiko korrikalaria eta errugbi jokalaria. Garaipen zerrenda oparoaren jabe dira biak; bidean asko ibili izanaren ondorioz lortu dituzte lortu beharrekoak. Eta pausoz pauso korrika bat, kolpez kolpe bestea, lehia ondo zaila lehiatzen dabilta, emakume, kirolari eta ama diren aldetik.

Adinkideak dira ia-ia Oihana Azkorbebeitia eta Barbara Pla: 1981ekoa da euskal herritarra, 1983koa kataluniarra. Ez dira elkarrengandik oso aparte bizi: Abadiñon eta Getxon, hurrenez hurren. Baina ez zuten elkarren berri Harmailan eseri ditugun arte. Bada, ordea, lotura bat bien artean. Bat nagusia, eta hortik eratorriak besteak: emakume, ama eta kirolari dira biak, eta antzeko bizi esperientziak ari dira bizitzen; eta guztiaren gainetik, emakume izatearen harrotasuna zabaltzen dabilta, oraindik ere ia ikusezin dituen gizarte molde honetan harrotu egin behar baitute halabeharrez, "hemen gaude" oihukatuz ozen. Lokatzetan ibiltzen dira biak, bat korrika mendian, eta errugbian bestea. Lokatz horretan eroso dabilta, baina ez dute gogoko gizartea zikindua duen beste lokatz hori, genero ezberdintasunarena.

Elkarrengandik kilometro mordo zaidela ekin zioten kirol jardunari. Azkorbebeitiak sei urte zituenean ekin zion lasterka egiteari Abadiñoko eskolan, eta Plak baloi biribila astindu zuen obalatu esku artean izan aurretik: futbolari errugbilari baino lehen. Katalunian, jakina. Garai hartan konturatu zen gizartean bazela zerbait ondo ez zihoala. Umea zen oraindik baina... "Hamar urte nituen, eta areto futboleko eskolan eman nahi izan nuen izena, baina ezin, ez baitzen nesken talderik. Mutilekin jokatzeko ez zidaten utzi, eta pare bat urtez lehiatu gabe egon nintzen. Gogorra izan zen, eta zerbait gertatzen ari zela hasi nintzen konturatzen". Azkorbebeitiak berean segitzen zuen bitartean: korrika. Atletismoan murgildu zen, Durangoko Bidezabal taldean, Cristina Petite eta Isidoro Hernandez entrenatzaile zituela.

Oraingo kirol jardueretan gerora murgildu ziren biak. Azkorbebeitiak ikasketak burutu eta gero ekin zion mendi korrika egiteari: "Eneko Goenaga koinatua ibiltzen zen, eta harekin hasi nintzen. Esan zidan Izarraitz Mendi Lasterketan ateratzeko, 21 kilometroko lasterketan. Lau neska atera ginen, eta anbulantzia bukatu nuen", gogoratu du. "Ohitu gabe nengo hain lasterketa luzea egitera, lehen aldian nuen, eta jan-edana nola egin ez nekenez, lurrera ziplo erori nintzen bi kilometro falta zirela. Hala ere, bukatu egin nuen lasterketa, eta gero izan zen anbulantziarena". Plak hemeretzi urterekin ezagutu zuen errugbi zelaietako lokatza: "Kirol Heziketako ikasketetan, errugbia zen ikasgai bat. Ez nuen ezagutzen, baina jokatzeko hasi eta gustatu egin zitzaidan. Harritu ere egin nintzen zein ondo moldatu nintzen ikusita. Errugbian zebilen neska bat ezagutu nuen, eta hark esan zidan hasteko. Gaur arte".

Ezin esan erabaki okerrak hartu zituztenik mendi lasterketak eta errugbia aukeratzean. Biak ari dira osatzen garaipen zerrenda oparoa. Plarenean daude hainbat Liga txapelketa, eta haren hitzetan, denetan garrantzitsuena izan den hau: "7ko Europako Errugbi Txapelketa irabazi genuen 2010ean". Duela bi urte eta erdiko Olinpiar Jokoetan jokatzeko bera ere handia izan zela dio, nahiz eta sailkatze faseari eman dion garrantzia: "Guretzat izan zen azkeneko txartela, eta handia izan zen lorpena". Azkorbebeitiari 51 garaipen azaltzen zaizkio, eta horietatik hamabost iaz lortu zituen: "Kontatu ere ez ditut egiten, egia esatera", adierazi du. Ilusio handiena etxeko lasterketa irabazteak egin ziola gehitu du: "Anbotoko Bertikalean aurrena izatea eta errekorra eginez ederra izan zen niretzat".

Ez dira ase biak garaipen sorta horrekin, eta gehiagoren bila abiatuak dira, lanaren eta sakrifizioaren bidetik, beti egin izan duten bezala. Azkorbebeitiak Euskal Herriko lasterketak egingo ditu, ohitura duen moduan, eta baita Munduko Kopa ere: “Japonian hasiko da, Aste Santuan, eta urrira arte tartekatuko ditut lehiaketa honetako probak eta Euskal Herriko lasterketak”. Ez da oso ibilbide luzeak egin zalea, baina tokatuko omen zaio aurten halako bat osatzea: “Norvegian bada lasterketa bat, 55 kilometrokoa, Extreme mailakoa, Tromso herrian, eta han izango naiz. Kilian Jornetek egin du ibilbidea. Maratoia baino luzeagoak ez ditut egiten, baina hau egin egin beharko dut”.

Luzera handiko ibilbidea Plak ere osatu nahiko luke, baina zeruan zehar hegan eginez: “Tokion (Japonia) dira hurrengo Olinpiar Jokoak, hemendik urte eta erdira, eta ea sailkatzea lortzen dugun. World Series izeneko txapelketan banatzen dira txartelak, eta lehiaketa horretako jokalaria zaharrena naiz adinez”. Beste erronka handi bat ere badu lehenxeago: “7ko Europako Txapelketa berriz irabaztea gustatuko litzaidake. Urtero jokatzeko da”.

Amatasuna eta kirola

Aurrera begirako horretan, badute biek kirol jarduna baino kontu garrantzitsuagorik. Ama dira, eta seme-alabek beste guztia baldintzatzen dute. Azkorbebeitiaren semeak Plaren alaba baino zaharragoak dira, eta talaiaren esperientziatik mintzo da euskal herritarra: “Garbi neukan ama izan nahi nuela, eta banekien erabaki horrek galarazi egingo zidala korrika egitea”. Baina lasai hartu zuen: “Itxaroten jakitea zen gauza, bai bainekien lasterketara itzuli egingo nintzela gero”. Horrela esanda erraza ematen du, baina badira zailtasun eta traba handiak: “Umeekin jakina da loa gutxitu egiten dela, eta haurdunaldiaren ondoren, gorputzean dena mugituta egoten da, eta ez da erraza lehengora itzultzea, baina lor daiteke, eta nik lortu dut”. Korrika egitea “ihesbide” bezala hartzen duela dio: “Ez naiz profesionala, ez dut entrenatzailerik, ez eta entrenamendu egutegi zehatzik, eta nahi dudanean joatean naiz mendira korrika egitera, eta ez badut nahi, ez naiz joaten”.

Lasaitasun horrek eraginda, agian, lehia beste modu batera bizi du orain: “Fisikoki oso ondo nago, gorputzak ondo eman dio buelta, eta emozioen aldetik lehen baino hobeto nabil. Umeak izan baino lehen presio handia izaten nuen, baina orain lasaiago nabil. Iristea dut helburu. Bost eta hiru urteko semeak izaten ditut zain, eta elkarrekin egiten ditugu azken 50 metroak. Gozatu ederra hartzen dute amarekin batera lasterka helmugan sartzen”.

Plaren alabak ia urtebete dauka, eta Azkorbebeitiaren esperientziarekin alderatuz, bada beste alde handi bat ere: Pla ez da inoiz erditu. “Bikoteak izan zuen alaba, eta ezberdina da gure kasua berearen aldean”. Onartu du nahiko zuela lehenago izan ama: “Ezinezkoa zen, ordea, errugbian izaten ditugun hainbeste bidaiarekin”. Bikotearekin hitz eginda zeukan 2016ko Olinpiar Jokoen ondoren Pla bera geratuko zela haurdun, baina kirolak zapuztu zien asmoa; zoritxarrak, zehatzago esanda: “Matrailezurra hautsi nuen Jokoen aurreko denboraldian, eta bi ebakuntza egin behar izan zizkidaten. Lehiara itzultzeko gogoia nuen, denbora luzez geldirik egon behar izan eta gero, eta bikoteak esan zuen bera geratuko zela haurdun”.

Aldatu egin zaio bizitza Plari. Hala dio berak: “Alaba jaio berritan, kosta egin zitzaidan kirol jardunarekin uztartzea, neke fisiko handia nuelako”. Ez omen zaio oraindik neke hori joan: “Lo gaizki egiten dugu, eta nekatuta nabil. Horren eraginez, gorputza ahul samar daukat, eta lehengo aldean gehiago ari naiz”.

gaixotzen". Garbi asko esan du non hartzen duen atsedean: "Espainiako selekzioarekin egiten ditugun egonaldietan berreskuratzen dut indarra". Baina alaba urrun izan halakoetan: "Umerik gabe denbora luzez egotea gogorra egiten zait". Azkorbebeitiaren kasuan, halakorik zer den ez daki: "Lasterketetara bikotea eta semeak ere etortzen dira. Denok joaten gara. Eskoziara joan izan gara, Italiara...Sekulako palizak hartzen ditugu bidean. Lasterketa den lekuan dela, furgoneta alokatzen dugu gidari eta guzti, eta umeak aspertu egiten dira, baina nahiago haiek alboan izatea etxean utzi eta neu bakarrik joatea baino".

Emakumea eta kirola

Bakardadea badaki zer den emakume kirolariak. Bakarrik, ia inoren laguntza, babes eta esker oneko keinurik gabe aritzu behar hori. Ari da aldatzen egoera azkenaldian, eta onartu du hori Plak: "Lehen baino hobeto gaude". Baina gizonezkoekin alderatuta, ezberdintasunak daudela ez du aipatu gabe utzi: "Gure garaipenek ez dute oihartzun handirik izaten hedabideetan. Gu munduko lau talde onenen artean sartu ginen, baina ez zitzaigun merezi genuen hainbesteko garrantzia eman. Telebistan, oso gutxitan azaltzen gara emakume kirolariak. Futbolarekin orain zerbait gehiago, baina beste gainontzean...".

Azkorbebeitiak egoera honen bi alderdiak bizi ditu: batetik, mendi lasterketetan, ez da emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketarik ikusten, eta alde horretatik ez du kexarik: "Gure kirola ez da profesionala, eta ez dut bereizketarik ikusi. Sarietan ere berdintasuna izaten da. Aparte dabilena Jornet da, baina ez gizonezkoa izateagatik, onena delako baizik. Telebistan ere, esango nuke emakumezkoak gehiago azaltzen garela gizonezkoak baino gure kirolaren emanaldietan". Ontasun horien beste alderdian, baina, ikusten ditu ezberdintasunak emakumezkoen eta gizonezkoen artean: "Kirola tresna ona da hesiak hausteko, baina uste dut etxean hezi behar ditugula umeak horretara. Ematen du mutilentzat kirol batzuk daudela, eta neskentzat beste batzuk". Plak ondorengoa gehitu dio solaskideak esandakoari: "Emakumeak errugbian jokatea ona da, erakusteko guk ere egin ditzakegula ustez guretzat ez diren kirol horiek". Etxeko jarrerari heldu dio Plak ere: "Ezagutzen ditut aita batzuk alaba eduki eta erabat konforme ez zeudenak, semea nahiago zutenak, futbolerako aukerak izateko. Neskek ezin dugu ala? Lehengoari helduta, hedabideetan emakumezkoen lorpenak albiste izaten hasten direnean, ikusiko dute aita horiek haien alabek ere edozein kiroletan irabaz dezaketela".

Kirola utzitakoan, zer?

Azkorbebeitia profesionala ez den bezala, Pla errugbian jokatzetik bizi da: "Egunerokoari aurre egiteko hainbeste irabazten dut, baina kirola utzitakoan, lan munduan sartu beharko dut". Hor ere zailtasun handiagoak dituzte emakumezkoek, eta kirolarien kasua ez da salbuespena. Oso gertutik bizi izan ditu beste jokalaria batzuen egoerak: "Ezagutzen ditut INEF titulua dutenak eta kirolean jarduteko batere aukerarik izan ez dutenak. Beste esparru batzuetan ari dira saiatzen, oposaketak ateratzen eta abar. Gizonezko bat edo beste badira batere kirol ikasketarik gabe kirol munduko lanetan dabiltzanak". Honela laburtu du egoera, zehatz bezain gordin: "Emakumeak erakutsi egin behar dugu gai garela, baina gizonei aukera ematen zaie".

Plak ez daki zer egingo duen errugbia uzterakoan, baina nahiko garbi dauka orain arte egindako sakrifizioak aski izan dituela: "Entrenatzaile izan naiteke, baina lotua da, etxetik kanpo ibili behar eta abar. Ez ditut orain utzi ditudan gauza asko berriz utzi nahi, eta ez da bakarrik alabarengatik. Lehen ere familian egoera zailak bizi izan behar ditut". Azkorbebeitiak, aldiz, garbi dauka zer ez duen egingo: "Ez

noa kirola uztera, ez behintzat gorputzari eragiteko moduan banaiz. Emaidza onena erlatiboa da, eta azkenean, lasterketak aukera ona dira autokarabana hartu eta hor zehar asteburu pasa joateko”.

Euskal Herria, Katalunia, Espainia...

Joaten den lekura joaten dela, Azkorbebeitiak oso garbi dauka ez dela izango Espainiako selekzioarekin lehiatzera: “Euskal herritarra naiz, eta bakoitzak aske izan behar du nahi duena egiteko. Inoiz ez dut lehiatuko Espainiarekin”. Euskal Herriko selekzioarekin joaten da, eta bakarrik joan izan denean ere, espainiartasun aztarna txikiena ere gainetik kendu izan du, behin Eskozian egin zuen bezala: “Espainiako bandera ipini zidaten zenbakian, eta ezabatu egin nuen, gainean ikurriña marraztuta. Beste behin, lasterketa bat irabazteagatik Espainiako selekzioarekin beste lasterketa batera joateko aukera eman zioten: “Helmuga zeharkatu eta segituan etorri zitzaizkidan aukera eskaintzera, eta han bertan eman nien ezezkoa”.

Plak ere antzeko iritzia dauka, baina Espainiarekin jokutzen du. Honela azaldu du egoera: “Ez naiz espainiarra sentitzen. Kataluniarra naiz eta independentista. Baina goi mailan eta txapelketa handienak jokatzeko aukera bakarra Espainiako selekzioa da”. 2007an etorri zen Euskal Herrira, eta Euskal Selekzioarekin ere jokatu izan du, “uste baitut zauden lekuko selekzioarekin jokatu behar dela”. Euskal Selekzioak, baina, ezin du nazioarteko txapelketetan jokatu, ezta Kataluniakoak ere, eta bi kirolariak gatazka politikoaren inguruan hasi dira solasean. Plak eman du bere iritzia: “Kataluniako Prozes delakoa harrotasunez bizi izan nuen. Gauzak ondo egin dira. Ikustea herri bat nola mugitzen den bere alde egiteko oso polita da. Pena ematen dit Espainia frankismoan kateatuta egotea, askatasuna kenduz jendeari. Independentismoak agerrarazi du zenbateko frankista den Espainia”.

Azkorbebeitiak inbidia kutsuarekin begiratzen dio Kataluniari: “Hemen ezinezkoa da antzeko zerbait gertatzea. Handia egin dute kataluniarrek, eta ez dakit lortuko den inoiz ere, inor ez zaiolako joaten Espainiari kanpotik esatera ‘frankista nazkagarri batzuk zarete”.

“Lehentasunen zerrendan, ikasketak lehenengo postuan daude”

Luisa Ibarrola | Txirrindularia

Iñaki Berastegi

Lehenengo aldiz Gabonak etxetik kanpo igaro ditu Luisa Ibarrola (Saratxo, Amurrio, Araba, 2000) ziklo-kroseko txirrindulariak. Belgikan egon da abenduaren 23tik urtarrilaren 2ra arte, Munduko Kopako lasterketa garrantzitsu batzuk lehiatzen. Bere lehendabiziko urtea da Delikia Ginestar talde profesionalean, eta baita unibertsitatean ere. Hori ez ezik, errepideko denboraldirako Bizkaia-Durango taldearekin sinatu du. Ziklo-krosean buru-belarri jarrita dago orain: “Elite mailan, Espainian, podiuma zapaltzeko gai ikusten naiz momentu hauetan”. Belgikara bidaiatu aurreko egunetan hitz egin dugu txirrindulari gaztearekin.

Urte berean jauzia eman duzu talde profesional batera, eta, gainera, unibertsitatean hasi zara. Nola daramazu aldaketa hori?

Ikasketekin uztartzea da zailena. Egunero saiatzen naiz gauzak ondo eramaten, eta lasterketak ez dauzkadanean, lan asko aurreratu edota atzeratutakoa egunean jartzen dut. Entrenatzeak ordu asko kentzen dizkit, eta ikasketek ere ordu asko eskatzen dute. Hala ere, lehentasunen zerrendan, ikasketak lehenengo postuan daude. Ez naiz profesionala, neoprofesionala agian. Entrenamendu bakoitzean hiru edo lau ordu aritzen naiz bizikletan. Eguraldi txarra egiten badu arrabola eta gimnasioa egiten ditut batzuetan. Txirrindularitza bukatzen denean ezer ez baldin badaukat ea zer egin behar dudan! Arratsaldeko ordu batean sartzen naiz klasera, eta egunero bostetan ateratzen. Kotxez joaten naiz, eta eskerrak, bestela are denbora gehiago beharko nukeelako.

Iazkoarekin alderatuta, entrenatzeko modua aldatu da?

Denbora gehiago daukat orain, eta zertxobait gehiago entrenatu dezaket. Goizean bizikleta egiten dut, eta arratsaldean, unibertsitatetik bueltatutakoan, korrika egitera edo gimnasiora joan naiteke.

Taldeak zehazten dizu entrenamendua ala zure kabuz aritzen zara?

Amurrioko Pablo Mas da nire entrenatzailea, eta berarekin antolatzen ditugu entrenamenduak. Ondoren, bere bitartez, taldearekin hobeto datorkidan egutegia antolatu eta zein lasterketetan parte hartu erabakitzen dugu. Berak entrenamendu zehatzak egiten dizkit. Irailean hasi nintzen aurtengo denboraldia prestatzen.

Txirrindularitzan hamar urterekin hasi zinen. Baina aurretik, hipikan aritu zinen.

Lagun bat nik animatuta hasi zen hipika probatzen. Txirrindularia zen, eta gero, alderantzizkoa gertatu zen, berak animatu ninduen probatzera. “Zuk entrenatu, eta agian, zerbait lortuko duzu” esaten zidan. Eta, azkenean, begira gauzak nola diren, bera hipikan geratu zen eta ni txirrindularitzan.

Erabat utzita duzu hipika?

Bai, bai. Asteburu guztietan ordu pare bat aritzen ginen. Etxetik gertu zegoen hipika eskolak hartzeko lekua. Tarteka, lehiaketa bat izaten genuen, zaldiarekin jauziak egin behar diren horietakoa. Txapelketaren bat edo beste irabazi nuen, baina hobeto moldatzen naiz txirrindularitzan. Hasieran, infantil mailara arte edo, bi gauzak egin nituen batera. Nire arreba eta ni joaten ginen hipikara, eta zaldi bana behar genuen. Nire gurasoek erabaki zuten bi zaldi ez zituztela erosiko. Nire lehengusua ere hipikan ibili zen gu hasi baino lehenago, eta horri jarraituta hasi ginen arreba eta biok. Nire arrebak oraindik zaldia badauka, baina ez du hipika egiten.

Hortaz, hipika utzi gabe eta lagun batek animatuta, hasi zinen txirrindularitzan.

Amurrioko txirrindularitza klubean sartu nintzen. Arabatik lasterketak egiten zituzten, asteburu batzuetan errepidean, eta beste batzuetan, mendiko bizikletarekin. Lehenengo lasterketa Araian egin nuela uste dut, eta bi edo hiru neska izango ginen.

Hain gazte izanik, ez da duela hainbeste urte. Hasiera haietan lasterketaren bat edo beste irabazi zenuen?

Mutilekin batera korritu nuenean, hasiera haietan lasterketaren bat irabazi nuen, bai. Nesken mailan ni normalean lehenengo izaten nintzen, baina esan dizudan bezala, nire kategorian oso neska gutxi zeuden. Beranduago, kadete mailan, ziklo-krosean, neska dezente gehiago ginen.

Errepideko txirrindularitza eta mendiko bizikletarekin hasi zinen. Eta ziklo-krosa?

Amurrioko klubak ez zuen kadete mailan nesken talderik. Orduan, Bizikleta.com taldearekin hitz egiten hasi nintzen, mendiko bizikletako lasterketak eta ziklo-krosa egiten zutelako. Probatzeko aholkatu zidaten, ziklo-krosa bereziki, eta gaur arte.

Bizikleta.com. nolako taldea da?

Online denda bat da taldeko babesle nagusia. Aguraingoa (Araba) da taldea. Ni nengoenean lau txirrindularik osatzen genuen taldea, talde txikia zen, baina oso ondo eramaten ginen guztiok. Lau urte eman ditut bertan, kadete mailan hasi eta iaz arte.

Mendiko bizikletan zein ziklo-krosean, Espainiako 23 urtez azpiko txapelketak irabazi zenituen 2019an.

Ez zen ezustea izan. Aurreko lasterketetan ikusten nuen maila izan nezakeela bi txapelketa garrantzitsu horiek irabazteko. Nazioarteko lasterketak ere egiten ziren, C1 eta C2 mailakoak, eta hor ikusten zen 23 urtez azpiko mailan, ni juniorra izanda, maila nahiko ona nuela. Lasterketa horiek ongi prestatu nituen, sasoi puntu onean joan nintzen, eta ondo atera zitzaizkidan. Mendiko bizikletari dagokionez, lasterketak ez nituen asko prestatu, azken denboraldian gehiago egon nintzelako errepidera begira. Bi edo hiru lasterketa bakarrik egin nituen arren, txapelketa irabaztea lortu nuen.

Mendiko bizikleta eta ziklo-krosa oso ezberdinak dira, ezta?

Ziklo-krosean, nagusiki, lokatzetan ibiltzen gara, eta mendiko bizikletan harrizko pista lehorragoetan lehiatzen gara. Ziklo-krosa zelaietan egiten da, larreetan, lursail batean eta mendiko bizikletak ez du horrekin zerikusirik.

Lokatze arineko zirkuituak omen dira gehien gustatzen zaizkizunak.

Ez dakit zergatik den, zehazki. Lokatza asko gustatzen zait, baina likidoagoa. Izan ere, apur bat lehorragoa den lokatze hori masa bat bezela geratzen da, pisu asko hartzen dugu, eta mugitzea kosta egiten da. Bihurgune gutxiko lasterketak eta zirkuituak gustatzen zaizkit, eta indarrez egin behar direnak ere bai. Hobeto moldatzen naiz, behintzat. Indar gehiago duena erosoago ibiltzen da.

Delikia Ginestar taldean hasi zara aurten. Nabarituko zenuen aldaketa.

Egitura eta material aldetik nabaritu dut. Laguntza gehiago daukat. Esaterako, lasterketetara goazenean mekanikoak eta laguntzaileak dauzkagu zazpi txirrindularientzat: lau gizonezko eta hiru emakume. Guztiak joaten garenean bi mekaniko egoten dira gurekin, bi karabanatan. Izugarria da. Bizikleta.com-kin joaten nintzenean, elie mailako txirrindulari bat zegoen, eta, aldi berean, mekaniko lanak ere berak egiten zituen. Bi mekaniko taldearentzat izatea gauza bikaina da.

Belgikako bidaia, adibidez, nola egon da antolatuta?

Karabana bat hemendik abiatu zen, eta gu hegazkinez joan ginen. Guztiontzat etxe bat alokatuta izan genuen. Karabanan bizikletak joan ziren. Alokaturako etxean egin genuen egonaldi osoa, eta lasterketara joateko karabana erabili genuen. Materialari dagokionez, hiru bizikleta daukat ziklo-krosarako, taldeak eman dizkidanak.

Eta errepideko denboraldirako, zer asmo duzu?

Delikiak nesken errepideko taldea atera du, baina azkenean, eurek esan zidaten soilik ziklo-krosean aritzeko. Askatasuna eman didate errepidean beste talde batekin aritzeko, eta Bizkaia Durango taldean arituko naiz. Oraindik ez naiz eurekin egon. Agurtzane Elorriagarekin hitz egiten ari naiz martxoan hasteko, ziklo-krosa eta gero ez gelditzeko, Belgikako klasika batzuetan parte hartzeko. Probatzea izango da.

Urte guztia lehiatzen, hainbat modalitatetan. Oporrak ere ezingo dituzu hartu.

Ziklo-kros denboraldia hasi aurretik, Espainiako gazte mailako errepideko lasterketetan parte hartu nuen. 2018ko iraileko lehenengo hastean izan ziren lasterketa horiek. Horren ostean, bi aste egon nintzen bizikleta ukitu gabe, baina orduz geroztik gelditu gabe ibili eta ibiliko naiz.

Errepidekoa, mendikoa eta ziklo-krosa uztartzea zaila da? Entrenamenduak antolatzeko, sasoiak kudeatzeko, lasterketen egutegia zehazteko...

Nik erraz kudeatzen ditut aldaketa horiek, ez dit arazorik sortzen. Egia da txipa aldatu behar dela, dena aldatu behar da, baina lortzen da hiru modalitateak ongi prestatzea.

Argi dagoena da zu baino maila bat gorago dauden edo zaharragoak diren txirrindulariekin lehiatu izan zarela beti, eta postu onetan amaitu duzula. Euskal Herriko promesa handietako bat zara?

Nik oraindik hori ez dut sumatzen [barrezka. Autografoak ez dizkirate eskatzen, argazki bat edo beste, agian bai. Orain neskek gehiago ateratzen dira errepidera entrenatzera, eta baita lasterketetara ere. Kadete mailan neska asko hasten dira txirrindularitzan. Hori bikaina da, baina jarraitu egin behar dute. Ziklo-krosean kadeteek badaukate euren mailako lasterketa, baina gazte mailakoek zuzenean elitekoekin korritu behar dute, eta jauzia erraldoia da. Hala ere, lasterketak egiten eta entrenatzen jarraitu behar dute, hori da garrantzitsua.

Zuri, baina, ez zaizu arraroa egiten goragokoekin lehiatzea.

Ez zait zaila egiten, ez. Kadeteetatik gazte mailara pasatzea ez zitzaidan gogorra egin. Hori nire kasua da. Egia da, ikusi izan dudala jauzi hori egitea kostatu egiten zaiela neska batzuei, baina normala ere bada.

Nola ikusten duzu zure maila nazioartean lehiatzeko?

Espainia mailan nire kirol maila ez da txarra. Elite mailan podiuma egiteko gai ikusten dut egun nire burua. Espainian dauden bi elite mailako txirrindulari onenak, Aida Nuño eta Lucia Gonzalez, nazioarteko lasterketetan edo Munduko Kopako lasterketetan aurreneko hogeai sailkatuen artean egoten dira normalean.

Hortaz, epe motzean, nazioarteko top 20 horretan ikusten zara?

Bai, hori espero dut. Munduko Kopetan maila erraldoia dago, eta bertan dauden 23 urtez azpiko txirrindulari asko bizikletarako bakarrik bizi dira, eguneko 24 orduak horri emanda. Zaila da. Belgikara joaten naizenean, agian espero baino hobeto ibiliko naiz.

Bizi zaren lekuak zerikusia edo eragina izan du txirrindularitzan hastearekin? Entrenamenduak egiteko leku aproposa ematen du, adibidez.

Nik esango nuke lekuarenak ez didala eragin kirol bat edo beste bat hautatzeko orduan. Aldapak dituen zelai bat bilatzen dut entrenamenduak eta serieak egiteko.

Lursailak apurtuko dituzu.

Aitarenak diren larreetan ibiltzen naiz gehienetan [barrezka].

Duela bi urte, zure mailan, Namurren (Herbehereak) lasterketa bat korritu zenuen. Zirkuituren bat bereziki gustatzen zaizu?

Munduko kKpan, agian, gehien gustatzen zaidana Namur da, gogorra delako, zailtasuna baduelako, baina ez zailtasun teknikoa. Indarrez egin daitekeen lasterketa da. Euskal Herrian Igorre, Laudio eta Elorrio gustatzen zaizkit.

Zure garaipen eta lorpenei esker, Saratxo ezaguna egingo duzu, mundu guztian ez bada, gutxienez, Euskal Herrian.

Bai bai [barrezka]. Elkarrizketak egiten dizkidanenean Saratxo herria agertzen da, eta agian ni ez naiz konturatzen, baina herriko jendeak ikusten du herria geroz eta ezagunagoa egiten ari dela. Hemen betiko hiru katu gaude, eta gelditzen naute bizikletan ari naizenean.

Familiak nola eramaten du beti goi mailako lasterketetan aritzea? Beti bizikleta gainean, ia astebururo kanpoan, azkeneko Gabonetan ere bai.

Nik uste dut nahiko ondo eramaten dutela. Aitak jarraitzen nau bereziki, eta gainontzekoek ez dute paso egiten, baina ez dute hainbeste jarraitzen. Aita joan izan da nirekin, baina gehienetan bakarrik joaten naiz taldearekin. Beti taldearekin joateko ohitura izan dut. Hemengo lasterketetara bai, gehiago joan naiz aitarekin, eta irteeran taldearekin elkartu.

Errepideko txirrindularitzak ez ezik, historikoki, ziklo-krosak ere sona handia izan du Euskal Herrian. Hortxe daude munduko txapelketak Tolosan, Beasaingo lasterketa eta abar luz bat.

Orain, gutxinaka, berriz ere ziklo-krosari garrantzia eta ikusgarritasun handia ematen ari zaio. Duela lau urte ez zen entzun ere egiten. Nazioarte mailako lasterketak ere ateratzen dira, eta Euskal Herrira kanpotik ere etortzen dira. Bat-bateko gorakada bat ez da nabaritu, baina ikusten da zerbait piztu dela.

Maika Brust

“Etxean erakutsi dizkidaten balioak aurkitu ditut errugbian”

Maika Brust (Arrosa, Nafarroa Beherea, 1994). Errugbiko jokalaria. Euskalduna eta euskal herritarra. ASB Baionako jokalaria, Frantziako Lehen mailan. Gorputz Hezkuntzako irakaslea Seaskan.

Gorputzez sendoa da Maika Brust, eta lehen begi kolpean, ez da arrotz errugbiko jokalaria dela pentsatzea. Eta hala da, baina ez zen hala lehen. Izan ere, eskubaloian jokatzen zuen: “Irisarriko taldean aritzen nintzen”. Ikusi zuen Baionako entrenatzaileak egunen batean jokatzen, eta azkar ohartu zen Brusten ezaugarriez errugbian aritzeko: “Indarra ikusten zidaten, errugbilariaren gorputza daukat, eta nahi ninduten. Deitu egin zidan joateko errugbira, baina ezin, gurasoak laborariak izaki, ezin nindutelako Arrosatik Baionara ekarri aldi bat ala biz astean”. Ezekoa eman zion, beraz.

Joan zen Brust unibertsitatera, eta han entsegatu zuen errugbian aurrenekoz. Han ere entrenatzaile batekin topo: “Garbi asko esan zidan ez banuen hurrengo denboraldian errugbian jokatzen, bonba jarriko zuela gure etxean. Hor hasi nintzen zinez pentsatzen errugbian hasteko, eta ASB Baionan taldean naiz orduz geroztik, ”.

Laugarren sasoia ari da osatzen Baionako Neskekin (horrela deituak dira ASBkoak), eta oso gustura da kirol honetan: “Atzeman nuen talde kirol bat, eskubaloian arrunt galdu nuena. Klubak ez zion batere garrantziarik ematen nesken kirolari, eta azken urtean sobera disgustura ibili nintzen. Pentsatu nuen probatu behar nuela, eta ez bazitzaidan gustatzen berriz itzuliko nintzela eskubaloira”.

Ez da itzuli, ez. Eta ez du ematen itzuliko denik, ez behintzat aldi batez: “Anitz atzeman dut ene burua errugbian. Ene ustez, nik baditut balio batzuk etxean ikasi ditudanak, eta hori bera atzeman dut errugbian. Horregatik maite dut. Arrunt etxean bezala naiz errugbian”. Ziurrenik ez da izango arrazoi sendoagorik kirol batean egoteko, emaitzez askoz harago.

Balioen gaiari segika, errugbian diren horiek eta hainbatetan aipatuak izaten direnak zerrendat ditu: “Denak gara errespetatuak, taldekideak, aurkariak... Arazoren bat bada taldekideren batekin ez gara gibeletik joaten, beste kirol batzuetan gertatzen den bezala; zuzenean beregana joaten gara aipatzera. Gauza guztiak partekatzen ditugu errugbian, familian eta lagunekin bezala, eta ezin ahaztu besta ere balio garrantzitsua dela”.

“Lehengo jokoa da emakumezkoen errugbian ikusten dena”

Errugbia hor zen aspalditik, eta Brust gehiatu zitzaion egun batean. Errugbia eta Brust hor dira duela lau urtetik, eta gero eta emakumezko gehiago ari da gerturatzen errugbira. Indarra hartzen ari dela dio Brustek: “Geroz eta emakume gehiago ari gara jokatzen. Lapurdin eta ASB Baiona taldean, zehazki, anitz neska gabiltza. Bina talde dauzkagu gazte mailan eta helduetan. Miarritzen ere ari dira duela bizpahiru urtetik 7ko errugbia sustatzen. Zuberoan ere badabiltza, Mendikotan, hain zuzen”.

Jokalari kopuruan ez ezik, ikusleena ere asko hazi da: “Partidak telebistaz botatzen dituzte orain, eta jendea ari da ohartzen nesken errugbia anitz garatu dela. Nahiago dute, gainera, batzuek neskena ikusi, zinez lehengo joko delako gurea”. Garai bateko errugbia dela zehaztu du: “Biziagoa da gizonezkoena baino, desbideraketa gehiago daude gurean, gibeletxoek pase gehiago egiten dituzte, eta ez dira bortxaz sartzen defentsan; gehiago da aurkariari ihes egitea, eta gizonena, aldiz, gehiago da bestean bortxaz sartzea”.

Ikusleak aipatzen hasita, beraien taldearen partidak ikustera sasoi honen hasieran zenbat jende joan zen aipatu du: “1.000 lagun ere bildu ziren gu ikustera”. Jokoaren bizitasuna, ikusleen emaria eta, jakina, Lehen Mailan egotea ASB Baiona osagarri apartak dira neska gazteak errugbira gerturatzeko: “Seinale ona da hemen inguruan taldeak sortzea, eta eragina dauka gu komunikabideetan azaltzeak. Begira, neska gazteek izar bezala hartzen gaituzte, eta ikasleek ere esaten didate ni bezala egin nahi dutela errugbian jokatu, eta galdetu egiten didate ea non hasi ahal diren”.

Neska horien gurasoekin oroitu da Brust: “Beldur dira alabak errugbian hastearekin, eta egia erran, nire amak ere hala zuen, azken batean bortxazko kirola baita, baina bortxa zintzoa da, neurtua”. Itxaropenez begiratzen dio geroari, eta arrazoi sendo hau eman du: “Lizeoetan badira errugbi sekzioak, eta pixkanaka neskenak ere ari dira sortzen”.

Beste kontu bat da gizartean nola dagoen ikusia emakumezkoen errugbia: “Neskak ez dira goraiatzen, ez da nesken kirola bezala ikusten gizartean oraino, baina ari da garatzen pixkanaka”.

“Galdegiten didate gaiztoagoa izateko jokoan”

ASB Baionarekin batera, beste zazpi talde ari dira lehian Lehen Mailan, eta taldearen historian bigarren denboraldia izanik hau elitean, garbi da zein den helburua: “Mailari eutsi nahi diogu, eta eutsiko diogu”. Ez da Brusten adierazpen hori indar erakustaldi bat, baieztapena baino: “Ez da talderik jaitsiko sasoi honetan, datorren denboraldian hamasei taldeko liga izango baita”. Lasaitasuna ematen die horrek, jakina, baina ez dute azkena geratu nahi: “Hori da gure nahia, eta ea lortzen dugun sasoi amaiera honetan”.

Onartu du alde handia dagoela maila gorenetik azpikoetara: “Arras ezberdina eta zailagoa da. Zeren eta joko fite azkarragoa da, eta kontaktuak bortitzagoak”. Aurkaria geratu behar horretan baduela zer ikasi aitortu du: “Zintzoegia naiz, ez bainaiz ematekoa, gibelean jokatu arren. Galdegiten didate gaiztoagoa izateko, baina ez dago nire baitan. Kolpe bat jotzen badidate ez naiz ohartzen, ez badit nahita jotzen, behintzat. Sobera zintzoa naiz”, bukatu du, barrezka.

Taldeen maila onaz aritu da gero, eta bakoitzaren baliabideen eraginarekin lotu du: “Gure aurrean neska azkarragoak dauzkagu, gehiago entrenatzen direnak, eta guretzat zaila da aurre egitea”. Profesionaltasuna ere hizpide hartu du: “Gu ez gara ordainduak Baionan, lana dugu ondoan. Aldiz, beste talde batzuetan, Lille eta Montpellier kasurako, dirua edukitzen dute hilabete guziz, eta beste hainbat taldetan, partidak irabazteagatik jasotzen dute dirua sari bezala”. Baionaren filosofia beste bat dela gaineratu du: “Guk ez dugu deus, eta ezta eskatu ere egiten. Gu plazerrarentzat ari gara, eta horrela nahi dugu segi jokatzen, gure pasioa baita. Beharbada, horixe bera da gure taldearen indarra, lagunen artean ari baikara”.

Lagunarte hori indartzeko onak izan ohi dira kanpoko partidetara autobusez egindako bidaiak, eta Baionakoek, halabeharrez, errepidez egiten dituzte beste hirietara bitarteko kilometroak: “Zaila egiten da autobusez joatea, partidaren egun berean ateratzen garelako, goizalean. Iritsi, aldatu eta jokatzerara. Hotelik ordaintzeko dirurik ez delako egiten dugu horrela. Baina astelehen goizaldean heltzen gara etxera, eta segituan lanera joan behar izaten dugu”. Bi bidaiak dituzte trenaz sasoi osoan: “Pariserat joan ginen, eta Lillerat ere berdin joango gara, oso urrun delako. Hotela izan genuen Parisen, eta izango dugu Lillen ere”. Abioiaren aukera ere hor izan dela dio, baina... “Begiratu izan dugu hegazkinena, sobera fite egiteko, baina ezin da diruagatik”.

“Taldea garatu bada euskal herrikoa delako izan da”

Maika Brustek zainetan daramatza euskara eta Euskal Herria. Errugbia eta taldea ez ditu baztertuak horretan, eta gustura da euskaraz aritzeko taldekideak ere badituelako: “Maitane eta Saioa daude Hegoaldekoak, Elizondo eta Iruñekoak, eta euskaraz mintzatzen gara hirurok”. Baliteke besteren bat ere batzea laster solasaldi horietara: “Kanpotik etorri den jokalaria bat euskara ikasten ari da, eta beste batek eskatu dizkio kurtsoko liburuak”. Pauso hori eman dutenerako Brusten bi taldekide horiek bada zerbait atzean: “Lehen, taktika guzia euskaraz zen, eta etorri zenean gibelego jokalarien entrenatzailea, frantziarra bera, frantsesez hasi zen mintzatzen, eta nik galdetu nion oihuka ea zergatik aldatu zuen hizkuntza, taldeko ohitura bazen euskaraz ere egitea. Ordutik erdiz erdi egiten dugu, baina nik ez dut parte hartzen frantsesezko azalpenetan”.

Euskara entzutearen kariaz, kanpokoei gogoia sartu zaie euskara ikasteko, eta harro da horretaz Brust. Harro den bezala ASB Baionako lehengo jokalariek taldea eta herrigintza uztartzen eginiko lanaz: “Badakit nor ari zen lehen taldean jokatzen, eta saiatzen naiz haien bidetik segitzen, arrunt abertzaleak baitira haiek, eta badakit haiei esker gauza anitz garatu direla taldearen barruan. Garbi dut taldea hainbeste garatu bada Euskal Herrikoa delako izan dela”. Kirola eta herrigintza loturik ikusten baititu: “Herri bezala dauzkagun balioak hemen irauten badute lehengo jokalaria haiei esker da”.

Haien bideari jarraiki ari da Brust, eta ibilbide horretan, ezinbestean, selekzioen gaia azaldu

zaio parera. Espainiakoarekin joka dezake amatxik naziotasun hori duelako, eta Frantziak ere deitu ahal dio, jakina. Baina bere hautua garbia da: “Ni euskalduna naiz eta Euskal Herrikoa, eta euskal selekzioak gehiago balio du niretzat”. Behin deitua izan zen Espainiakotik, baina “ez nintzen joan, lana ezin nuelako utzi”. Aitortzen du sekulako esperientzia behar duela izan selekzioen txapelketak jokatzea, baina horren gainetik oso garden esan du berriz ere: “Ez naiz frantsesa, ez espainiarra, ni euskalduna naiz”.

Jokatu izan du Euskal Selekzioarekin, eta hori kontatu aurretik, zehaztu egin du nola dagoen Selekzioaren gaia: “Bi daude. Batean jokatzeke espainiar naziotasuna ukan behar duzu, eta bestean aritzeko, aldiz, ez. Ni bigarrenean jokatua naiz, eta gogoan dut gure taldeko hamar jokalaria joan ginela. Baina Frantzia erdialdekoak ziren beste batzuk, eta Frantziaren aurka zenez partida, Frantziako ereserkia abesten hasi ziren, nahiz eta aurkari izan partida horretan. Ez zuten batere maite gure selekzioa, eta pixka bat gaizki begiratu nien”.

Jean Michel Gonzalez, Baionako nesken maisu

ASB Baionako jokalariek badaukate norekin ikasi, Jean Michel Gonzalez ‘Gonzo’ baitute entrenatzaile. Euskal Herriak eman duen errugbi jokalaria onenetarikoa, bere garaian Baionan eta Miarritzen jokalaria izana, eta Frantziako selekzioarekin hainbat partida eta txapelketa jokaturikoa. Frantziako txapeldun bi aldiz izan zen (2002an eta 2005ean), eta Kopa behin irabazi zuen (2000).

Entrenatzaile lanetan, Aviron Baionan, Miarritzen eta Frantziako emakumezkoen selekzioan aritua da, eta azken hauekin Sei Nazioen txapelketa irabazi zuen duela bi urte. Baionako Neskekin Bigarren Mailako liga bereganatu zuen iaz.

Maika Brusten ustez, “Gonzalez ez da edozein, eta ziur naiz bere jakintzak eta esperientziak lagunduko digula”. Berarekin ikasten ari dela dio: “Anitz ari gara ikasten, eta ongi da”. Nolako entrenatzailea den ere azaldu du: “Arrunt sinplea da, eta ez zaio gustatzen jokalariek ezberdin begiratzea errugbiko izar bat izan delako”.

“Atletismoa ez dut inoiz bizitzeko modu bat bezala ulertu”

Maitane Melero Lacasia | Ingeniaria eta atleta

Enpresa bateko kalitate kontrolean lan egiten duen ingeniaria da Maitane Melero (Iruñea, 1983). Atleta ere bada, azken urteetan garaipen handiak lortu dituena, baina ez da horretatik bizi. Ez du inoiz benetan aukera hori izan, eta berak ere ez du bide hori hartu nahi izan. Ama izan zen 2016ko urtarrilean, eta erditu ostean lehiaketara itzultzea kostako zitzaiola iruditzen zitzaion arren, haurdunaldiaren ondoren lortu ditu kirol ibilbideko garaipen edo emaitza entzutetsuenak. Ez da kasualitatea izan: “Ilai jaio aurretik, entrenamendu txar bat egin ostean burumakur joaten nintzen etxera. Orain, lehentasunak erabat aldatu zaizkit, garrantzitsuena etxean daukat, eta horrek lasaitasuna eman dit lehiaketak prestatzeko”. Tokio 2020 oso urrun ikusten du, berak nahikoa lan duelako hurrengo egunean dituen betebeharrak guztiak antolatu eta duen eguneko plana erabat betetzeko.

‘Uztartu’. Ikasketekin, lanarekin, amatasunarekin eta beste mila gauzekin. Maitane Melerori buruz hitz egiten dugunean hitz hori etortzen zaigu burura.

Atzera begiratzen dudana bakoitzean jabetzen naiz atletismoa zenbat gauzekin uztartu behar izan dudana. Ez dakit nola izan naizen gai hainbeste gauza egin eta atletismoarekin jarraitzeko. Unibertsitatean nengoenean, Gobernu Kanpoko Erakunde batean ere ibili nintzen, eta hau ere, uztartu egiten nuen, atletismoarekin. Orain ere uztartu hitza oso presente dago nire egunerokotasunean.

Zein eratarik eman zenuen laguntza GKE horretan?

Mugarik gabeko ingeniari izan zuten izena, eta hemengo GKE bat zen. Nire lizentziatura amaierako lana egiteko proiektua izan zen. Argentinako zonalde batean oso egoera kaskarrean bizi ziren, argindarrik eta hornidurarik gabe, eta nik ikerketa bat egin nuen egoera hari nola buelta eman jakiteko. Gaztandegi bat zuten eremu hartan, baina argindarrik ez. Zehazki nire lana hau izan zen: gaztandegi hartara argindarra eramatea. Instalazio fotovoltaiko bat diseinatu nuen. Nafarroara bueltan, gobernua diru laguntza eman zigun bat egitasmo hori martxan jartzeko. Oso polita izan zen esperientzia, faltan botatzen dut GKE batean laguntzea, baina ez daukat denborarik.

Ordurako, zenbat urte zeneramatzen atletismoan?

Beti egon naiz atletismoarekin lotuta, baina korrikan 11 urterekin edo hasiko nintzen. Zaletasuna, egia esan, ez dakit nondik heldu zaidan. Orain 35 urte ditut. Ez da etxean jaso edo ikusi dudana zerbait izan. Justu kontrakoa gertatu zen, ni korrikan hasi ondoren nire aitari harra sartu zitzaion, baina ez gara batera joaten korrika egitera, aitak esaten didalako berarentzat azkarregi noala [barrezka]. Nire arreba ere hasi zen korrika. Betidanik gustatu izan zait, baina Gorputz Hezkuntzako irakasle batek gurasoei korrika egiteko proposa nintzela esan zienean sartu nintzen lehen aldiz talde batean. Arrosadian bizi nintzen, baina nire eskolan ez zegoen atletismo taldea. Etxetik gertu dagoen beste eskola bateko taldean hasi nintzen, baina urtebete egin ondoren taldea desagertu egin zen, eta beste batera joan behar izan nuen. Astean hirutan entrenatzen genuen, eta hau ere etxetik gertu. Hainbat taldetan ibili naiz, gaur arte.

Zaletasuna nondik heldu zaizun ez dakizu. Telebistan lasterketak ikusten zenituen? Korrikalariren bat edo beste ere gustatuko zitzaizun, agian.

Ikustea gustatzen zait, baina ez naiz oso jarraitzaile sutsua. Txapelketaren bat ez badut ikusten ez zait inporta. Natalia Rodriguez zen nire erreferentea, ni hasi nintzenean. Ni baino lau urte zaharragoa da. Gogoan dut, lasterketa garrantzitsu batean, bat egin genuela, eta ez nekiela beroketa ariketei ekin edo autografoak eskatzen hasi behar nuen.

Orain, zuri eskatuko dizkizute autografoak.

Ez pentsa [barrezka]. Horretan, atletismoak ez dauka beste kirol batzuekin antzik.

Atletismoaren barruan, korrika bai, baina distantzia askotan?

Ez hori bakarrik, jauzian ere aritzen nintzen. Korrikari dagokionez, hasieran uste nuen azkarra nintzela. Abiaduran murgildu nintzen, baina gero ikusi nuen hobeto moldatzen nintzela iraupen luzeetan eta erdi luzeetan, eta egokiagoa nintzela beste mota bateko ahaleginetarako. Duela 15 urte, bi urte Pamplona Atletico taldean aritu ondoren, egungo nire taldean, Ardoi taldera joan nintzen. Patxi Morentin, nire entrenatzailea, orduan ezagutu nuen. Atletismoak duen gauza onetako bat da taldeko entrenatzailea eta zure entrenatzailea izan ahal dituzula. Eta gainera, taldeen artean arazorik egoten ez denez normalean, taldez aldatzen baduzu ere zure entrenamenduetako taldea mantendu dezakezu.

Patxi Morentin. Pertsona oso garrantzitsua zure ibilbidean. Zerbait berezia emango zizun berarekin hainbeste urte egoteko, ezta.

Entrenatzaile bikaina izateaz gain, oso pertsona ulerkorra aurkitu nuen. Entrenatzailea, psikologoa eta laguna. Nire bigarren aita izango balitz bezala da. Entrenatzaile batekin duzun harremana oso garrantzitsua da atletarentzat, berak zure izaera ulertu behar du, eta zuk berea. Gainera, hainbeste urte elkarrekin egotea ez da batere normala, gauzak ondo ez doazenean atleta askoren lehendabiziko erabakietako bat izaten baita entrenatzailez aldatzea. Niri ez zait hori burutik pasatu ere egin. Atleta eta pertsona bezala ezagutzen duzuen egungo Maitane Melero hau Patxiri esker ere bada.

Hamaika urterekin hasi zinen atletismoan, eta 24 daramatzazu. Hasiera hartan, garaipenak bigarren maila batean egongo ziren. Alabaina, lortu duzun guztia lortzeko mentalitatea ere aldatuko zenuen noizbait, ezta?

Nire pentsatzeko eta atletismoarekiko ikuspuntua ez da aldatu. Inertziatz egin dut aurrera. Atletismoa ez dut inoiz bizitzeko modu bat bezala ulertu. Nire buruari ez dizkiot inoiz helburu handiak jarri, "marka hau egin edo lasterketa hori irabazi behar dut". Ibilbideari erreparatzen badiozu, batzuetan ni neu ere harritzen naiz. Nik ere lan handia egin dut, baina ez naiz beste atleta batzuk bezalakoa, ez naiz atletismoan %100 murgilduta dauden horietarikoa, eta dudan biziagatik ezin dut horretan pentsatu ere egin. Nik egun bakoitzaz gozatzen dut, lagunak egiteko balio dit, eta nire lanak sortzen didan estresetik ihes egiteko modu eraginkorra ere bada.

Hortaz, hamaika urte zituen Maitane harekin antzekotasun asko ditu 2018ko Maitanek.

Aldatu naiz. Lehen askoz ere gehiago azaleratzen nituen nire sentimenduak, gehiagotan haserretzen nintzen entrenamendu edo lasterketa bat gaizki egin ondoan. Urduria nintzen, eta gogoek pasada txarrak ematen zizkidaten lehiatzen nuenean. Urduritasuna hobeto kudeatzen ikasi dut, eta lasterketa luzeetan hobeto neurtzen ere bai.

Horrekin ulertzen dut orain, irabazteko gogoak direla eta, lehenengo lasterketa nahi baino okerrago atera zitzaizula.

Burlatako Krosaz beti asko oroitzen naiz. Eroen pare atera nintzen korrika egitera, lasterketaren azken zatian erabat hustu nintzen, eta hala ere, laugarren amaitu nuen. Irabazteko grina ez da desagertu hasi nintzenetik, hori seguru ezetz. Gauzak ahalik eta hobekien egitea gustatzen zait, daukadan guztia ematea. Nire buruarekiko eskaera oso altua da.

Entrenatzaileak eskatzen duenaz gain, bakoitzak bere buruari ahal duen guztia eskatu eta lortzea, hori ere ezinbestekoa edozein kirolarientzat.

Hori gabe ezinezkoa da emaitzak lortzea eta zure buruarekin gustura geratzea. Kirol batean nabarmentzea nahi baduzu, dena eman behar duzu zentzu guztietan: prestakuntza fisikoan, atsedena hartzen, psikologian eta beste kontu txiki askotan. Hori gabe, ezin zara txapelduna izan. Badaude dohain ikaragarriak dituztenak, baina txapeldun izaera falta zaien kirolari asko. Irabazteko grina hori gabe, gogorik eta guk hemen esaten diogun garra hori gabe ez zoaz inora.

'Garra' hori berezkoa duzu, eta pentsatzeko era ez zaizu aldatu, argi dago. Fisikoki, baina, garapen handia izango zenuen hasi zinenetik gaur arte.

Garapen normala izan da nirea. Berezko ezaugarri batzuk behar dira, jakina, genetika on bat ezinbestekoa da, eta horri urte askoren ondoren egindako lan gogorra gehitu behar diozu.

Dena den, erabakigarriena, agian, distantzia aldaketa izan da.

Berezko zerbait izan da. Urteekin txispa eta abiadura galtzen dituzu, eta lasterketa luzeagoetara, ez hain azkarretara hobeto moldatzen hasten zara. Gehien gustatu izan zaidan proba beti 1.500 metroetakoa izan da, baina duela pare bat urte 5.000 metroetan parte hartzen hasi nintzen. Proba hori prestatzen eta lehiatzen hasi nintzen lehendabiziko urtean, Espainiako Txapelketan bigarren geratu nintzen. Eta orain, ikusi dut, agian tematu egin nintzela 1.500 metroko probarekin; proba gustatzen zitzaidan, baina seguruenik ez zen hobekien zetorkidana. Krosak ere ez zaizkit gustatzen, lokatzetan korrika egite hori, baina nazioartean lehiatzeko lehendabiziko aukera krosaren bitartez lortu nuen. Azkenik, noski, 10.000 metroak daude. Europako Txapelketan, Berlinen, 9. Postuan amaitu nuen. Ez nuen inoiz pentsatzen luzera horretako proba batean hain ongi moldatuko nintzenik. Gorengo mailan lehiatzeko aukera eman dit distantzia horrek, eta dena birplanteatu behar izan dut.

Urte askoren ondoren, lana fruituak ematen hasi zen, baina ez agian zuk espero zenuen distantzian.

Distantzia aldaketa erabakigarria izan da nire ibilbidean. Salamancan (Espainia) 3.000 metroetan, estalitako pistan, brontzea lortu nuen. Ez nuen sinesten, lasterketa oso kontserbadorea egin nuelako. Hortik aurrera ikusi nuen aurrekoen artean muturra sar nezakeela. Ez nekien kasualitatea zen edo ez. Baina Berlingen emaitza hori lortuta erakutsi nuen ez zela kasualitatea izan. Pixkanaka lorpen handiagoetan pentsatzen hasi nintzen, nazioarteko lasterketetan parte hartzeko nituen aukeretan, eta 2018a nire urtea izan zen: hiru aldiz hartu nuen parte nazioarteko lasterketetan, Berlingo Europako Txapelketa barne.

Berlin, olinpiar estadioa. Leku paregabea 10.000 metroetan, lehen aldiz, Europako Txapelketa lehiatzeko, pista horrek duen zeresan historikoa dela eta.

Zenbat oroitzapen ditudan. Izugarria izan zen, oso berezia, ez zait inoiz ahaztuko. Txapelketan parte hartu behar zuten korrikalari guztien artean, 21. markarik onena zen nirea, eta bederatzigarren amaitu nuen. Lasterketaren aurreko egunetan nire logelako kidearekin hitz egiten nuen, eta esaten nion: "Ez dut nahi inork ni doblatu eta azkena geratzea nahi, mesedez". Baldintzak ere oso gogorrak ziren, 33 gradu egiten zituen, eta hezetasuna ere oso altua zen. Euria egin zuen arren, ez zuen freskatzeko balio izan. Neska asko erretiratu ziren baldintzengatik, baina niri ez zitzaidan burutik pasatu ere egin, eta azkenean, nire marka onenetik gertu geratu nintzen. Neukan guztia eman behar nuen behin hor egonda, pista gainean azken unera arte sufritu, erraiak bota. Dena eman nuen, eta badaude hori erakusten duten argazkiak [barrezka]; helmuga zeharkatu ondoren, lurrera bota nintzen.

Norekin gogoratzen da bat horrelako lasterketa garrantzitsuan helmuga zeharkatzen duenean?

Egia aitortzearren, nire entrenatzailearekin oroitu nintzen. Lana dela eta, ezin izan zuen Berlinera bidaiatu, eta marra pasatu bezain pronto, Patxi etorri zitzaidan burura: egindako lan guztia, sufrimendua, eta orain, fruituak, emaitzak. Oso une berezia izan zen niretzat. Ilusio handia zuen lasterketa harekin. Pena izan zen hark bertatik bertara lasterketa ezin jarraitu izana.

Faborito izan gabe, Londresen bederatzigarren amaitu zenuen. Orain, beste era batera ikusiko zaituzte gertuagoko lasterketan zure aurkariak. Nabaritzen duzu presio hori?

Getafeko lasterketan (Espainia) nabaritu nuen lehenengo aldiz hori. Gehiago begiratzen didate aurkariak, begiradak niregan jarrita baleude bezala sentitu nuen. Hala ere, ez dut arlo psikologikoa gehiegi lantzen. Benetako presioa nik egunerokotasunean, lanean daukat; aerogeneradoreek ongi funtzionatzea, hori da nire benetako kezka. Korrika egitea nire zaletasuna baino ez da.

Noizbait pasatuko zitzazun burutik korrikan erabat murgiltzea, ezta? Benetan, korrikalari profesionala izatea.

Momentu hauetan ezin dut. Ez dut gezurrik esango, noizbait planteatu izan dut, galdetu izan diot nire buruari zer egiteko gai izango nintzen egun osoa korrika egin eta entrenatzeari emango banio. Momentuz, ordea, ez da gauzagarria den zerbait. Niri jaten lanak ematen dit, eta ez dut lanpostua galdu nahi. Gainera, lanean nahiko errespetatzen didate nire egoera berezia, ama izan eta goi mailan korrika

egitea, baina noizbait ere hasi beharko dut garai batean bezala berriro ere laneko bidaietan parte hartzen. Gustatuko litzaidake jakitea noraino iritsi naitekeen atletismoan, baina orain arte egin dudanarekin oso pozik eta harro nago. Hemendik aurrera lortzen dudan guztia ongi etorria izango da. Dena den, atleta eta kirolari gehienek bezala, Tokio 2020ko Olinpiar Jokoak izango dituzu buruan.

Ez pentsa.

Erantzun hori ematen duen gutxienetako bat edo bakarra izango zara.

Nire egunerokotasunak ez dit baimentzen ideia hori, orain, buruan izatea. Daukadan bizitza motarekin pausoz pauso noa, pauso txikiak emanez. Nire arazoetako bat hori izan daiteke: ez dut inoiz benetan sinetsi garaipen edo emaitza handiak lortzeko gai naizela. Momentu hauetan kostatu egiten zait anbizio altu hori mantentzea. Ez dut atletismoaren aldeko apustu serio bat egin, beti nire onena ematen dut, baina ez da gauza berbera. Hurrengo lasterketa nire ibilbideko azkena izan daiteke, horrek estutzera eramaten nau, baina ez naiz profesionala, beste asko bezala.

Horrenbestez, noiz arte korrika egiteko gogoia duzun galdetzen badizut, erantzunik ez duzu izango.

Gogoak bide batetik doaz, eta aukerak izatea beste batetik. Jarraitzeko gogo handia daukat, eta bikaina izango litzateke Tokio 2020ra oraingo egoera fisikoan iristea, baina ezin dut baieztatu. Gainera, geroz eta gehiago kostatzen zait ordu zehatz batzuetan entrenamenduak egitea. Aurrera joan ahala erabakiko dut.

Argi dagoena da zure emaitzarik onenak, azken hiru urteetan lortu dituzula, ama izan eta gero.

Ilai jaio aurretik, entrenamendu txar bat egin ondoren, burumakur joaten nintzen etxera. Orain, lehentasunak erabat aldatu zaizkit, garrantzitsuena etxean daukat, eta horrek lasaitasuna eman dit lehiaketak prestatzeko. Gogoratzen naiz, Ilai jaio eta gero, Patxiri esan niola ez nekiela urte hartan zer egingo nuen. Entrenamenduetara-eta ahal nuenean azalduko nintzela egin nion promes. Nire bikotearekin adostu genuen, egunero, bakoitzak bere gauzak egiteko ordubete izango zuela. Nik ordubete hori korrika egiteko aprobeixatu nuen, eta lanean ordutegia murriztu eta ez bidaiatzeko eskaera errespetatu zidatela kontuan hartuta, jarraitutasun bat lortu nuen. Korrika egiten dudanean ez dut ezertan pentsatzen, oinekin nola zapaldu soilik. Disfrutatu egiten dut, eta pilak kargatuta bueltatzen naiz etxera. Asteko egun batean atsedean hartzen dut, baina normalean, beste mota batetako hitzorduak direla eta, bigarren egun batean ere aste askotan egiten dut kale. Aste on bat sei entrenamenduko astea izaten da.

Nire bikoteak esaten zidan urte hartan 1.500eko Espainiako Txapelketako finalera iritsiko nintzela, baina nik esaten nion erotuta zegoela. Arrazoi zuen. Erditu eta lau hilabetera, finalean sartzeko gutxiengo maila lortu nuen, eta sei hilabeteren buruan finalean zortzigarren amaitu nuen, nire marka pertsonala ia berdinduz. Oso azkar errekuperatu nintzen.

Entrenamenduetan jarraitutasun bat mantentzeko dituzun zailtasunak direla eta, inoiz arazorik izan duzu?

Bai. Entrenamendu astea ona izan ez denean, hurrengo astean berreskuratu nahi izatea eta gehiegi entrenatzea gertatu izan zait. Entrenatzen dudanean, dugun sistema dela eta, denborei baino pulstometroari erreparatzen diot. Marra edo maila gorri batzuk markatuta dauzkat. Baina behin gainditu egin nituen, eta medikuari onartu behar izan nion egindako akatsa. Astebete eman behar izan nuen entrenatu gabe, lasai etxean errekueratzen.

Haurdun zenuela jakin zenuenean, korrika egiteai erabat utzi zenion?

Medikuarengana joan nintzen, eta apur bat galduta zegoela ikusi nuen. Kasua aztertuko zuela esan zidan arren, beldur apur bat sartu zitzaidan, eta entrenamenduak erabat uztea erabaki nuen, arriskurik ez hartzeko. Haurdun daudenentzako pilates klaseetan eman nuen izena, eta beste mota bateko ariketak egiten nituen, baina korrika ez. Horren ordean, entrenatzen leku berean ibiltzen hasi nintzen, paseotxoak emanez. Ingeleseko klaseetan berriz izena emateko ere aprobetxatu nuen [barrezka].

Nola moldatzen zarete zu eta zure bikotea nazioarteko lasterketan parte hartu duzue?

Eromena izan da. Izan ere, Espainiako selekzioarekin kanpora joan naizenean, bikotea eta semea ezin izan dira nire hotel berean egon, eta abioi berean ere ezin izan zuten bidaiatu. Hiri berean egon izan dira, baina beste hotel batean, eta gastu horiei ere guk egiten diegu aurre. Taldearekin lehiatzen dugunean ez dago horrelako arazorik. Aitona- amonen laguntza ere badugu, baina saiatzen gara haiek haurraz goza dezaten. Hasiko da haurra eskolan, eta beranduago aterako denez, horrek agian aukera gehiago emango dizkigu ordutegiak uztartzeko. Orain, egunez egun antolatzen gara. Niri asteko plana egitea gustatuko litzaidake, baina ezinezkoa da.

Denboraldi-aurrea hasi baino ez duzue egin. Nola izan da atsedeenaren ondoren berriz ere entrenatzen hastea?

Asko kostatu zait berriro ere hastea, hiru aste entrenatu gabe egon ondoan. Ez dut helburu garbirik, egoeraren arabera erabakiko dut. Hori bai, denboraldi ona egin nahi dut, iazkoa bezalakoa, krosak egin, lehiatu behintzat. Estalitako pista gehiago aritzea ere buruan daukat. Nire betiko entrenamendu taldea 19.30ak aldera etortzen da Zitudela inguru honetara, baina nik aurten ahal dudanean entrenatuko dut. Atletismoaren gauza onetako bat da bakarrik edo edozeinekin entrenatu dezakezula, eta batzuetan korrikalari batzuek nire entrenamendu berberak egiten dituzte, batera ibili ahal izateko. Egun bakoitza eromena da, batzuetan haurra siestan dagoenean aprobetxatzen dut entrenatzera etortzeko. Ez dakit bizitza erritmo hau noiz arte luzatu ahal izango duan.

Maite Maiora Elizondo, Mendiko lasterkaria

— *Nekatuta nago, zenbateko tartea daukat lehenengo neskarekiko?*

— *Lasai Maite, oraindik kilometro asko falta dira, eta oso-osorik zaude. Eutsi buruari, buelta emango diozu!*

— *Bai? Bale. Eskerrik asko!*

Mont Blanc-eko ultra trailean izan genuen elkarrizketa hori, iaz, 100 kilometroko proban.

Gaztetatik ezagutzen dut Maite, institutuan ez ginen urruti ibili, eta geroago, gure amaren jantzi-dendan ere aritu zen lanean, saltzaile. Kolore biziz janzten zen neska bizizale hura gailurraren gailurrean ikusiko nuenik... sinesteko ere! Munduko mendi lasterkari onena dela diote, eta tituluek ere hala baieztatzen dute. Lasterkari bikainaren gainetik, oinarrian dagoen pertsona umila azpimarratuko nuke nik; nirekin bederen, beti bezain gertuko aritu da.

Chamonixeko helmugara iritsi zenean, eskerrak eman zizkigun lasterketan laguntzen aritu ginen guztioi. Nik berari eman nahi dizkiot eskerrak, emakume mendizale, langile eta borrokalaria den neurrian, askoren eredu delako. Gertutik segitzen ditut Maiteren lorpenak, eta lasterketez, mendiaz, argazkiez galdetu diot elkarrizketa honetan. Beste hainbat gauzari buruz ere bai. Ordu eta erdiz ibili gara kontu-kontari, mendian bezala, aspertu gabe aspertzearaino.

Nor da Maite Maiora?

Maite Maiora Elizondo Mendaroko harakinaren alaba da, hiru anai-arrebetan gazteena. Herri txiki bateko biztanlea eta neska normal bat.

Nondik datorkizu mendizaletasuna?

Gure etxeko kultura beti izan da oso euskalduna, mendizalea ere bai. Mendi garairik igo gabe, baina, gure adineko euskal familia askotan bezala, gure etxean ere igandeetan ohikoa zen Urbiara edo Xoxotera igotzea. Niri neroni betidanik gustatu izan zait mendia, hondartza baino gehiago. Elurra ere asko gustatzen zait. Etxean ez dira oso elur zaleak izan baina ni bai, gaztetan elurretako posterrak neuzkan gelan itsatsita.

Noiz eta nola hasi zinen korrika?

Gure etxean beti izan gara kirol zaleak, jarduteko zein ikusteko, eta bereziki korrikazaleak. Anaietako bat gazterik hasi zen korrika, 13-14 urterekin, eta gurasoek beti lagundu izan diote zaletasun horretan. Gogoan daukat anaia ikusten nuela eta inbidia ematen zidala, eta pixkanaka ni ere hasi nintzen. Erdi ezkutuan hasi nintzen korrika, lotsa ematen zidan oso poliki nindoan eta. Korrika egitea gauza erraza dirudi, baina sekula korrika egin ez duen norbaitentzat bi kilometro jarraian egitea ez da txantxa. Atera kontuak, kilometro bat egiteko 6-7 minutu behar badira, guztira 15 minutu egin behar dira korrika segidan, eta bada zerbait. Eta niretzat ere hala zen. 24 bat urte neuzkan orduan. Nahiko berandu hasi nintzen.

Korrika egitea gauza bat da, ordea, eta oso bestelakoa lasterketak egitea.

Bai! Gogoan daukat behin Donostiako maratoina lagundu niola anaiari eta inbidia eman zidan. Neska pila bat ikusi nituen korrika eta hauxe pentsatu nuen: "Hauek gai badira, ni zergatik ez?" Egunen batean nik ere maratoina egin nahi nuela erabaki nuen orduan. Hasieratik goian jarri nuen langa! (barrez) Beti gustatu zait denean hobetzea eta korrika ere hobetu nahi nuenez, azkenean, helburu bat jartzea zen onena, entrenatzeko aitzakia izateko. 2010. urtean Gasteizko maratoina erdia ordu eta erdian amaitzea jarri nuen helburu, eta orduan hasi nintzen prestatzailearekin lanean, Etor Mendiarekin.

Hasieratik ari zara, hortaz, Etorrekin?

Bai hasieratik nago Etorren "sektan" (barrez), eduki dudako prestatzaile bakarra da. Zerbaitek funtzionatzen badu, zergatik aldatu? Oso ongi moldatu gara hasieratik, eta orain oso ongi ezagutzen dugu elkar, bai gorputzez eta bai buruz, eta hori oso garrantzitsua da niretzat.

Gasteizko maratoina erdia izan zen hortaz, zure lehen lasterketa?

Ez, urtebete lehenago Zumaian egiten den herri lasterketa batean atera nintzen, hura izan zen nire lehen lasterketa. Gero Etorrekin hasi eta Gasteizko maratoina erdia ordu eta erdian amaitzea jarri nuen helburu. Orain erraza dirudi, baina denbora hori egiteko korrika egin behar da, eta ni hasi berria nintzen. Azkenean ez nuen helburua bete, ordubete eta 31 minutuan edo amaitu nuen lasterketa. Gogoan daukat anaiak lagundu zidala eta azken kilometroetan esaten zidala: "Animo Maite, 1:32tik jaitea ez da txarra" (barrez). Ni triste ez geratzeko-edo esaten zidan, jakina.

Eta halako batean, mendi lasterketetan hastea erabaki zenuen...

Nik asfaltoan segitzen nuen korrika, baina halako batean, Xoxoteko kilometro bertikala egitea proposatu zidan Etorrek, prestakuntza gisa. Probatu, eta gustatu egin zitzaidan. Xoxoteko kilometro bertikala izan zen beraz, nire lehen mendi lasterketa; bigarrena, berriz, Olaztiko mendi maratoina erdia. Oso oroitzapen onak dauzka, eta bi lasterketa horiek bereziak dira niretzat.

Zuretzat, baina, Zegama-Aizkorri mendi maratoina izan da beti bereziarena.

Bai. Ikusi nuen lehen mendi lasterketa Zegama-Aizkorri mendi maratoina izan zen, 2004. urtean izan zela uste dut. Nik banekien maratoina hori existitzen zela, eta lagun artean joaten ginen ikustera, baina egia esan, ez nuen ulertzen oso ondo zer zen: mendian 42 km korrika? Hura zorakeria zen niretzat. 22-23 urte neuzkan orduan, eta ez nuen korrika egiten. Korrikalariak ikusten nituenean harri eta zur geratzen nintzen. Eta mutilak tira, baina neskak? Halako batean pentsatu nuen: hauek egin badezakete, nik zergatik ez? Giroa ere izugarria da. Orain jende asko joaten da, baina orduan ere bai. Gu Arantzazutik joaten ginen beti, eta gogoan daukat autoa aparkatzeko arazoak izaten genituela. Guretzat Aizkorri berezia da, gainera, gipuzkoar askorentzat bezala. Orduetik bihotzean eraman dut lasterketa hori.

Noiz erabaki zenuen parte hartzea?

Xoxoteko eta Olaztiko mendi lasterketen ostean Karakateko igoera egin nuen Elgoibarren. Etxeko lasterketa da, guretzat munduko txapelketa. Orduan Pako Iriondo joaten zen saria ematera, elgoibartar kuttuna, Euskal Mendizale Federazioko presidentea. Pakok oso harreman estua zeukan Zegama-Aizkorri lasterketarekin, eta berak hitza eman zidan dortsala lortuko zidala. Esan eta egin, dortsala lortu zidan. Gaur egun ematen du mendi maratoiak erraz egiten ditugula, baina ez da tontakeria, eta buru-belarri jarri nintzen prestatzen. 2010. urtea zen, eta halaxe, 2011n atera nintzen lehen aldiz Zegama-Aizkorri maratoiari.

Ez daukazu ahazteko...

Oso oroitzapen polita daukat: helmugara iritsi baino bi kilometro lehenago Elgoibarko lagun batekin egin nuen topo, eta elkarrekin sartu ginen helmugan. Oso hunkituta iritsi nintzen, malkoak ere ateratzen zitzaizkidan. Lehen mendi maratokia zen niretzat, Zegama-Aizkorri handia. Oso pozik nengoen.

Noiz hasi zinen Euskal Selektzioan?

Urte hartan bertan, 2011n. Zegama-Aizkorri egin ostean berehala deitu zidan Kepa Larreak. Oso azkar gertatu zen dena, baina normala ere bazen, orduan ez baikinena neska asko ibiltzen mendian korrika. Oso oroitzapen ona daukat: Kepa Larrea, Fernando Etxegarai, Jabi Olabarria, Oier Ariznabarreta... nesketan, berriz, Nerea Amilibia, Elena Calvillo, Oihana Kortazar, Oihana Azkorbebeitia eta Aitziber Ibarbia. Eneko Allende eta Jokin Lizeaga ere ezagutu nituen. Urte hartan Munduko kopako probak egin genituen Italian, eta Espainiako txapelketatik ere deitu ninduten. Oso garai polita izan zen.

Zenbat urte egin zenituen selektzioan?

Bi urte. 2012a ere selektzioarekin egin nuen, eta orduan bai, Zegama-Aizkorri mendi maratokia jarri nuen helburu. Baina oso urte txarra izan zen: laneko oposaketak prestatzen ari nintzen, eta buruz oso nekatuta nengoen. Selektzioan egoteak ere kezka sortzen zidan, maila eman nahi nuelako. Urte hartan erori egin nintzen Zegama-Aizkorri, eta sorbalda atera zitzaidan. Pixkanaka osatu nintzen, baina geroago berriz ere atera zitzaidan, eta nire errendimendua asko jaitsi zen, behega jota nengoelako buruz. Udan selektzioarekin Italiara joan ginen, Giir di Mond lasterketara, eta hor aldaketa bat eduki nuen. Lasterketei garrantzia handirik eman gabe, opor giroan egon ginen, eta pixkanaka buelta ematen hasi eta berriz hasi nintzen lasterketekin gozatzen. Denboraldia amaitu eta 2013an sorbaldako ebakuntza egin behar nuenez, Selektzioan ez jarraitzea erabaki nuen.

2013an etenaldia egin zenuen, hortaz?

Hori zen asmoa, baina ez nuen bete. Aurreko urtean Zegama-Aizkorri erori egin nintzen, Josuk (bikotekideak) esan zidan ebakuntza atzeratu eta Zegama osterako uzteko, aurreko urteko arantza ateratzeko. Horixe zen asmoa, baina urtea oso ondo hasi nuen, jauzi kualitatibo handia egin nuen, eta esaterako, Zegama-Aizkorri bost ordu azpitik amaitu nuen. Orduan ikusi nuen ezin nuela ebakuntza ekainean egin. Udako denboraldia egin nuen, eta irailean operatu nintzen. Ordurako La Sportiva taldeak materiala ematen zidan, eta pixkanaka taldean sartu nintzen.

Urte hartatik aurrera, goraldi izugarria izan duzu.

Bai, ebakuntzatik nahiko azkar osatu nintzen, eta 2014a oso ona izan zen. La Sportivan bete-betean sartuta nengoen jada, eta munduko kopako probetan podiumeko postuak lortzen hasi nintzen. Zegama-Aizkorriin ere hirugarren egin nuen. Uztailean, ordea, berriz erori nintzen, eta berriz atera zitzaidan sorbalda. Baina ezin zidaten berriz ebakuntzarik egin aurreko ebakuntzako torlojuak desagertu gabe zeudelako oraindik. Horregatik, denboraldia amaitu eta 2015ean berriz ebakuntza egitea zen asmoa.

Baina 2015ean ez zinen atera Zegamako maratoian.

Ez. Zegama baino hiru aste lehenago beste eroriko bat izan nuen, eta belaun-hezurrean haustura egin nuen, hezurretako edema neukan. Niretzat pentsaezina zen Zegama-Aizkorriin ez ateratzea, eta konturatu ere ez nintzen egiten, baina kaletik herrenka nindoan. Etxekoei esaten nien: begira, ondo nago! Eta harrituta begiratzen zidaten. Azkenean ikusarazi zidaten gaizki nengoela, eta lasterketa bezperan erabaki nuen ez ateratzea. Gogorra izan zen, baina orduan ikusi nuen nahi izatea ez dela nahikoa. Egun hartan ikusi nuen buruak nahi zuen arren, gorputzak ezin zuela. Handik hiru astera munduko probara joan ahal izan nintzen, Anecyn (Italia), artean ere hezurretako edema neukala. Hirugarren amaitu nuen, eta tira, urtea pixka bat arindu zidan horrek.

Sorbalda, hezurretako edema belaunean eta ondoren pitzadura, ezta?

Bai, kontatuko dizut nola gertatu zen. 2015eko abendurako neukan data sorbaldako bigarren ebakuntza egiteko. Denboraldia amaituta zegoen, oso entrenatuta nengoen, eta prestakuntza hura baliatuz aspaldiko ametsa betetzea erabaki nuen: Donostiako maratoia egitea. Egun horretan, ordea, lan egin behar nuen, eta orduan Josuk egun horretan Europa osoan zeuden maratoi guztien zerrenda atera zidan, bat aukeratzeko. Gertuen Malagakoa zegoen, eta hara joan nintzen. Sorbaldako ebakuntza baino 10 egun lehenago izan zen. Maratoiaren prestakuntzan asko gozatu nuen: 7-8 astez oso entrenamendu espezifikoak egin nituen. 5.000, 6.000 eta 10.000 metroko serieak. 2 ordu eta 49 minutuan amaitu nuen lasterketa, oso denbora ona zen. Baina orduan psoas inguruan hasi zitzaidan mina. Ebakuntza baino egun batzuk lehenago korrika pixka bat egitera atera eta 20 minutu neramatzanean gelditu egin behar izan nuen. Hanka arrastaka neukala itzuli nintzen etxera. Femurrean haustura neukala jakin gabe joan nintzen sorbaldako ebakuntzara. Oso garai txarra izan zen, ezjakintasunarengatik eta min neukalako. Bi hilabete geroago, 2016ko otsailean egin zidaten erresonantzia, eta orduan jakin nuen zer neukan. Garai hartan gauza bakarra neukan buruan: gaurko eguna pasatzea, eta bihar gaur baino pixka bat hobeto egotea. Oso gogorra izan zen.

Korrika gehiegi egiteagatik hautsi zitzaizun femurra?

Bai, korrika egitea sagu baten parekoa da hezurrentzat, raka-raka jan egiten du. Neure buruari gehiegi eskatzen niolako gertatu zitzaidan. Burua gehiegi estutzen duzunean gorputzak ere leher egiten du. Atsedena beste sendabiderik ez dago hezurretako desgaste hori osatzeko. Oso garai txarra izan zen, baina gauzak lasaiago hartzen ikasteko balio izan zidan.

Hala ere, Zegaman atera zinen.

Bai, atera nintzen. Gogoan daukat apirilean Josuk proposatu zidala Zegamako igoera bertikala egitea. “Maratoia ezingo duzu egin agian, baina bertikala egin dezakezu, goraka bakarrik baita!”. Niri bururatu ere ez zitzaidan egin halakorik, eta egia esan, ilusio handia egin zidan. Eta hala erabaki nuen bertikala egitea, baina maratoiko dortsala utzi gabe. Azken unera arte ez nuen erabat baztertu nahi maratoian ateratzea. Lesioak hobera egin zuen pixkanaka, eta iritsi zen Zegamako asteburua. Bertikala ostiralean izan zen, eta maratoia igandean. Gogoan daukat bertikaleko igoera osoa oilo-ipurdiarekin egin nuela. Sekula berriz korrika egingo ez nuen beldur nintzen, eta han egotea oparia zen niretzat. Eguraldi zoragarria izan genuen, jende asko animatzen, oso hunkituta nengoen, eta gainera irabazi egin nuen! Bertikalak indarra eman zidan, eta maratoia lehiatzeko moduan ez nengoen arren, banekien amaitzeko moduan nintzela. Eta igandean atera egin nintzen. Hotz handia egin zuen, eta jendeak oso gaizki pasatu zuen, baina ni pozarren nindoan. Maratoian ateratzea opari bat zen niretzat, eta gainera, bosgarren amaitu nuen. Oso asteburu ederra izan zen.

Uda hartan munduko txapelketa ere irabazi zenuen.

Bai, Buff Epic Trailen, Kataluniako Pirinioetan izan zen. Denboraldia uste baino askoz hobeto zihoan, baina abuztu bukaeran, beste haustura bat eduki nuen behatzean. Orduan hasi nintzen pentsatzen ahalegin eta neke hura guztia gehiegi zela. Gorputzak ezin ziola eutsi eskatzen nion mailari.

Askotan esan izan duzu Zegama-Aizkorri irabaztea obsesio bihurtu zitzaizula.

Txirrindularitzan Frantziako Tourraren pareko zerbait da Zegama-Aizkorri mendi-lasterketeta. Txirrindulari batentzat Tourra irabaztearen pare da mendi lasterkari batentzat Zegama-Aizkorri irabaztea. Egia esan, pentsatu ere ez duzu egiten horretan, ezinezkoa iruditzen zaizulako. Gogoan daukat 2013ko Gabonetan, Jakan (Espainia) ginela, Ainhoa Txurruka Zegama-Aizkorriko zuzendariak esan zidala hurrengo urterako hautagaietako bat nintzela, maratoia irabazteko. Barrez hasi nintzen, adarra jotzen ari zelakoan, baina egia esan, Ainhoa beti izan da sorgin samarra horrelako gauzak asmatzeko (barrez).

2017an bete zenuen ametsa.

Bai, pixkanaka lesio guztietatik osatu nintzen, eta iazkoa oso urte ona izan zen. Nire ingurukoek bazekiten niretzat obsesio bihurtu zela Zegama-Aizkorri irabaztea, eta nire pena zela mendi lasterketetatik erretiratuko nintzela ametsa bete gabe. Niretzat munduko txapeldun izatea baino gehiago zen Zegama irabaztea. Tranparik egin gabe noski, baina kosta ahala kosta irabaztea zen nire ilusioa: lasterketa ona edo txarra egin, gozatu edo ez, baina irabazi egin nahi nuen. Eta azkenean, iaz lortu nuen. Lasterketa ona egin nuela uste dut, hasieratik itsutu gabe. Aizkorriko igoeran eraso jotzea zen nire asmoa, eta hala egin nuen. Silvia Rampazzo italiarra nahiko gertu izan nuen gero Oltzen, baina azkenean Andraitzen gora atzean utzi eta helmugara lehenengo iritsi nintzen. Ezin dut azaldu zer izan zen... amets bat egia bihurtzea. Ondo atera zen, baina lan handiaren emaitza izan zen garaipen hura.

Errekorra ere ezarri zenuen, gainera.

Bai, nire lehentasuna irabaztea zen, baina errekorrena ere polita da. Nolabait erakusten du ez nuela kasualitatez irabazi, borrokatu eta gauzak ondo egin nituelako irabazi nuela.

Argazki zoragarri asko dituzu, Maite, baina bat aukeratzekotan Sancti Spiritun Josuri eskua ematen ari zarena aukeratuko nuke nik.

Bai, niretzat ere oso argazki berezia da. Bikotekidea izateaz gain, kirol mundu honetan nire babesik handiena ere bada Josu. Oso pertsona alaia da, oso baikorra. Jendeak uste du ero samarra dela, baina kontrakoa da, oso zorrotza da, askotan gehiegi. Niri sekula ez dit ezer eskatu, baina bera dena ematen saiatzen da beti. Oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta badaki ni nola animatu. Sancti Spirituko momentu horretan nik banekien Josu han ikusiko nuela. Bat-batean ikusi nuen, eta eskua eman zidan. Ez zidan ia ezer esan, "aupa, neska!" besterik ez. Baina nik eskua estutu nion, eta ulertu zuen ondo nindoala. Hitzik gabeko elkarrizketa izan zen, bion artekoa. Bi eskuak indarra egiten ari dira argazki horretan, elkarri indarra ematen ariko bagina bezala. Oso polita da.

Sare sozialetan ere berak idazten du zure ordeaz, ezta?

Bai (barrez). Sare sozialetan egotea garrantzitsua da gaur egun, babesleek lasterketak irabaztea baino gehiago baloratzen dute hori. Josu ni baino hobeto moldatzen da horretan, nik baino irudimen handiagoa dauka (eta nik baino asti gehiago ere bai). Batzuetan idazten dituenak irakurri eta barre egiten dut, eta nik neuk ere "atsegin dut" ematen diot neure izenean ageri den horri (barrez).

Talde on batean zaude, baina zu ez zara honetaz bizi, udaltzain egiten duzu lan Elgoibarren. Nola bateratzen dituzu entrenamenduak, lasterketak eta lana?

Azkenean Tetris moduko bat da. Beste askok bezala garrantzia handia ematen diot elikadurari, atsedinari, lanari eta ordenari. Muturreraino antolatu behar dut, dena ondo atera dadin. Asteaz sei egunez entrenatzen naiz, eta askotan libre daukadan eguna entrenamenduak antolatzeko erabiltzen dut. Eta, noski, baita etxeko kontuak eta bestelakoak egiteko ere. Ez dago sekreturik: antolatzea, beste modurik ez dago. Amak ere izugarri laguntzen dit. Norberarentzat ama beti da onena, eta nirea ere halaxe da (barrez). Erosketak egiten laguntzen dit, arropa garbitzen ere bai. Askotan gaizki sentitzen naiz ez dudalako nahi etxeoandrea denik sentitzea, baina gero konturatzen naiz berak ere eskertu egiten duela guri laguntzea. Oso harreman estua daukagu, eta oso ongi moldatzen gara. Egia esan, inguruko denek laguntza ere asko nabaritzen dut.

Nola lortzen duzu hainbeste entrenatzea?

Mendiak asko betetzen nau, eta entrenatzen asko gozatzen dut. Mendi lasterkariok asko gozatzen dugu lasterketak egiten, baina benetan gustatzen zaiguna entrenatzea da. Gehienetan bakarrik entrenatzen naiz, nire momentua da, eta oso gustura ibiltzen naiz. Gainera, nahi dudalako egiten dut hau, ez nau inork derrigortzen.

Elikadura asko zaintzen duzu?

Bai, saiatzen naiz ondo jaten, eta alkoholik ez dut edaten. Ez zait batere gustatzen alkohola. Gainera, lanean ikusten dut alkoholak arazo asko sortzen dituela, eta nazka ere hartu diot. Frijituak, esaterako, ez zaizkit gustatzen, baina gozozalea naiz, eta gure etxean beti dago txokolatea (barrez).

Badakazu lasterketa aurreko maniarik?

Ez. Tira, korrika hasi aurretik azken musua ematea norbaiti, bai, asko gustatzen zait hori. Normalean Josuri ematen diot, baina hura ez badago gurasoei, edo lagunen bati. Lasaitu egiten nau.

Garai batean oso argal egon zinen, orain ere argal zaude, baina ez horrenbeste.

Bai, 2014an, esaterako, oso argal egon nintzen. Gogoan daukat maiatzean nire lehen ultra lasterketa egin nuela, Transvulcania, Kanaria Uharteetan, eta asko entrenatu nintzela. Gainera, hango baldintzak oso gogorak dira: beroa, hezetasuna... handik 15 egunera hirugarren egin nuen Zegama-Aizkorrin, eta bai, garai hartan oso argal nengoen. Nik uste dut entrenamenduek eraman nindutela argal egotera, ezer berezirik egin gabe. Nik ez nuen argaltasun hura bilatu, eta ez nion garrantziarik ematen. Osasuntsu nengoen eta kito.

Eta aurten, zer asmo dituzu?

Orain, neguan asko ari naiz gozatzen eskian, alpinoan nahiz mendikoan. Txikitako zaletasuna berreskuratzea bezala izan da, Candanchuko (Espainia) gaztetako lagunekin egoteko modua ere bai. Oso gutxi ari naiz korrika egiten, baina pixkanaka jarriko naiz. Maiatzaren hasieran atletismo federazioaren munduko txapelketan parte hartu nahi nuke, baina ez dakit posible izango den. Halakoetarako hautatu egin behar zaituzte, eta lanarengatik ez dakit zenbat lasterketa egin ahal izango ditudan puntuagarriak. Handik bi astera Zegama-Aizkorrin aterako naiz, beti bezala ilusio handiz. Mendiko federazioaren munduko txapelketa ere egin nahi dut udazkenean, Eskozian. Munduko kopako proba batzuk ere egingo ditut, eta ondoren La Sportivak Italian antolatzen duen zirkuituko lasterketak ere bai. Etxean ere egin nahi dut lasterketaren bat, lagunak eta familiakoak ikustera etor daitezten. Adibidez, Talaia bidea egingo dut berrir; lehen edizioa egin nuen, eta ilusioa egiten dit berriz parte hartzeak. Horiez gain, ultra distantziako lasterketaren bat ere egingo dut aurten.

Azken urteetan ultretan ere oso maila ona eman duzu. Distantzia horretara pasatuko zara?

Ez, urtean distantzia luzeko pare bat lasterketa egitea gustatzen zait, ez besterik. Niretzat mendian egunpasa egitearen parekoak dira ultrak, baina lasterketan. Beste erritmo batean zoaz, beste era bateko sufrimendua da, eta gustatzen zait, baina entrenatzeko ordu asko behar dira, 6-7 orduko entrenamenduetatik 12 ordukoetara egin behar da jauzi, eta ez dut halakorik nahi. Hortxe dago nire muga. Niri korrika egitea gustatzen zait, eta orduan lasterketa laburrei zuku handiagoa ateratzen diet.

Oso pertsona ezaguna zara, baina aldi berean gertukoa. Nola kudeatzen duzu fama?

Funtsean pertsona izatea dago, pertsona normala. Egia da lasterketa aurreko une jendetsuak saihesten

saiatzen naizela, atsedean hartu behar dudalako, baina gainerakoan ez diot garrantzirik ematen. Jende askok uste du beti dena irabazi behar dugula, baina ez da horrela. Ni ere pertsona naiz, neure prozesua daukat, urtean zehar gorabeherak... Garrantzirik ez ematea eta pertsonak garelako ez ahaztea, horixe da oinarria.

Kirolaz gain, beste zaletasunik baduzu?

Bai, puzzleak egitea. Ahal dudanean beti egiten ditut, areago min hartuta nagoenean. Txikitatik gustatu izan zait puzzleak egitea, eta orain ere egiten ditut, handiak, 5.000 eta 6.000 piezakoak. Gero ez ditut inon jartzen, han egoten dira etxean lurrean, baina oso entretenigarria da.

Nola ikusten dituzu emakumeak mendi lasterketetan?

Jendea gero eta hobeto prestatzen da, eta emakumeak ere bai. Kirol gehienetan bezala, gizon baino emakume gutxiago dago hemen ere, baina ez dut uste gizonen errua denik hori, emakumeok gaintitu beharreko gauza asko dauzkagula uste dut: gure lotsak, beldurrak, mugak. Lan handia dago egiteko, baina ez dut uste ezer leporatu behar diegunik gizonazkoei.

Nolakoa da korrikalarien arteko harremana?

Nik neuk, oso ona dela esango nuke. Zorionez, ez gara honetatik bizi, ez dago dirurik jokoan, eta harremana sana da. Denean bezala, hemen ere batzuekin besteekin baino gertutasun handiagoa daukazu, baina oro har, harremana oso ona da. Batzuetan zuk irabaziko duzu, besteetan beste batek, baina lasterketa amaitu eta lehia bizia izan duzun lasterkari bati besarkada bat ematea bezalakorik ez dago niretzat.

Zure ustez, zein da zure arrakastaren gakoa?

Nahiko erregularra naizela esango nuke. Ez naiz onena goraka, ezta beheraka edo lautadan ere, baina hiruretan nahiko ondo moldatzen naizela esango nuke. Neure burua oso ondo ezagutzen dut, eta badakit zer egin behar dudan erritmo bati eutsiz helmugara iristeko. Buruz ere nahiko indartsua naizela uste dut, konfiantza handia daukat nigan.

Ikusten duzu zure burua, egunean batean, Zegaman lasterkariak animatzen?

Bai, noski, eta egin egingo dut.

Eta ume asmorik bai?

Bai, baietz uste dut. Umerik gabeko bikoteak tristeagoak dira, ezta? Baliteke egunen batean... alaitasun pixka bat ekarri beharko dugu etxera (barrez)

Josu Zubiaurre, Fotoiosu eta Maiteren “xerpa”

Nor da Fotoiosu eta zein da Josu xerpa?

Josu animatzailea zen hasieran, eta ondoren, egoerak behartuta, lanean hasi behar izan zuen eta xerpa bihurtu zen (barrez). Josu xerpa Maiteren atzetik joaten zen lasterketetan, haren emaitzak hobetzen laguntzeko, ura edo janaria eramanez, edo estrategia prestatzen lagunduz, esaterako. Profilak ikusi, eguraldiaren arabera jan-edana antolatu, arropa... ez genekien ezer, baina besteek nola egiten zuten ikusiz, ahalik eta ondoen egiten saiatzen ginen. Maitek ez dauka astirik dena antolatzeko, nahikoa egiten du entrenamenduak eta lana bateratzen.

Eta nola sortu zen Fotoiosu?

Hasierako lasterketa haietan, Maiteren zain egoten nintzen bitartean, mutil asko pasatzen ziren aurretik (barrez), eta denbora pasa edo, haiei argazkiak egiten hasi nintzen, gehienak ezagunei eta lagunei. Egia da gerora Fotoiosuk izen pixka bat hartu duela trail munduan, eta lantxo batzuk ere egiten ditu. Zenbait lasterketatara ere joan da, sasi-argazkilari bihurtuta (barrez). Hasieran ez zegoen argazkilari asko mundu honetan, eta asko kostatzen zitzaidan Maiteren argazkiak aurkitzea, eta nik ateratzea erabaki nuen. Orain askotan pilatu egiten zaizkit xerpa lanak eta argazkilariarenak.

Nor da Maite Maiora?

Nik uste dut egun denok dakigula nor den Maite Maiora, eta zergatik den ezaguna. Nik hitz batekin definitu beharko banu “kasta” aukeratuko nuke. Baina horren atzean gauza asko daude: buru gogorra izatea, lana erruz egitea eta muturreko diziplina. Maitek ez du sekula etsitzen, eta elikadura eta entrenamenduetan, adibidez, ez du ezer barkatzen. Eta ez bakarrik denboraldian, baita hortik kanpo ere. Maitek ez, Maitek urte osoan eusten dio muturreko diziplina horri, eta gainera, urteak daramatza horrela. Berezko ezaugarriak baditu bai (bestela ezinezkoa izango litzateke dagoen lekuan egotea), baina batez ere lana dago Maiteren atzean. Nire ustez, urteetako diziplinari eta lanari esker iritsi da orain dagoen lekura.

Zein da bere arrakastaren gakoa?

Berak esaten du ingurukook asko laguntzen diogula, eta pozgarria da hori entzutea. Ni ahalik eta baikorren izaten saiatzen naiz, ez dudalako uste ezkor izateak onik egingo dionik. Oier Oregi fisioarenera ere nahi duenean joan ahal izatea handia da berarentzat, edozer gertatuta ere konfiantza handia ematen dio eta. Gurasoek ere laguntzen diote, harakinaren alaba da, eta erosketak errazten dizkiote (barrez). Baina Maiteren arrakasta Maiteren buruan dago, oinetan baino gehiago buruan. Korrika egiteko oinak mugitu behar dira, baina horretarako buruak %100ean egon behar du, beti, lasterketa guztietan, eta Maite ona da horretan. Beti da lehiakorra, beti ematen du daukan dena.

Munduko lasterkari onena da?

Bertikaletan faborito da, maratoian ere bai, eta pixkanaka ultra distantziako lasterketetan ere bai. Agian ez dago ondo nik esatea, baina hala sentitzen dut, eta uste dut ez naizela errealitatea handitzen ari: une honetan munduko mendi lasterkari osoena dela esango nuke. Titulu bat ere badauka hori hala dela baieztatzen duena, onena ez agian, baina hiru onenetako bat bai. Maitek burua dauka 40 minutuko lasterketa azkar batean dena emateko, eta neurri berean 15 orduko lasterketa luze batean dena emateko. Distantzia guztietan lehiatzen da, horrek dena esaten du, nire ustez.

Motorra ez dute itzali

Iñaki Berastegi

Andres, Ander eta Angela Vilariño Euskal Herriko pilotu familia handi bateko kideak dira. Aita, seme eta alabaren artean, Europako 14 txapelketa irabazi dituzte hainbat modalitatetan. Garaipen sorta horrek ez ditu itsutu vilariñotarrak, eta beti hankak lurrean dituztela egiten dute aurrera. Denboraldi berezia dute aurretik, Anderrek ez dakielako zehazki zer modalitatean aritu nahi duen, Angela haurdun dagoelako eta Andres aitak duela bizpahiru hilabete erretiroa iragarri ostean, lasterketak korritzen jarraituko duelako.

Motor hotsik ez da entzuten Olaberriako karting zirkuituan. Kotxerik ere apenas ageri da aparkalekuan. Goiz da, egun bikaina egiten du, eta zirkuituko bulegoetan bada norbait lanean. Ordenagailuaren aurrean, eta telefonoa eskuetan duela egiten du lan lasterketak korritzen ari ez denean Ander Vilariñok (Hondarribia, Gipuzkoa, 1979). Lan hori ere egitea tokatzen zaio, eta gustura egiten du, Europako zazpi txapelketa irabazi dituen pilotu gipuzkoarrak: Europako Nascar txapelketa hiru aldiz irabazi du, Erresistentziako Europako txapelketa birritan, eta Mendiko Europako txapelketan ere beste bi aldiz izan da garaile. Horiei, beste garaipen askoren artean, bereziki Formula 3 eta Formula Supertoyotako txapelketa entzutetsuak gehitu behar zaizkie.

Berehala iritsi dira Olaberriara beste Europako zazpi titulu. Bi txapeldun. Andres Vilariño (Donostia, 1951) eta Angela Vilariño (Hondarribia, 1985). Aita eta alaba. Horrenbestez, elkartu dira Vilariñotar sendiko pilotu ia guztiak. Andresek Europako Mendi txapelketa lau aldiz irabazi du, eta FIAko beste Europako garaikur bat dauka. Angelak, berriz, bi aldiz lortu du emakumezkoen Europako Mendiko txapelketaren garaikurra. Zenbaezinak diren garaipen horiei guztiei Angelaren bikotearen palmaresa gehitu behar zaio, Efen Vazquez moto gidari bilbotarrarekin ezkondua baitago, eta bere motoak, kaskoak eta abar Vilariñotarrekin batera daudelako Olaberrian gordeta.

Bulegoetara sartu bezain pronto hormetatik zintzilik dauden argazki bakoitza aztertu du Andres Vilariñok. Ander eta Angelaren ibilbidekoak dira gehienbat, eta aitak harrotasunez hitz egiten du semearen eta alabaren ibilbide oparoaz. Garai eta mota guztietako argazkiak daude ikusgai horman, baina bulego nagusian Anderren argazki bat nabarmentzen da guztien artean: "Anderrek 16 urte ditu argazkian. Nazioarteko lasterketa batzuetan korritzeko, Espainiako pilotu onenekin selekzio bat egin zuten, eta bertan aritu zen Ander". Argazkiak, ordea, tranpa ere badu, Anderrek gerrian, korritzeko monoan, ikurriña bat duelako. "Ez dakit amak nola egin zuen, baina ikurriña bat jarri zuen Espainiako bandera zegoen tokian. 1995koa izango da argazkia; oraindik ez dakit nola egin zuen, baina bikain geratu zen; ez du ematen argazkia aldatuta dagoela", azaldu du harrিতuta Anderrek.

Hiru pilotuen palmaresak ez du aldaketarik behar. Ibilbide luzea eta entzutetsua egiten ari dira Andres 1968an lasterketak korritzen hasi zenetik. Orduz gozotik, beti egon da, gutxienez, Vilariñotar bat errepide edo zirkuituetan korritzen. Eta azken urteetan hirurak aritu dira aldi berean. Baina ez dira soilik errepidean edo zirkuituetan aritzearekin konformatu urte guzti hauetan, beti ibili baitira hirurak garaipen, marka edo errekor berrien bila. Beti lehiakor, eta beti oinak lurrean dituztela.

Ander eta Angelari aitarengandik iritsi zitzaizen zaletasuna. Era berean, Andresi ere, bera aitarengandik iritsi zitzaion. "Aitari asko gustatzen zitzaion automobilismoa. Gainera, banaketa enpresa batean lan egiten zuen, eta ni askotan joaten nintzen berarekin. Etengabe amesten nuen kotxea gidatzearekin, eta 8 urterekin jarri nintzen bolantearen aurrean lehendabizikoz". Debako apezari susto galanta eman zion lehendabiziko aldi hartan: "Nire osabak eta izebak taberna bat zeukaten Deban, Kordeleria kalean: Bar Mazantini. Tarteka joaten ginen Debara, eta nire aita solasean aritzen zen lagunekin tabernan. Horietako egun batean, Debako apeza tabernara sartu zen eta aitari esan zion: "Manolo, zure kotxea bakarrik mugitzen ari da". Kotxea mugitzen ikusi zuen, eta ni hain gaztea nintzenez, ez ninduen kotxe barruan ikusiko. Beste garai batzuk ziren". Kotxe haren argazkia bilatu ezinik dabil Andres, NA-989 matrikula zuen autoa omen zen. Bederatzi urte beranduago hasi zen sortzen Andresen mitoa Euskal Herriko errepideetan.

Aitarekin alderatuta goiztiarra goa izan zen Ander, gurasoek bultzatuta: "Horrelako giro batean jaiota, zaila da afizio hori ez izatea. Haur bat nintzenean hasi nintzen, zaletasun handia neukalako. Ez neukan zalantzarik hartu nahi nuen bidea hura zela, baina ez nuen pentsatzen automobilismoan horrelako ibilbidea egingo nuenik", gogoratu du Anderrek. Villabonan gidatu zuen Anderrek lehendabiziko aldiz kart bat: "Lau urte bete gabe izango nituen. Villabonako herri zirkuituan, lasterketatik kanpo, itzuli batzuk ematen utzi zidaten. Lehendabiziko lasterketa beranduago izan zen, lau urterekin, Irunen. Orain, Olaberriako zirkuituan, pilotu gazteenak sei urterekin hasten dira".

Angelari gehiago kostatu zitzaion pilotu izan nahi zuela erabakitzea: "Hamabi urte izango nituen lehiatzen hasi nintzenean. Gabon batzuetan kart bat oparitu zidaten gurasoek; sekulako ilusioa egin zidan. Loiu inguruko parking batean aritzen ginen, baina urtebete bertan aritu ostean, alde batera utzi nuen. Olaberriako zirkuitua inauguratu genuenean hasi nintzen berriro ere korritzen", azaldu du Angelak.

Aitak balioa eman dio Angelak berak egin izana apustua: "Berak erabakitzea izan zen onena. Ander guk sartu genuen mundu honetan. Gainera, hasiera haietan, Anderrek beti esaten zidan Angelak oso ongi gidatzen zuela, modu sinple eta natural batean. Angelak gidatzeko modu bikaina, harrigarria dauka, eta ia entrenamendurik egin gabe. Lehendabiziko urte haietan, Euskadiko Karting txapelketa irabazi zuen eta Espainiakoan hirugarren amaitu".

Korritzeko moduari eta gustuei dagokionez, antzekotasun gehiago dituzte Andresek eta Angelak. Mendiko lasterketa eta rallyetan sentitzen dira eroso Andres eta Angela. Anderrek Europako Mendiko txapelketa ere irabazi duen arren, zirkuituko pilotua da.

Aitaren ikuspegitik, Ander eta Angelaren artean beste ezberdintasun handi bat dago. Semearekin sufritu egin du zirkuituetan, eta alabarekin, ordea, gozatu. "Galdera honen erantzuna agian hobeto emango luke psikologo batek. Anderrekin asko sufritzen nuen. Bagenekien Anderrek automobilismoaren munduan aurrera jarraitu nahi bazuen irabazi egin behar zuela. Batzuetan zirkuitura eramaten nuen, bertan utzi, eta lasterketa amaitu ondoren bueltatzen nintzen jasotzera.

Anderrek ondo ulertzen du zer den presio hori nabaritzea: "Aita korritzen ikustera joaten hasi nintzenean gauza berbera gertatzen zitzaidan niri. Aitak lasterketa ez irabazteko aukerak presioa sorrarazten zidan. Nirekin sufritzen bazuen hobe zen lasterketa ez ikustea. Orain, ordea, beste era

batera sufritzen dut aitarekin, ezin naiz lasterketa bat ikustera joan: min hartuko duen beldur naiz. Mendiko lasterketak oso arriskutsuak dira”. Angelak ere sentsazio berbera dauka aitarekiko: “Oso urduri jartzen naiz korritzen duenean. Batzuetan badirudi nik korritu behar dudala lasterketa”.

Aitari ez ezik, Anderren emazteari ere eragin izan dio mota horretako presioak. “Hamasei urterekin lehiatzen hasi nintzenean, Frantzia asko korritzen genuen. Ama etortzen zen nirekin gidabaimena lortu nuen artean. Ondoren bakarrik joaten nintzen lasterketetara emaztea etortzen hasi zen arte. Baina, Europako Nascar txapelketa bi aldiz irabazi ostean, hirugarren urtean bi punturengatik bigarren gelditu nintzen. Pilotu batek birritan lasterketatik at utzi ninduen. Hurrengo urtean berriz ere txapelketa irabazteko presio handia nuen, babesle gutxi genituen eta azken lasterketetara, egoera horregatik, nire emazteak ez etortzea erabaki zuen. Ulertzen ditut emaztea eta aita”, nabarmendu nahi izan du Anderrek.

Angelarekin egoera oso bestelakoa da: “Izugarri disfrutatzen dut alabarekin. Gizonen artean irabazten duenean, gehiago. Madrilera joan ginen behin Espainiako Karting txapelketako lasterketa batera. Harresiaren atzean jarri nintzen ni, eta Angela pasatzen zen bakoitzean garrasi egiten nion: “Eman, eman, azkarrago, eman”. Lasterketa bukatu ondoren Angela erdi lotsatuta etorri zen ea zer egin nuen esatera. Ikaragarri gozatu nuen”, argitu du Andresek. Batekin gozatu, eta bestearekin sufritu, biek emaitza bikainak lortzen zituzten arren.

Hautaketa naturala

Automobilismoa, ordea, ez da pilotuaren gidatzeko gaitasunera mugatzen. Babesleak ezinbestekoak dira. Dirua jartzen duten babesleak, eta bestelakoak, dirua beste era edo arrazoi bategatik jartzen dutenak; herrialdeetako gobernuak, familia edo pertsona aberatsak, ustiatu gabeko merkatuak... Hautaketa naturalen aurka egiten duten aldagaiak, alegia. Pilotu onak munduko txapelketa onenetara iristea baldintzatu dezaketenak; Amerikako Estatu Batuetan NASCAR-a eta mundu osoan Bat Formula. Hankak lurtean eduki dituzte beti Vilariñotarren: “Ni eta nire emaztea beti saiatu gara egon gaitezkeen tokian egoten. Eman behar dugun hurrengo pausua aztertzen. Ez dugu inoiz egon nahi izan zailtasunak sorraraziko zizkigun leku batean. Norbaiten menpe izatea ez zaigu gustatzen. Gure lan egiteko moduagatik iritsi gara gauden lekura, Europako 14 titulu hauek lortzera”. Automobilismoaren mundua oso kirol garestia izanik, eta babesleen beharra ezinbestekoa denez, beti “zentsudunak” izatea nahi izan du Andresek: “Anderrek eta Angelak akatsak egingo zituzten nik eta nire emazteak ere egin izan bagenitu. Erabaki okerrak hartuz gero, kirol honek berehala porrot ekonomikora eraman zaitzake. Guk beti esan dugu hemen gaudela, norbaitek laguntzeko zain, guk ezin dugulako gure kabuz momentu batzuetan aurrera egin”.

Bat Formulan edo AEBko NASCAR txapelketan sartzeko inbutuaz ari da hizketan bereziki Andres Vilariño. Bat Formula utzi berri duen Fernando Alonso txapeldun espainiarra baino bi urte zaharragoa da Ander. Hautaketa naturalaren falta dela eta, Bat Formulara iritsi ezinda pilotu onak bidean geratu direla dio: “Fernando Alonsok 4. amaitu zuen Formula 3000 txapelketan, Bat Formulako European Minardi taldearekin sinatu aurretik. Nork irabazi zuen urte hartan txapelketa? Inork ez daki. Ez dut esan nahi horrekin Alonso pilotu txarra denik, pentsa, birritan izan da Bat Formulako txapeldun. Inbutu ekonomikoarengatik Bat Formulako pilotu bikainak izan daitezkeenak bidean geratu direla esan nahi dut”.

Hau da, ona edo onena izateak ez duela ezer bermatzen automobilismoan. Hori argi du Anderrek: “Fernando Alonso erresistentziako mundialean Toyota batekin ari da. Hirugarren geratzen ari den pilotua, Rebellion taldekoa, Europara ekarri zuen talde batek, nire taldearen aurka lehitzeko, guri irabazteko. Eta ez zigun irabazi. Ez dut esan nahi bera baino hobea naizenik, baina pilotu txarragoa ere ez naiz”.

Kirol izugarri garestia da automobilismoa. Eta automobilismoaren barnean, Bat Formula eta AEBko NASCAR txapelketak dira errege eta erregina. Hiru bide daude aurrera egiteko: norberak norbere gastuak ordaintzea, babesleak izatea, edo pilotu batentzako dirua beste norbaitek jartzea.

“Bat Formulan 20 pilotu daude, eta horietatik, gutxi gorabehera, 10ek soilik irabazten dute benetan dirua. Gainontzekoek, euren edo euren herrialdeek jartzen dute dirua. Esaterako, Sergio “Checo” Perez pilotu mexikarraren dirua Carlos Slim dirudunak jartzen du. Narain Karthikeyan Bat Formulako pilotua nirekin aritu zen korritzen World Series-en. Bat Formulan aritzeko dirua Indiak jartzen zuen, erregeen familiakoa zelako”. Azken finean, automobilismoa ez da purua den kirol bat, norberaren ahalmenean oinarritzen dena: “Nire taldeak irabazi dezake Europako erresistentzia kopa. Eta zortea badugu, beste urtebetez agian jarraitu dezakegu talde berean babesleek jarraitzen badute eta beste hainbat aldagaik gure alde egiten badute”.

Babesleen munduan master bat du Andres Vilariñok. Urteen poderioz eta berak bere babesleak lortu eta kudeatu izanaren ondorioz lortu du. ‘Automobiles Rufo’ izeneko enpresa, kotxen salmentan oinarritzen zena, izan zen Andresen lehendabiziko babeslea: “Nik betidanik bilatu eta kudeatu ditut babesleak niretzako. Lasterketetan hasi nintzen garaia oso bestelakoa zen; egoera sozial gogor batetik esnatzen ari zen lurraldea, eta aukera gehiago zeuden babesleak lortzeko. Oso kirol ikusgarria da, baina Bat Formulan edo NASCARen aritzeko diru asko jarri behar da”.

Euro Nascar txapelketa hiru aldiz irabazi duen arren, horrek ez dio balio izan Anderri AEBko Nascar-en ibilbidea egiteko; “Nascarreko Hall of Fame” edo famaren saloian ere jarri zuten bere izena. Saiatu zen, baina ez zuen lortu. “Lau milioi euro inguru jarri behar dira bertan sartzeko”. Antolatzaileekin zituen aukerez hitz egin zuela azaldu du Anderrek: “Babesle handi bat behar nuela esan zidaten, nire herrialdeko babesle handi bat. Hortik aurrera, lagunduko zidatela”. Andresek gehitu du: “Interneten entzun dezakezu zer esan zuen Nascar-eko zuzendariak. Txapeldun handia zela, eta Nascar-ek European zuen enbaxadorerik onena”. Berrito ere inbutu ekonomikoa. Hala ere, egin duten ibilbidea kontuan hartuta, Andresek argi dauka: “Zorionekoa izan da gure ibilbidea”.

Bat Formulako merkatua

Bat Formulara bueltatuta, Anderrek ongi asko ezagutzen du negozioak nola funtzionatzen duen: “Zuzenean saltzen ditu telebista eskubideak Bat Formulak. Dena oso aztertua daukate. Pedro De La Rosa, Marc Gene eta bereziki Fernando Alonso iritsi zirenean, Espainian telebista eskubideak ustiatu gabe zeuden. Hiru pilotu horiekin, 6 milioi euro balio zuten eskubideak, agian, 60 milioi eurotan saltzea lortu zuten. Gainera, aldi berean, enpresa handiak erakarri zituzten. Robert Kubica eta Poloniarekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Negozio bikaina”.

Dena den, Anderrek argi eta garbi dauka bere kirolaren errealitatea zein den. “Badakit ni baino pilotu hobeak daudela Bat Formulara iritsi ez direnak. Baina ziur naiz horietako batzuek ibilbide ona egin zezaketela. Kirol hau horrelakoa da. Pozik nago korritu dudan leku guztietan pilotu askoren aurka lehiatu naizelako, baita Bat Formularen aritutakoen kontra ere, eta hala ere aukera izan dut lasterketak eta txapelketak irabazteko”.

Anderrek esandako guztiari azalpena gehitu nahi izan dio aitak: “Hau horrela esanda, jendeak ulertu dezake Anderrek inbidia duela, baina ez da horrela. Bere ikasketak bikain atera zituen Deustuko unibertsitatean, euskara, gaztelera, ingelesa, italiera eta frantsesa bikaina hitz egiten ditu, igeriketan mastersean ere Espainiako txapelkun izan zen ur irekietan... Anderrek ez dauka trauma bat ez delako Bat Formulara iritsi. Nik nahiago nuke inoiz korritu izan ez balu”.

Dena den, Andresek gogora ekarri du Anderrek Bat Formularen aritzeko benetako aukera izan zueneko: “Hirugarren pilotu edo pilotu probatzaile izateko 9 milioi jarri behar ziren. Nik babesle garrantzitsu bat nuen eta saiatu ginen arren, diru asko zen”. Anderrek aitak esandakoari gehitu dio: “Hirugarren pilotu izateko diru asko zen, baina talde oso ona zen, pilotu garrantzitsu batekin”.

Angelaren ibilbidea berreskuratu du Andresek, gidari lanak eginez: “Ezin dugu esan emakumea gizona bezalakoa denik. Nik ez dudalako hilekoa, edo ezin naizelako haurdun geratu. Gainera, nik ez dut inoiz jaso nire alaba babesteko edo laguntzeko eskaintzarik”.

Beranduago lehiatzen hasi zen arren, sekulako garaipenak lortu ditu Angelak. Arestian aipatutako Europako emakumezkoen mendiko bi txapelketez gain, Espainiako Mendiko txapelketa eta kopa ere irabazi ditu, emakumezkoen Espainiako Rally txapelketa eta beste asko. Garaipen eta traba ugari izan ditu bere kirol ibilbidean; larrienetarikoa, korritzeko lizentzia kendu ziotenean, lasterketa baten ondoren egindako adierazpenengatik. “Hondarribian izan zen. Anderrek aurreko urtean irabazi zuen, eta bere marka ondu nahi zuen. 3-4 segundo ontzen ari zen bere marka, bihurtzeko batean kanpora joan zen arte. Hainbat pertsonaren ezusteko, Angelak irabazi zuen lasterketa”, gogoratu du Andresek. Angelak berak azaldu du zer adierazpen egin zituen: “Esan nuen kargu batzuei nire garaipena ez zitzaiela gustatu, emakumea eta Vilariñotar bat nintzelako”. Lizentzia kendu ostean, kautelazko neurria eskatu zuten Vilariñotarren, baina ez zieten eman. Epaia alde izan zuten arren, txapelketako azken lasterketan ez zuen parte hartu, eta ezin izan zuen Euskadiko Rallysprint txapelketa irabazi. Hori eta beste arazo batzuk direla tarteko, Euskal Herrian korritzeari utzi diote Angelak eta Andresek. “Zorionez, kanpoan ere korritzeko aukera daukat. Galizian eta Kantabrian aritu gara, errekor batzuk ere apurtu ditut bertan, eta hori nire adinarekin, goraiatzeko modukoa da. Alfonbra gorri bat jarri beharko zidaten”, dio barre artean Andresek.

Andresena izugarria delako. 66 urte ditu, eta ez dio utzi lasterketak irabazi eta errekor berriak ezartzeari debuta egin zuenetik. Europako bost txapelketez gain, lau aldiz izan da Espainiako Mendi txapelketako txapelketa, behin Espainiako Turismo txapelketa eta Le Manseko 24 orduetan, 1994an, 4. Postuan amaitu zuen GT2 kategorian, Ferrari batekin. Jaizkibelgo igoerara 2003tik bueltatu ez den arren, Andres bera da bertan garaipen gehien dituen: “Zortzi aldiz irabazi dut, sartu interneten eta begiratu nahi baduzu”. Anderrek, baina, ez du hain garbi: “Ez dakit oraindik gehien irabazi duena zaren”. Mugikorra hartzeko eta erreparatzeko eskatu dio aitak semeari. Elkarrizketak aurrera jarraitzen du Anderrek solasaldia moztzen duenean: “Arrazoi zenuen. Zazpi kontatu ditut, baina bazegoen zortzigarren bat gaizki zegoena. Zure izena beharrez nirea zegoen jarrita”.

Bakarkako garaipenez gain, Andresi ez zaio ahazten Jaizkibelen korritu zen Europako txapelketa prestatzen aritu zenekoa: "Aholkulari lanak egin nituen. Pilotu kanpotarrak etorri zirenean nire lurraldea erakutsi eta sustatu nuen. Ni euskal herritarra naiz bihotzez, Donostiarra gauza guztien gainetik. 80ko hamarkadan Donostiako posterra eramaten nuen. Espainola nintzela esaten zidaten. Ni ez nintzen egoera zein zen azaltzen hasi behar, Donostia ere non zegoen ez zekitelako. Lurraldetasuna lantzen han hasi ginen".

Angelaren oparia

Elkarrizketa egin aurretik hedabideetan azaldu zen Andresek erretiroa hartzeko erabakia hartu zuela: "Ander eta Angelarengatik utzi nahi nuen. Laguntza moral eta logistikoa eskaini nahi nien. Eta horrez gain, ekonomikoa ere bai, nire babesleak eurei utzita. Familia batean pilotu bat izatea bikaina da, bi izatea izugarria, eta hiru izatea eta hirurak aldi berean lehiatzen ikustea ezin da deskribatu". Angela haurdun dago, eta urtebetez, lehiatzeari uko egingo diola azaldu du Andresek: "Nik Angelan zentratu nahi nuen. Baina, bi opari egin dizkit aldi berean: "Biloba bat bidean dator, eta beste urtebetez korritu dezaket".

Angelak barre artean esan du "pena" ematen ziola aitak lasterketak uztea, eta utziko balu, zer egin behar zuen galdetu dio. Elkarrizketa amaitu ostean, berriro gaia aterata, Angela bueltatzen denean Andresek ez dauka garbi utziko duen: "Hau da gehien egitea gustatzen zaidana, eta denbora daukat. Agian ez dut utziko".

Europako eta Espainiako erresistentzia probetan, eta 24 orduko serietan azken urtea eman ostean, Anderren etorkizuna ere ez dago garbi. Motorsport atariak jasotzen duenez, 13 pilotu aritu ziren Le Comten, Euro Nascarreko pilotuak kontratatzeko eta ezagutzeko antolatzen duen lehen egunean. Atari honek dioenez, eta Anderrek hala aitortuta, erabakia ez dago hartuta. 2012 eta 2015 artean aritu zen Nascarren Ander, 46 lasterketa lehiatu zituen eta 20 garaipen lortu. Angelak, berriz, argi dauka berriro ere bueltatu nahi duela Mendiko Lasterketak korritzera.

Bitartean, eta erabaki guzti horiek hartu arte, Olaberriako zirkuituan, Vilariño familiaren "babeslekuan", lanean segituko dute hirurek. Kart-ak alokatzeko zerbitzuaz gain, gidatzeko klaseak ere ematen dituzte. Eta, nagusiki, distribuzioa da egungo negozio nagusia Anderrek dioenez: "2003az geroztik Avon pneumatiko marka banatzen dugu, eta dendak ongi funtzionatu duenez, 2017tik aurrera beste hainbat produktu ere saltzen edo banatzen ditugu. Nazioarteko banaketa nik eramaten dut gehienbat, eta lasterketarik ez dudanean hemen egoten naiz. Bat Formulan edo Nascarren ez bazaude, ez duzu astero lasterketarik izaten eta ez zaude beti bidaiatzen". Banaketaz gain, Angela haurdun dagoenez, gidatzen ikasteko klaseak emateari utzi beharko dio eta agian Anderrek bere gain hartu beharko ditu eskola horiek.

1997an inauguratu zuten zirkuitua, eta egun, % 85 Vilariño familiarena da, eta beste % 15 Iñaki Olano bazkidearena. Andresek argitu du euren diruarekin atera dutela aurrera zirkuitua, inongo laguntza ekonomikorik gabe: "Foru Aldundiari eskertu behar diot lizentziak eta dena eman izana, baina zirkuitua bere osotasunean guk ordaindu dugu. Jende normala gara. Eskerrak eman nahi dizkiete baita ere hedabideei beti eman diguten laguntzarengatik. Haiek gabe ez zara ezagutzera ematen, eta ez dituzu beharrezkoak diren babesak lortzen. Eta nola ez, zaleei".

Dena den, zerbait argitu nahi izan du amaitu aurretik Andresek: “Jende umila gara. Ez dugu elkarrizketarik bilatzen, baina pena da nola dagoen automobilismoaren egoera Euskal Herrian. Vilariño bezalako familia bat erabili egin beharko lukete automobilismora jendea gerturatu dadin, Miguel Indurainekin edo Abraham Olanorekin bere garaian egin bezala. Gipuzkoako familia kirolariaren saria jaso genuen, eta nik neuk eta Anderrek Gipuzkoako kirolari onenaren saria ere jaso dugu”.

Vilariño familiako pilotuen garaipen zerrenda ez da amaitzen, ikaragarri luzea delako, eta oraindik hirurek lasterketak korritzen jarraituko dutelako. Andresek, Anderrek eta Angelak motorra ez dute itzali. Aurki entzungo dugu berriro ere Vilariñotar batek gidatutako kotxe baten motor hotsa errepideetan nahiz zirkuituetan.

Oinarriko lana, funtsezkoa denboran mantentzeko

Zarauzko emakumezkoen eskubaloiko taldeak sortu zirela 40 urte betetzen dira aurten. Kadete zein jubenil mailatan eman zuten izena, eta 1979-1980 denboraldian aurreneko talde seniorra sortu zen. Kirol Elkarteak berak 2015ean bere 50. urteurrena ospatu zuen, eta eskubaloiko aurreneko taldea ere 1965ean lehiatu zen ofizialki lehenengo aldiz.

Gipuzkoan erreferente da Zarautz eskubaloi arloan, azpi-kategoriatan eginiko lanagatik, batez ere. Emakumezkoen kasuan gorengo mailan, Ohorezko Mailan, lehiatzea ere badakite zer den. Dena den, Inma Saez zuzendaritzako kideak argi dauka klubaren helburua zerk behar duen izan: «Azpiko kategoriatan erreferente izaten jarraitu nahi dugu, urte asko gabiltza lanean, eta ez da aldatu filosofia. Era berean, zortea izan dugu zuzendaritzan sartu izan den jende berriak ez duelako ikuspuntua aldatu. Errealistak gara. Azpikoa landu eta ikuspuntu hori ez galtzea da denboran irautea ahalbidetuko digun funtsezko ezaugarria».

Inma Saenz ez da inoiz eskubaloian aritu, baina argitu du betidanik egon dela harremanetan. Jada 14 urte dira eskubaloiko zuzendaritza batzordean sartzea erabaki zuenetik; Zarauzko Kirol Elkartearen 40. urteurrenaren ospakizunean eman zuen pausua. Orduan 13 taldek osatzen zuten, «eta gaur gaurkoz 33 gara, horietatik 18 emakumezkoak. Eskubaloiko bi eskola ere baditugu, bata Zarautzen eta bestea Orion. Eta benjamin eta alebinen kasuan 64 talde dauzkagu».

Harridura sortzen duten zifrak dira, poztekoak izan beharko luketen datuak. Baina arazoak dituztela ohartarazi du Saenzek. «Iaz talde gehiago osatzeari uko egin behar izan genion, kantxen inguruan arazo garrantzitsua baitaukagu. Espero dugu datozen urteetan konpontzea».

Kiroldegian eta Antoniano ikastetxean jokatzen dute, eta Orokietako frontoian marraztuta dagoen erreglamenduko kantxarekin partekatzen dute. «Saskibaloia eta areto futbolarekin tartekatzen ditugun jokatze lekuak dira, eta kiroldegiaz aparte ditugun leku horiek 1800etatik aurrera bakarrik erabili ditzakegu, eskola-kirolak lehentasuna baitauka». Batzuetan hiru taldek partekatzen dute kantxa bakarra, eta bere ustez horrela lan egitea zaila da. «Dena den, emaitza onak mantentzen ditugu».

Saenzek, diskurtso argiarekin, ez du ihes egin nahi aldarrikapen batzuk airera bota gabe. Arazoez mintzatu da, baina ados agertu da arazo pozgarriak direla. Izan ere, Zarautzen kirola guztiz errotuta egonik, eskubaloiak indar berezia duela erakusten duten datuokin jakinarazi zigun hori zuzendaritzako kideak. Esaterako, gizonetzkoen Zilarrezko Ohorezko Mailan dagoen taldeak (Amenabar Zarautz) etxean arerio entzutetsu baten aurka jokatzean, «sarrera kobratzen dugu, beste neurketa batzuetan ez bezala, hurbiltzen diren zale kopurua murriztu ahal izateko, harmailak ere ez baitira handiegiak».

«Arazoa da, baina era berean eskertzekoa da. Zarautzen eskubaloiak duen babes itzela da, guztiak harriturik geratzen dira jende gutxiago etortzeko sarrera kobratu behar izatearekin», azaldu du Saenzek.

Esperientzia

Harridura pizten duten zifra hauek entzutean, Karmele Makazaga zein Tere Lopetegi barrezka hasten dira. Aurreneko aldiz Ohorezko Mailan jokatu zuen taldearen parte ziren, 1982an. «Orduan lagun kuadrilla bat ginen, eskubaloia zaletasuna elkarbanatzen genuen, baina gure asmoa sekula ez zen izan elitera igotzea, ez genuen posible ikusten, alegia», kontatu du Karmele Makazagak. Behin igota, ordea, gauza asko aldatzen direla nabarmentzera pasatu da, bidaia kontuak tarteko. «Bidaia luzeak ziren, antolatu egin behar ginen».

«Ni gogoratzen naiz Granadara joan behar gineneko egun hartaz. 16 ordu pasa genitun autobusean, 02:00etan abiatu eta 18:00etan heldu ginen, eta aterpetxe batean pasa genuen gaua», zehaztu du Lopetegik. «Ondo pasatzen genuen», hartu dio testigua Makazagak. «Kamisetak ere... Kamiseta zuriak ziren, zenbakiak erosi, josi eta horrela jokatzen genuen. Igotzean, jada, babesleren bat eduki genuen», dio erdi barrezka Lopetegik.

Anekdotak asko gordetzen dituzte biek ala biek. Lopetegi Saenzekin batera sartu zen zuzendaritzan, baina lau urteren buruan utzi egin zuen, entrenatzaile lanetara igarotzeko. «Nire ustetan ez zen behar bezala eskertzen zuzendaritzako lana, eta nahiago nuen kantxan egon, bertatik bertara. Hor askoz ere hobeto sentitzen nintzen, gehiago betetzen zidan». Garaipenak, hurrei eskubaloia erakustea eta haiek hezitzea zen haren grina.

Karmele Makazaga ere entrenatzaile lanetan dabil, Zarautzik at jokalaria moduan elitean urte gehiago eman ondoren. Orain, duela bi urtetik, infantilekin dabil lanean. 18 urterekin irten zen herriko taldetik, espainiar selekzioan jarraitzea ahalbidetuko zion aukera gehiagoren bila. Bartzelonako Olinpiar Jokoak jokatu zituen, Zarautza itzuli zen, eta Hernanira joan zen beranduago.

«Orduan ez zegoen ez etete klausularik, ez dirurik. Nire helburua gorengo mailan jokatzea zen, eskubaloia gustatuz gero hori baita handiena. Ekonomikoki ez nuen ezer jaso, azkenengo urtean Bera Beran zerbait, baina bidaietarako eta ezer gutxi. Baina esperientzia aldetik asko ikasi nuen, asko bidaiatu nuen, eta lagun asko egin nituen». Oraindik ere eskubaloia «frikia» dela onartu du, eta ahal bezain beste neurketa ikusten dituela.

Zarautzen eskubaloia duen zaletasuna ulertzeko, familia bereko belaunaldi berriek emandako jarraitutasuna aipatzea beharrezkoa da. Makazaga, Saenz zein Lopetegiren seme-alabak eskubaloian dabilta, eta aurreneko bien gizonak ere jokalaria izandakoak dira. «Etxeko guztiak», laburbiltzen du Lopetegik.

Kluba bera, pertsona askok osatua izanik ere, familia bat bezala deskribatzen dute solaskideek. Eta familia bat den heinean, ahalik eta zoriontsuen ikusi nahi dituzte jokalaria guztiak. «Jarraitu nahi duenak beti edukiko du tokia gure klubean», dio tinkotasunez Makazagak. Beste herri batzuetan gertatzen denaren adibidea jarri du, Zarautzek nola funtzionatzen duen argitze aldera. Infantiletan bost talde izanik, ez dute onenen arteko talde bat egiten, «gutxi gorabehera guztiak antzerakoak egiten ditugu, lehiatzera joaten gara, baina guztiak ondo pasatzea da helburua». Kadete eta jubenil mailan bai egiten dituzte bereizketak, Euskal Ligan ahalik eta hobetoen lehiatzeko, «baina herri askotan onenen arteko mugimendu horiek infantiletan egiten dituzte, eta ondorioz hurrek azkar uzten dute kirola».

«Eta astebururo 40 gol jasotzen badituzu...», zehaztu du Lopetegik.

Onenen arteko bereizketa goiztiarra egin edo ez egin, Saenz beste kontu batek kezkatzen du, eta azaldu duenaren arabera, ez da kezka hori barnean duen kide bakarra. Kadete mailatik jubeniletarako jauzia da arazoa. «Gipuzkoako Federazioan 35 talde kadete daude, baina jubenilen 12 bakarrik lehiatzen dira. Gure kasuan bostetik bira murrizten da», zehaztu du. Ikerketa baten berri eman du segidan, Gipuzkoako hiru zonaldeetan egin: Egian (Donostia), Zarautzen eta Zumarragan. «Jubenil neska eta mutilen motibazioak zeintzuk diren jakiteko lana egin da, arrazoiren bat aurkitzeko murrizketa horretan. Horretaz zer uste duten galdetzean, ezjakintasuna da nagusi. Kuadrillan sakabanatzea, kalitatea lehenestea, eta eskasagoak direnekin gertuko lana ez egitea dira hiru zarauztar hauen usteetako batzuk.

Zerbaiten parte sentitzearren garrantzia

«Guretzat eskubaloia familia bat da, eta hortik inor ez kanporatzen saiatzen gara. Garrantzitsua da txiki-txikitatik pentsamendu hori errotzea», azaldu du Makazagak. Talde giroaren defentsa sendoa egin dute guztiek, eta Tere Lopetegik halaxe aipatu du: «Guk beti lehenetsi izan dugu. Saiatzen gara transmititzen bakoitzak eman dezakeena. Adibidez, nat izan daiteke adar jotzearen liderra. Talde giro moduan hitz egiten dugu».

Babesa txikitatik eman behar zaielakoan daude, txarra adjektiboa ez erabiliz. Izan ere, badaude haurrak hori barneratuta dutenak, «eta zergatik izango da ba eskasa?», galdetzen du Makazagak. «Bakoitzak badu hemen bere egitekoa».

Kadeteen kasuan, esaterako, Inma Saenzek adierazten duen legez, nerabezaroaren erdian izaki, zerbaiten parte direla sentitzearen garrantzia nabarmendu zuten: «Baztertuak ez sentitzea, alajaina». Bide beretik jarraituz, Lopetegik nabarmendu du autoestima pertsonal bat dela, eta guztiak ondo sentituz gero, «taldea hazi egiten da, baita kluba ere, eta guztiok egiten dugu arraun bide beretik».

Diskurtso hori barneratuta ezinbestekoa zen itaun zehatz bat mahai gainean jartzea: zer da garrantzitsuagoa, harrobiko klub erreferentea izatea ala gorengo mailara igo eta kanpotik fitxaketak egitea bertan mantentzeko? «Argi eta garbi erreferenteak izatea, urteak daramatzagu, zuzendaritza batzordea aldatzen joan da, eta filosofia beti izan da berdina. Gurea harrobia da, oso errealistak gara. Gure helburua da Amenabar eta Aiala ahalik eta goren egotea, orain bezala Zilarrezko mailan, baina gurea harrobia da», dio zuzendaritza batzordeko kideak, seriotasun osoz.

Filosofia horren baitan, jokalaria onenen ihesaldia jasan behar izaten dute. Asko dira gorengo mailako taldeetara joaten direnak. «Zuzendaritza batzordeko kide gisa, kostatzen da hainbeste urte zure klubean egon den jokalaria bat agurtzea, baina onena opatzea besterik ez zaigu geratzen», dio Saenzek. Jakitun dira beraien gabeziez, badakite batzuek gehiago hobetzeko kanpora joan behar dutela. Horregatik formazio klausulez mintzatu dira; betidanik eduki izan dute, baina ziurtatu dute inoiz ez dela izan dirua lortzeko bide bat, «jokalariak beraiek balorean jartzeko modu bat baizik». «Jende asko joan da Zarauztik gutxieneko kpuru bat jarrita, eta joan nahi duen jokalaria guztientzat negoziatzeko aukera dago», zehaztu du Saenzek.

Irteera goiztiarrak ez gertatzeko, ikasketek zerikusi handia dutela aipatu dute. Halaber, erreferente izate horrek «pribilegio» moduko bat eskuratzea ahalbidetu die. «Bidasoa zein Bera Bera legez, daukagun pribilegioetako bat da, abantzu edo trebetasun oparoa duten jokalariei beka moduko bat ematea, horrela gurekin jokatzeko jarraitu ahal izateko. Hau da, jokalaria hauek joateko arrazoi nagusia ez izatea eskaini diezaieketen dirua», nabarmendu du Saenzek, horrela etxean eta ikasketekin normaltasun osoz jarraitzea ahalbidetuz.

Hala eta guztiz, beti ere diruarekin zoratu gabe ibiltzeko asmo tinkoa agerian jarri dute. Gaur gaurkoz, ez dute bideragarri ikusten bi talde gipuzkoar emakumezkoen Ohorezko Mailan egotea, duela bi denboraldi gertatu zen legez. Mantentzeko dirua behar dela baieztatu dute, eta «dirua jartzen duenak emaitzak nahi ditu, eta emaitzak heltzen ez direnean guztia kili-kolo jartzen da. Guk ez dugu eredu hori nahi, bi talde goian eduki nahi ditugu –Zilarrezko Mailan–, eta hor jokatzera heldu ezin daitekeena edo nahi ez duenak beste talde batzuk eduki ditzala, eskubaloiaz gozatzen jarraitu dezan», argitu du Makazagak.

Oinarriko lana egoki egitea funtsezkoa dute denboran zehar mantentzeko.